3. #gazteplana#

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

# EUSKO JAURLARITZAREN III. GAZTE PLANAREN (2014-2016)

## EMAITZEN EBALUAZIOA

2017ko iraila

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

# Aurkibidea

Aurkibidea 2

1. Sarrera 5

Aurrekariak eta testuingurua 5

Ebaluazioaren helburuak 9

Erabilitako metodologia 10

Txostenaren egitura 11

2. Emaitza nagusiak 13

Emaitzak eta ondorioak 14

3. III. Gazte Planaren emaitzen balioespena 18

1. arloa. Hezkuntza 21

2. arloa. Enplegua 36

3. arloa. Etxebizitza 52

4. arloa. Osasuna 62

5. arloa. Gizarte-ekintza 78

6. arloa. Kultura 89

7. arloa. Aisialdia 99

8. arloa. Kontsumoa 109

9. arloa. Mugikortasun jasangarria 117

4. Gomendioak 127

Planaren egiturarekin berarekin lotutako gomendioak 127

Sistematikarekin eta segimendua egiteko informazioa biltzeko metodoarekin lotutako gomendioak 127

Esku hartzeko arloei buruzko gomendioak 128

I. eranskina. Egindako landa-lanaren xehetasuna 137

# 01

# Sarrera

# 1. Sarrera

## Aurrekariak eta testuingurua

Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana 2014-2016 Jaurlaritzak gazteekin duen jardunaren eta konpromisoaren jarraipena da, eta haren helburu nagusia zera da, pertsonen emantzipazioaren alde lan egitea, bizitza-proiektuak eraiki eta mamitu ahal izan ditzaten, eta, aldi berean, proiektu kolektiboetan parte hartzeko gaitasuna ere gara dezaten. Aurrekari gisa, nabarmentzekoak dira I. Gazte Plana 1999-2001 eta II. Gazte Plana 2002-2005, baita 2006ko abenduan Gobernu Kontseiluak onartutako «Gazteen politika integrala sustatzeko neurri iragankorrak» ere.

Hala, III. Gazte Planak aurreko planen ezaugarri nagusiei eusten die definizioan (hala nola izaera integrala, transbertsala, sailartekoa, parte-hartzailea eta gizartearen partaidetzara irekia), eta berezitasun jakin bat dauka: «Gazteriaren Arloko Euskal Estrategia: Euskadiko III. Gazte Plana 2020ren Marko Orokorra»ren babespean sortua dela. Estrategia hori 2012ko ekainean onartu zuen Gobernu Kontseiluak, eta honako hau jasotzen du:

*«Aipatutako esku-hartze lerroak eta gidalerroak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio bakoitzak gazteriaren arloko plangintza egokia bermatuko du bere lurralde-esparruan, legegintzaldi bakoitzari dagokion eperako, bai eta ebaluatuko ere, arau bidez ezarriko diren irizpideen arabera.»*

*«Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio bakoitzak, bere burua antolatzeko dituen eskumenak egikaritzean, dagokion gazte-politika integralaren programazioa eta ebaluazioa gauzatzeko sail arteko koordinazioa bermatuko du bere administrazioaren baitan.»*

Plana prestatzeko ikuspegitik, eta bertan jasota dagoen moduan, legegintzaldiaren hasieran egitura organikoak egokitzen amaitu ostean, 2013ko abenduaren 4tik aurrera sailetako ekarpenak jaso ziren, eta haietatik sortu zen III. Gazte Planaren lehendabiziko zirriborroa. Esandako zirriborro hura Gazteriaren Euskal Behatokiaren webgunean zabaldu zen, baita Gazteaukera atarian ere; aldi berean, izapidetzen hasi zen, Euskadiko Gazte Kontseiluaren txosten-eskaera bilduta, ondoren Gobernu Kontseiluari helarazteko. Azkenik, 2014ko urriaren 28ko Gobernu Kontseiluan onartu zuten, legegintzaldian gazteriaren alorrean erreferentzia-erreminta izateko bokazioz.

Egiturari eta osaketari erreparatuta, III. Gazte Planak luze-zabal jorratzen du enuntziatu estrategikoa: 2 ardatz estrategiko, haien inguruan definitutako 31 helburu estrategiko, 91 esku-hartze lerro eta urtean 200 ekintza baino gehiago. Zehazki, ekintzen urteko banaketa honako taula honetan dago jasota:

| 2014 | 204 | 2015 | 242 | 2016 | 240 |
|---|---|---|---|---|---|

Ardatzetan, helburutan eta ildotan xehatutako egitura ondoren dago bilduta, guztia ere planaren aberastasuna osorik jasota gera dadin, zabaltze estrategikoarekin loturik:

**1. ardatza: Emantzipazioa eta autonomia**
Helburuak eta ildo estrategikoak:

**EDUCACIÓN**

**Apoyar la investigación y los estudios de especialización.**

1.6.1- Promover la dotación de becas para estudios de especialización en el país y en el extranjero.

1.6.2.- Impulsar programas que incentiven la investigación.

**Aumentar la movilidad de las personas jóvenes para propiciar el intercambio de experiencias, el plurilingüismo y la interculturalidad de manera que las personas jóvenes estén preparadas para desenvolverse en al actual sociedad global e interconectada.**

1.5.1.- Fomentar un mayor uso por parte de las personas jóvenes de los recursos europeos para la movilidad.

**Mejorar la capacidad lingüística de las personas jóvenes, tanto en las dos lenguas oficiales de la CAPV como en al menos una lengua extranjera.**

1.4.1.- Habilitar becas para que los jóvenes realicen cursos de idiomas en el extranjero.

1.4.2.- Fomentar el intercambio de las personas jóvenes con países de la UE.

1.4.3.- Impulsar el aprendizaje y uso del euskera en el ámbito educativo formar y no formal, especialmente en aquellos territorios donde su presencia y conocimiento se da en menor proporción

**Mejorar la educación en valores en los ámbitos de la educación formal y no formal.**

1.2.1.- Impulsar la educación en valores en toda actividad escolar y extraescolar, estableciendo orientaciones para su inclusión en el plan anual del centro.

1.2.3.- Impulsar actividades o programas que posibiliten el intercambio de experiencias intergeneracional.

**Potenciar la integración de todos los agentes socioeducativos en una política educativa conjunta.**

1.3.1.- Desarrollar estrategias que estimulen la participación del alumnado en los centros de enseñanza.

1.3.2.- Impulsar la elaboración de acuerdos de colaboración de los centros de enseñanza con ayuntamientos y agentes sociales con el objetivo de desarrollar actividades conjuntamente y utilizar espacios de interés común

1.3.3.- Incorporar cuestiones como el reconocimiento de la corresponsabilidad de estos agentes, fomentar la función de la familia como agente activo, reforzar y reconocer el potencial estratégico de las redes sociales y de las asociaciones educativas y la coordinación y el trabajo en red.

1.3.5.- Promover y facilitar la inclusión de la realidad del entorno sociocultural inmediato así como el europeo en el proyecto curricular del centro.

1.3.6.- Implementar programas destinados al alumnado para el desarrollo de habilidades comunicativas (lingüísticas, tecnológicas y relacionales) que permitan una mejor interrelación con el entorno.

**Reducir el efecto de las desigualdades sociales y de género y su reproducción en el sistema educativo.**

1.1.1.- Facilitar el acceso, permanencia y finalización de los estudios, principalmente postobligatorios, mediante becas y planes de estudios compatibles con el

1.1.2.- Atender la diversidad del alumnado dando respuesta a sus diferentes necesidades por razón de origen, cultura, posibles discapacidades.

1.1.5.- Combatir los estereotipos de género.

1.1.7.- Adaptación de los centros educativos a la realidad de la emigración mediante la dotación de los recursos adecuados.

**EMPLEO**

**Aumentar el espíritu emprendedor mediante una política coordinada destinada a impulsar las competencias emprendedoras desde edades tempranas.**

2.4.1.- Crear e incentivar el espíritu innovador y emprendedor entre las personas jóvenes.

2.4.2.- Desarrollar una política coordinada destinada a apoyar el autoempleo juvenil y la creación de empresas, mediante el cooperativismo u otras fórmulas,

2.4.3.- Cualificar a las personas jóvenes que pretendan incorporarse al sector agrario.

**Favorecer una mayor vinculación entre el ámbito formativo y el mercado de trabajo a fin de garantizar una mejor adecuación entre la formación recibida y las**

2.2.1.- Incidir en la formación especifica como estrategia en la incorporación laboral de la juventud, como una herramienta en el desarrollo de sus trayectorias

2.2.2.- Facilitar una cualificación profesional y experiencia laboral previa que permita la aplicación práctica de los conocimientos teóricos adquiridos.

2.2.3.- Dotar a la población universitaria de las habilidades necesarias para su incorporación al mercado de trabajo.

2.2.4.- Ofrecer una alternativa más al alumnado de enseñanzas regladas y formación no reglada, en el ámbito del ocio y la creación.

2.2.5.- Adecuar la oferta formativa a las necesidades reales del mercado laboral

2.2.6.- Asesor en los centros educativos a las personas jóvenes en la elección de sus itinerarios de formación y en la búsqueda de empleo, incorporando la información sobre el mercado laboral (nivel de empleabilidad y retribuciones)

**Mejorar la inserción laboral de las personas jóvenes impulsando una política coordinada orientada a la creación y mantenimiento del empleo, así como a la mejora de su calidad, incidiendo en aquellas personas que se encuentran en posible situación de discriminación múltiple.**

2.3.1.- Propiciar la inserción laboral de jóvenes en riesgo de exclusión social

2.3.2.- Ofrecer información, orientación y acompañamiento a las personas jóvenes sobre las políticas de empleo.

2.3.3.- Impulsar una política coordinada orientada a la creación y mantenimiento de empleo para las personas jóvenes a través de la adopción de medidas de acción positiva y la aplicación de ventajas fiscales que promuevan el compromiso empresarial en materia de contratación.

2.3.5.- Incrementar la participación de las corporaciones locales en los programas de creación de empleo

2.3.7.- Reducir la siniestralidad de las personas jóvenes atendiendo a las diferencias de género.

**Potenciar la formación continua y el aprendizaje a lo largo de toda la vida.**

2.1.1. - Favorecer la adquisición de competencias profesionales por parte de las personas jóvenes trabajadoras

**VIVIENDA**

**Impulsar el desarrollo de nuevos modelos residenciales para responder a las diferentes tipologías de jóvenes y sus necesidades.**

3.2.1. Promocionar la edificación de viviendas para alquiler protegido cuyas características constructivas y régimen económico estén especialmente adaptados a las necesidades de personas jóvenes que deseen emanciparse.

3.2.2. Fomentar el conocimiento y uso por parte de los jóvenes del mecanismo de permutas de viviendas de protección oficial a través de la Web puesta en marcha por el Departamento de Vivienda

**Mejorar las oportunidades de acceso a la vivienda de las personas jóvenes con dificultades de índole esencialmente económica aumentando la oferta de**

3.1.2.- Movilizar la vivienda vacía, posibilitando que la misma se incorpore en el mercado de alquiler protegido con destino a demandantes inscritos/as en el Servicio Etxebide, con especial atención a jóvenes con dificultades de índole esencialmente económica, y a mujeres jóvenes víctimas de violencia de género y/o en

3.1.3.- Rehabilitar pisos y edificios desocupados, posibilitando que la misma se incorpore en el mercado de alquiler protegido con destino a demandantes inscritos/as en el Servicio Etxebide, con especial atención a jóvenes y a mujeres jóvenes víctimas de violencia de género y/o en situación de riesgo de exclusión

3.1.4.- Ofrecer información, orientación y acompañamiento a las personas jóvenes sobre la oferta de medidas públicas para el acceso a la vivienda

## 2. ardatza: Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa

Helburuak eta ildo estrategikoak:

**ACCIÓN SOCIAL**

- **Avanzar en el logro de la igualdad efectiva de las relaciones entre mujeres y hombres jóvenes tanto en el ámbito personal como en el laboral.**
  - 5.2.1.- Incidir en la corresponsabilidad de los hombres jóvenes.
- **Mejorar la atención social a jóvenes en situación de riesgo o exclusión social.**
  - 5.1.1.- Prevención e intervención social sobre la marginalización de las personas jóvenes, atendiendo a la diversidad y a las diferencias entre mujeres y hombres.
  - 5.1.2.- Articular medidas que permitan adecuar la política de garantía de ingresos a las necesidades de las personas jóvenes.
- **Mejorar la prevención de las conductas violentas.a) Realizar estudios e investigaciones acerca de la problemática de la violencia de género entre las y los jóvenes.b) Crear canales de comunicación efectivos para poder prevenir las conductas violentas entre las y los jóvenes**
  - 5.5.1.- Realizar estudios e investigaciones acerca de la problemática de la violencia de género entre las los jóvenes.
  - 5.5.2.- Crear canales de comunicación efectivos para poder prevenir las conductas violentas entre las y los jóvenes.
- **Procurar la atención integral a las mujeres jóvenes víctimas de la violencia de género.**
  - 5.3.1.- Mejorar la atención e información a las mujeres jóvenes víctimas de la violencia de género.
  - 5.3.2- Buscar fórmulas para cubrir las carencias detectadas en la atención a las mujeres jóvenes que sufren cualquier manifestación de la violencia de género.
  - 5.3.3.- Aumentar la detección precoz de casos de violencia contra las mujeres jóvenes.
- **Sensibilizar a la juventud respecto a la violencia de género como un problema social de primer orden.**
  - 5.4.1- Fomentar la "tolerancia cero" frente a la violencia de género entre las y los jóvenes.
  - 5.4.2.- Eliminar imágenes y contenidos mediáticos que perpetúen la violencia contra las mujeres.
  - 5.4.3.- Aumentar la percepción social entre la población más joven sobre las diferentes manifestaciones de la violencia de género, y en particular, sobre las más sutiles (microviolencias).

**CONSUMO**

- **Incrementar y apoyar la iniciativa de las personas jóvenes a nivel individual y grupal.**
  - 8.1.1.- Desarrollar acciones de sensibilización entre las personas jóvenes que permitan avanzar en hábitos y actitudes de consumo responsable y ambientalmente sostenible.
- **Promover el uso del euskera en las actividades de ocio.**
  - 8.1.1.- Desarrollar acciones de sensibilización entre las personas jóvenes que permitan avanzar en hábitos y actitudes de consumo responsable y ambientalmente sostenible.
- **Promover hábitos y actitudes de consumo racional responsable y sostenible, desde una perspectiva de género.**
  - 8.1.1.- Desarrollar acciones de sensibilización entre las personas jóvenes que permitan avanzar en hábitos y actitudes de consumo responsable y ambientalmente sostenible.
  - 8.1.2.- Trabajar la influencia de la publicidad en el consumo para la adquisición de una visión crítica de la misma.
  - 8.1.3.- Ofrecer educación y formación para el consumo y utilización responsable y segura en diversos ámbitos: alimentación, ocio y nuevas tecnologías.

**CULTURA**

- **Atender la diversidad lingüística y cultural en la producción y consumo cultural.**
  - 6.2.1.- Impulsar espacios de creación cultural que atraigan a jóvenes artistas vascos/as y de otras procedencias.
  - 6.2.2.- Facilitar a las personas jóvenes creadoras la formación y los recursos necesarios para el desarrollo de sus creatividad así como la difusión de sus obras.
  - 6.2.4.- Potenciar el uso de las TIC entre las personas jóvenes creadoras como herramienta de creación y producción.
  - 6.3.1.- Promover el uso del euskera en la oferta de actividades culturales para la juventud.
  - 6.3.3.- Desarrollar las líneas estratégicas propuestas por el Consejo Asesor del Euskera.
  - 6.3.4. - Mostrar la realidad multicultural de la sociedad vasca y fomentar las relaciones interculturales
- **Aumentar el acceso a la cultura por parte de la juventud, garantizando un igual acceso a mujeres y hombres jóvenes.**
  - 6.1.1.- Crear hábitos de consumo cultural apoyando el acceso de la juventud a las diferentes disciplinas artísticas y culturales, procurando un igual acceso a mujeres y hombres jÓvenes.
  - 6.1.2.- Hacer más accesible la oferta cultural para la juventud.

**MOVILIDAD SOSTENIBLE**

- **Impulsar, mediante la sensibilización y la concienciación, el uso de formas de movilidad alternativas al medio de transporte privado motorizado**
  - 9.2.1.- Realizar labores de concienciación/sensibilización sobre el uso de medios de transporte alternativos al privado motorizado, haciendo especial hincapié en los colectivos que menor uso hacen de él, en el uso del transporte público nocturno en los fines de semana, en el uso del transporte público a las zonas de ocio y en el uso de la bicicleta.
- **Mejorar infraestructuras, equipamientos y otros aspectos asociados a éstos, que guarden relación con medios de transporte alternativos al privado motorizado.**
  - 9.1.1.- Potenciar una red de transporte público que se adecue a las necesidades de movilidad de las personas jóvenes haciendo especial hincapié en los territorios históricos con menor uso del mismo, en el uso del transporte público durante las noches de los fines de semana y en el uso del transporte público a las zonas de ocio.
  - 9.1.2.- Crear y/o adecuar las infraestructuras para posibilitar y favorecer la movilidad peatonal y el uso de la bicicleta.
- **Promover hábitos y actitudes de consumo racional responsable y sostenible, desde una perspectiva de género.**
  - 9.1.1.- Potenciar una red de transporte público que se adecue a las necesidades de movilidad de las personas jóvenes haciendo especial hincapié en los territorios históricos con menor uso del mismo, en el uso del transporte público durante las noches de los fines de semana y en el uso del transporte público a las zonas de ocio.

## 2. ardatza: Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa (jarraipena)

Helburuak eta ildo estrategikoak:

**OCIO**

**Ampliar y mejorar la oferta de actividades, servicios y equipamientos para las personas jóvenes en su tiempo libre.**

7.2.1.- Ayudas a las entidades locales para la organización de actividades de ocio alternativo, así como para la mejora de los equipamientos de uso juvenil.

7.2.2.- Formación de mediadores en el ámbito de la animación sociocultural.

7.2.3.- Desarrollar programas público de ocio audiovisual, informático y de nuevas tecnologías

7.2.4.- Optimización del uso de los equipamientos ya existentes e identificación de nuevas necesidades en equipamientos culturales y deportivos, atendiendo a las diferencias de género.

**Fomentar la práctica deportiva en el colectivo juvenil en todos sus niveles, con especial atención al deporte base, como instrumento de socialización y forma de ocio saludable.**

7.1.1.- Fomentar la polideportividad a edades tempranas, desarrollando una oferta multidisciplinar.

7.1.2.- Fomentar la práctica deportiva juvenil como aprovechamiento del ocio y el tiempo libre, como alternativa a prácticas menos saludables, incidiendo sobre todo en las mujeres jóvenes.

7.1.3.- Favorecer la implantación de valores en la sociedad a través del deporte, habilitando procesos educativos conscientes e intencionales entre las entidades deportivas, clubes, profesionales del deporte y profesionales de los medios de comunicación.

**Incrementar y apoyar la iniciativa de las personas jóvenes a nivel individual y grupal.**

7.2.4.- Optimización del uso de los equipamientos ya existentes e identificación de nuevas necesidades en equipamientos culturales y deportivos, atendiendo a las diferencias de género.

7.3.1.- Favorecer la implantación de valores en la sociedad a través del deporte, habilitando procesos educativos conscientes e intencionales entre las entidades deportivas, clubes, profesionlaes del deporte y profesionales de los medios de comunicación

7.3.1.- Llevar a cabo un análisis de la situación del ocio en los municipios vascos y definir nuevas perspectivas de ocio.

7.3.2.- Fomento del asociacionismo.

7.3.3.- Reconocer, reforzar y establecer espacios de diálogo y gestión entre las personas jóvenes, colectivos de jóvenes y Administración.

7.3.5.- Fomentar y reconocer nuevas formas de participación.

7.3.6.- Impulsar la participación de las personas jóvenes a nivel local.

7.3.7.- Desarrollar programas de voluntariado juvenil en diferentes ámbitos: emergencias, inmigración, ámbito social, educativo, ambiental..., fomentando la participación de los hombres en estos programas de voluntariado.

7.4.1.- Desarrollar las líneas estratégicas propuestas por el Consejo Asesor del Euskera.

**Promover el uso del euskera en las actividades de ocio.**

7.4.1.- Desarrollar las líneas estratégicas propuestas por el Consejo Asesor del Euskera.

**SALUD**

**Aumentar la adquisición de conocimientos, hábitos y conductas saludables entre las personas jóvenes.**

4.2.1.- Dar a conocer y sensibilizar a las personas jóvenes sobre hábitos y conductas saludables con lenguajes, canales y agentes apropiados.

4.2.2.- Potenciar la educación para la salud en los diferentes niveles educativos.

4.2.3.- Fomentar la coordinación de las intervenciones para la salud de las personas jóvenes.

4.2.4.- Ofrecer formación y recursos a los agente vinculados al ocio, al tiempo libre educativo, a la cultura y la actividad física para la prevención de conductas d riesgo.

**Disminuir la siniestralidad vial derivada de la movilidad de las personas jóvenes.**

4.4.2.- Sensibilizar sobre la necesidad de una conducción responsable para reducir la siniestralidad vial y el impacto ambiental, atendiendo a las diferencias de género.

**Disminuir las conductas de riesgo asociados a la salud en todos los ámbitos que afectan a las personas jóvenes.**

4.3.2.- Desarrollar una actividad preventiva dirigida a combatir los principales problemas de salud: accidentes de tráfico, comportamientos adictivos, sida, enfermedades de transmisión sexual, embarazos no deseados, trastornos alimentarios, inactividad física y elevada dedicación a la conducta sedentaria, trastornos mentales y seguridad laboral.

4.3.3.- Prevenir desde el ámbito educativo las principales conductas de riesgo que inciden de manera negativa en la salud de las personas.

4.3.4.- Reforzar las medidas orientadas a la reducción del consumo de alcohol y de nuevas sustancias.

4.3.5.- Generar hábitos de control y prevención sobre enfermedades de transmisión sexual.

4.3.6.- Promover medidas facilitadotas de un estilo de vida activo, la utilización de medios de transporte activos y el acceso a oportunidades inclusivas para la práctica de ejercicio y deporte como via de socialización de la población joven.

4.3.7.- Detectar la aparición de nuevos fenómenos, patologias o comportamientos que impliquen un riesgo para la salud de las personas jóvenes para tratar de adaptar los servicios o desarrollar las acciones que correspondan

4.3.8.- Ofrecer formación y recursos a los agentes vinculados al ocio, al tiempo libre educativo, a la cultura y a la actividad física, para el fomento de conductas saludables.

4.3.9.- Promover y/o colaborar con las intervenciones preventivas dirigidas a grupos o colectivos de mayor riesgo y vulnerabilidad debido a situaciones de pobreza, fracaso escolar y/o problemas familiares, en sinergia con el VI Plan de Adicciones

**Potenciar el conocimiento, la valoración y el buen uso de los programas y servicios de salud entre las personas jóvenes.**

4.1.1.- Dar a conocer los programas de salud dirigidos a jóvenes y utilizar los lenguajes, espacios y canales juveniles para aumentar su conocimiento y uso al objeto de evitar las barreras objetivas y subjetivas que pueden frenar su conocimiento y uso.

Plana aurkezteko eta haren segimendua egiteko ikuspegi formaletik, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak Gobernu Kontseiluari helarazi zizkion, ondoren zehaztutako ordenan, honako espediente hauek:

2014:
- 2014/10/28: Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren (2014-2016) onarpena. Dokumentu horrek esparru-planaren esku-hartze lerroak eta irizpideak garatzen zituen, eta txosten honetan ebaluatuko dugu.
- 2014/12/02: Ekintza positiboko konpromisoak onartzea gazteriaren alorrean 2014ko ekitaldirako. Dokumentu horretan, Eusko Jaurlaritzako sailek ekitaldian garatu beharreko ekintzen aurreikuspena jasotzen zen, baita esku-hartze bakoitzaren aurrekontua eta helburuak ere.

2015:
- 2015/04/14: Ekintza positiboko konpromisoak onartzea gazteriaren alorrean 2015eko ekitaldirako. Dokumentu horretan, Eusko Jaurlaritzako sailek 2015ean garatu beharreko ekintzen aurreikuspena jasotzen zen, baita esku-hartze bakoitzaren aurrekontua eta helburuak ere.
- 2015/07/21: Eusko Jaurlaritzaren 2014ko ekitaldiko III. Gazte Planaren segimendu-txostena aurkeztu zen. Dokumentu horretan, Eusko Jaularitzak 2014rako programatutako gazteriaren alorreko ekintza positiboko konpromisoen urteko ebaluazioa jasotzen da, baita urte hartan bertan garatutako ekintzak ere, gazteriaren alorreko politika integrala eta transbertsala sustatzeko eta garatzeko xedez.

2016:
- 2016/05/31: 2016rako gazteriaren alorreko ekintza positiboko konpromisoen txostena onartzea, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planarekin (2014-2016) loturik. Dokumentu horretan, Eusko Jaurlaritzako sailek 2016ko ekitaldian garatu beharreko ekintzen aurreikuspena jasotzen da, baita esku-hartze bakoitzaren aurrekontua eta helburuak ere.
- 2016/06/07: Eusko Jaurlaritzaren 2015eko ekitaldiko III. Gazte Planaren segimendu-txostena aurkeztu zen. Dokumentu horretan, Eusko Jaurlaritzaren sailek programatutako gazteriaren alorreko ekintza positiboko konpromisoen 2015eko ebaluazioa jasotzen da, baita gazteriaren alorreko politika integrala eta transbertsala sustatzeko eta garatzeko urte hartako ekintzak ere.

Aurreko segimendu-txostenak egiteko beharrezko informazioa jasotzeko eta bideratzeko jarraitutako prozesuaren ikuspegitik, aurreko planetarako ezarritako sistematika bera jarraitu da oraingoan ere. Hala, planeko jardueraren batean erantzukizunak dituzten Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza bakoitzak fitxa bat helarazi dio Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzari, egin dituzten ekintzen emaitzei buruzko informazioa urtero-urtero jakinarazita. Fitxa horiek guztiak datu-base batean erregistratu dituzte informazioa biltegiratzeko xedez, eta txosten hau prestatzeko baliatu dira ondoren.

Dokumentu honetan jasotako ebaluazioa Gazteria Zuzendaritzak eskatuta prestatu da, III. Gazte Planaren indarraldia amaitu ostean. Dokumentu hori osatzeko, III. Gazte Planaren (2014-2016) inpaktuaren ebaluazioa baliatu daiteke, Gazteriaren Arloko Euskal Estrategia 2020ko erdibideko ebaluazioari dagokiona.

## Ebaluazioaren helburuak

Egindako analisiaren helburu orokorra III. Gazte Planak aurreikusitako urteko 200 ekintzak garatu ostean eskuratutako emaitzak balioestea da, planaren indarraldia amaitu ondoren; ebaluazio horretan, aurreikusitako helburuak egiaz lortu diren balioesteaz gain, helburu horiei zer-nolako erantzuna eman zaien ere aztertuko da.

Nolanahi ere den, nabarmendu behar da III. Gazte Planaren kasuan bezalaxe, ebaluazio hau Eusko Jaurlaritzari dagozkion jardueren ebaluazioa dela bakar-bakarrik, eta planean inplikatutako zuzendaritzek sustatu eta gidatutakoak direla.

Emaitzen ebaluazio hau egiteko garaian, honako helburu zehatz hauek jarraitu dira:

- III. Gazte Planean jasotako ekintzen aplikaziotik deribatutako emaitzen berri izatea;
- emaitza horiek balioestea, irizpide jakin batzuen arabera;

- definitutako ekintza multzoa markatutako helburuekin zenbateraino egokitu den zehaztea;
- planaren ekintzekin eurekin lotutako arazoak hautematea, baita datuak biltzeko prozesuarekin lotutakoak ere;
- gomendioak ematea, etorkizuneko planetan aplikatu ahal izateko.

## Erabilitako metodologia

Azterlan hau sortzeko, kanpoko ebaluazio-metodologia bat aplikatu da, *ex post* egina, batutzailea eta emaitzak kontuan hartzen dituena, aurreko planetan aplikatutako metodologiei jarraikiz. Honela definitzen da atributu horietako bakoitza:

- kanpoko ebaluazioa, kanpoko teknikari-talde independente batek egina baita, planaren edukia gauzatzeko erakundeetatik edo agente arduradunetatik kanpo, alegia;
- *ex post* ebaluazioa, planaren indarraldia amaitu ostean egina baita, atzerabegirako ebaluazio moduan;
- ebaluazio batutzailea, garatutako ekintzen emaitzak laburbiltzen eta bateratzen baititu, balioespen orokor bat eskaintzeko xedearekin;
- emaitzen ebaluazioa, planetik eratorritako produktuen analisia baitu ardatz, baita haren ekintzen eraginak ere.

Erabilitako metodologiak informazioaren analisia izan du oinarrian (datu kuantitatiboak eta informazio kualitatiboa), baita hainbat adierazle ere, honako informazio-iturri hauetatik eskuratuak:

- Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Zuzendaritzak elikatutako eta mantendutako datu-basea;
- Eusko Jaurlaritzako inplikatutako zuzendaritza bakoitzeko arduradun teknikoekin izandako elkarrizketak[1], egindako jardueren gainean zer balioespen orokor duten jakiteko, ekintzok garatzeko eta koordinatzeko baliatutako mekanismoen inguruan zer iritzi duten ezagutzeko eta etorkizuneko planei begira hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzeko;
- III. Gazte Planaren esparruan egindako dokumentu teknikoak, hala nola aurretik aipatu ditugunak (segimendu-txostenak), edota Gazteriaren Euskal Behatokiak prestatutako bestelako dokumentu analitikoagoak, Gazteaukera atarian argitaratuak;
- EUSTATek edota Eusko Jaurlaritzaren bestelako behatokiren batek egindako datu estatistikoak eta analisiak, edota sailek eurek prestatutako txostenak.

Analisiari berari dagokionez, nahiz eta dagokion atalean luze-zabal jorratuko dugun, nabarmendu behar dugu *Gazte-planak programatzeko eta ebaluatzeko eskuliburuko* irizpideen arabera egin dela, eta eskura den informazioak horretarako aukera eman duen kasu guztietan aplikatu dela. Horrek zera esan nahi du, eskuliburuan modu teorikoan jasota dauden adierazleak ez direla beti zorrotz-zorrotz bete, nagusiki eskura dugun informazioak ez baitu horretarako aukerarik eman.

Hala, honako hauek izan dira arloetako bakoitzean ekintzak ebaluatzeko modu homogeneoan baliatutako balioespenen-irizpideak:

- aurrekontu-exekuzioa, eskura diren bitartekoak baliatzeko bitarteko gisa;
- efikazia, aurreikusitako helburuen eta lortutako emaitzen arteko harreman gisa;

---

[1] Ikus egindako elkarrizketei buruzko xehetasun gehiago, txosten honen II. eranskinean.

- estaldura, ekintza bakoitzaren onuradun potentzialen kolektibo globalarekin lotutako pertsona edo entitate onuradun errealen arteko proportzio gisa, edota xede-kolektiboarekin lotuta, ekintzak hala definituta baleude.

## Txostenaren egitura

Azterlan honek lau kapitulu eta eranskinak ditu.

- Lehendabiziko kapituluak planaren testuingurua eta aurrekariak jorratzen ditu eta, helburuak ez ezik, aplikatutako metodologia ere zehazten da.
- Bigarren kapituluan lortutako emaitza nagusien ikuspegi orokorra garatzen da, eta haietatik ateratako ondorio nagusiak ere bai, ebaluazio orokorraren laburpen exekutibo modura.
- Hirugarren kapituluan, arlo bakoitzerako garatutako analisia luze-zabal lantzen da, kapituluan bertan deskribatzen den azterketarako egitura homogeneo bat oinarri hartuta.
- Laugarren eta azken kapituluan, egindako analisitik abiatuta identifikatutako gomendioak jasotzen dira.
- Dokumentuak, halaber, hainbat eranskin ere jasotzen ditu. Hala, I. eranskinak urtero-urtero garatutako ekintza bakoitzari buruzko informazio garrantzitsuena biltzen du, guztietarako fitxa-formatu estandarizatua baliatuta. II. eranskinean, berriz, landa-lanaren (elkarrizketen) xehetasunak jaso dira; esan bezala, elkarrizketa horiek III. Gazte Planean ardura izan duten Jaurlaritzaren zuzendaritzekin egin dira.

# 02

# Emaitza nagusiak

# 2. Emaitza nagusiak

Ikuspuntu kuantitatibotik aztertuta, III. Gazte Planak 575 milioi euro inbertitu ditu indarrean egon den hiru urteetan. Horien baitan, Gazteria Zuzendaritzaren eta Jaurlaritzako beste zuzendaritza batzuen baliabideak sartzen dira, Eusko Jaurlaritzaren estrategiek eta jarduketek izaera integratzailea baitute arlo horretan. Bestalde, gazterian argi eta garbi ardaztutako gastuaren ehunekoari dagokionez, inbertitutako 575 milioi euroetatik, % 71koa da gastu hori; hau da, 411 milioi euro.




Garatu diren jardueren bolumenari dagokionez, 2014 eta 2016 artean, guztira, 686 ekintza abiarazi dira; hau da, urtean 200, batez beste, eta horietatik 430 jarduera (% 62) gazte-kolektibora bideratu dira argi eta garbi.

*Ardatz estrategikoak*

Plana osatzen duten ardatz estrategikoei dagokienez, horietako bakoitzera bideratu den aurrekontuaren eta jarduera kopuruaren banaketak oreka argia erakusten du. 1. ardatzak (emantzipazioa eta autonomia), 12 helburu estrategikorekin, aurrekontuaren % 51 jaso du, eta abiarazitako jardueren % 48 hartu ditu. Eta, bestalde, 2. ardatzak (bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa), 19 helburu estrategikorekin, aurrekontuaren % 49 jaso du eta jarduketen % 52 hartu ditu barnean.




*Jarduteko arloak*

Plana osatzen duten arloei dagokienez, honako hauek bereizi behar dira: alde batetik, hezkuntza, enplegu eta etxebizitzaren arloak (emantzipazioa eta autonomia ardatza osatzen dutenak) eta bestetik, osasuna, gizarte-ekintza, kultura, aisialdia, kontsumoa eta mugikortasun jasangarriaren arloak (2. ardatzaren barruan: bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa). Aurrekontuaren ikuspegitik, gizarte-ekintzaren eta hezkuntzaren arloek bideratu dute aurrekontu handiena gazteriarentzat, xede horretarako aurrekontuaren % 79 hartu baitute, eta III. Gazte Planean gauzatutako aurrekontu osoaren % 57.




*Helburu estrategiko nagusiak*

III. Gazte Planean gehien nabarmentzen diren helburu estrategikoen ikuspegitik, horietako lau gailentzen dira erabilitako aurrekontuari dagokionez.

- Gizarte-ekintzaren arloan, 247 milioi euro bideratu dira guztira, arrisku edo gizarte-bazterketa egoeran dauden gazteen gizarte-arreta hobetzeko; hau da, planaren aurrekontu osoaren % 43.
- Hezkuntzaren arloan, gizarte- eta genero-desberdintasunen eragina murrizteearen alde egin da apustu, baita hezkuntza-sisteman horien erreprodukzioa murrizteko ere. Hala, 124 milioi euro erabili dira xede hori duten ekintzetan.
- Enpleguaren arloan, helburu hauek nabarmentzen dira: gazteen laneratzea hobetzea (66 milioi euroko apustu ekonomikoa) eta prestakuntzaren eta lan-merkatuaren artean lotura handiagoa lortzea (29 milioi euro).
- Azkenik, etxebizitzaren arloan 19 milioi euro erabili dira gazteek etxebizitzak eskuratzeko dituzten aukerak hobetzeko asmoz, zailtasun ekonomikoak ageri direnean. Horretarako, etxebizitzen eskaintza handitu da eta lehentasun berezia eman zaio alokairuari.

## Emaitzak eta ondorioak

Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren emaitzen ebaluazioak helburu hau du: jakitea, planaren indarraldia amaitu ondoren, gazte-kolektiboarengan zer eragin izan duen eta zeintzuk diren oraindik ere landu beharreko lan-esparruak. Hala ere, aipatu beharra dago, funtsean, planaren garapen-urteetan jasotako informazioa hartu dela balorazioa egiteko oinarritzat, eta kasu batzuetan ez dela nahikoa informazio eduki balorazio osoagoa egin ahal izateko (ez zegoelako emaitzaren inguruko informazioa ematen duen adierazlerik edo ebaluaziorako beharrezkoa den bestelako informaziorik).

Jarraian, informazio hori laburbilduko da, III. Gazte Plana osatzen duten bederatzi arloetako bakoitzaren kasuan.

*ENPLEGUA*

Enpleguaren arlotik, gazteen laneratzea hobetzeko helburura bideratu zen baliabideen gehiengoa, enplegua sortuz eta mantenduz, eta horretarako, 15.300 gazteri baino gehiagori eskaini zaizkie enplegurako prestakuntza eta lanetik kanpoko praktikak, jasotako prestakuntzarekin lotura duten enpresetan, kolektibo horren laneratze-aukerak areagotzeko.

Bestalde, eta gazteen artean espiritu ekintzailea sustatzeko, nabarmentzekoa da 37.000 gazterengana heltzea lortu dela, espiritu ekintzaile hori hezkuntzaren arloko lehen etapetatik sustatzeko hainbat ekimenen bidez.

Gaur egungo egoeraren eraginpean (zehaztasun gehiagorako, jo 2. kapitulura) ondorioztatu denez, gazteen laneratzea errazteko, lanean jarraitu behar da hezkuntza-sistema eta lan-merkatua elkarrengana hurbiltzeko eta ekintzailetza sustatzeko.

*ETXEBIZITZA*

III. Gazte Planari dagokionez, azpimarratzekoa da urtean, batez beste, 35 urte baino gutxiago dituzten 1.180 gaztek jaso dituztela etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko programen onurak. Hala ere, euskal gazteak nahi baino sei urte geroago emantzipatzen dira, eta etxebizitzen kostu gero eta altuagoak gazteek independizatzeko duten itxaropena zailtzen du.

Etxebizitzaren arloan proposatutako gomendioen artean, bizitoki-eredu berriak garatzeko ahaleginei eusteko beharra nabarmentzen da.

*HEZKUNTZA*

Hezkuntzaren arlotik, eta aurrekontuari dagokionez, hezkuntza-sisteman gizarte-desberdintasunak murriztearen eta prebenitzearen aldeko apustua egin da. Hala, III. Gazte Planean, unibertsitateko goi-mailako titulua duten 1.254 gazteri eta doktoretza duten 215 gazteri lagundu zaie, behar bereziak dituzten 10.199 ikasle salbuetsi dira unibertsitateko prezio publikoetatik eta irakasleentzako prestakuntza-programak eman zaizkie, kulturartekotasunari buruz, 10.181 onuraduni (irakasleak, ikasleak eta ikastetxeak tarteko).

III. Gazte Planaren ebaluaziotik ateratako gomendioetan honako hauek sartzen dira: hezkuntza-sisteman gizarte-desberdintasunek dituzten eraginak murriztera bideratutako ekimenei eustea, euskara hezkuntza-arloan zein aisialdian sustatzea, balioen inguruan etengabeko prestakuntza jasotzea eta teknologiari eta ikerketari lotutako bokazioak bultzatzea.

*OSASUNA*

Osasunaren arloan, horretarako aurrekontuaren % 68rekin, osasunari lotutako arrisku-jokabideak murrizteko apustua egin da, gazteei eragiten dieten esparru guztietan. Jokabide horien artean honako hauek bereiz daitezke: alkoholaren, tabakoaren eta drogen kontsumoa; sexu-transmisiozko infekzioak eta planifikatu gabeko haurdunaldiak; eta jarduera fisikoaren sustapena. Horretarako, 29.500 ikaslerengana heltzea lortu da tabakismoaren prebentziorako programen bidez; 3.780 ikaslerengana, adingabeen artean alkoholaren kontsumoa murrizteko programen bidez; eta 7.000 ikasle baino gehiagorengana, sexu-transmisiozko infekzioak eta planifikatu gabeko haurdunaldiak prebenitzeko garatu eta banatu diren giden bitartez.

Horiek horrela, komenigarritzat jo da bizitza osasuntsurako ohiturak eta jokabideak sustatzeko ildoa lantzen jarraitzea, eta gazteen bizitza afektibo eta emozionalaren testuinguruan lan egiteko neurriak sustatzea.

*GIZARTE-EKINTZA*

Gizarte-ekintzaren arloko lanari dagokionez, bereziki nabarmena da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ematen dela. Zentzu horretan, 2016an, laguntza hori jasotzen duten gazteen % 2 zegoen benetako pobrezia- eta bazterketa-egoeran. Bestalde, genero-berdintasunari dagokionez, areagotu egin da bikotean gerta daitezkeen indarkeria moten larritasunaren inguruko kontzientzia, eta hazten ari dira erantzunkidetasuna eta berdintasunezko banaketa, oso motel bada ere.

Hala, ondorioztatu da mantendu eta indartu egin behar direla baztertuak izateko arriskuan dauden gazteei arreta emateko programak, eta aurrera egin behar dela emakume eta gizon gazteen arteko berdintasuna lortzeko, lanaren nahiz familiaren esparruan.

*KONTSUMOA*

Kontsumoaren arloan, Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuak hainbat tailer eta prestakuntza-jarduera egin ditu, eta satisfazio-maila handia lortu dute (10 puntutik 8,3). Haien

bidez, gazteen artean kontsumo jasangarria sustatu da, % 55,8k soilik kontsumitzen baitu modu jasangarrian.

Beharrezkotzat jotzen da hezkuntza-programa horiek kontsumo arrazionalaren arloan mantentzea eta gazteen arteko kontzientzia sozialaren garapenean ardaztutako politikak eta jarduerak sustatzea.

*KULTURA*

Okupazio nagusia zein den, irakurtzeko ohiturak behera egiten du; hori dela eta, kulturaren arloko jarduketa-eremu nagusien artean, nabarmentzekoa da udalerriei 150 diru-laguntza baino gehiago eman zaizkiela, haurren eta gazteen artean irakurketa eta liburutegi publikoen erabilera sustatzeko ekintzak egin ditzaten. Era berean, teknologia digitalak hedatzeko lan egin da, kulturaren eskuragarritasuna eta kontsumoa sustatzeko eta gazteek, eskola-esparrutik, kultur edukien garapenean parte har dezaten.

Etorkizunari begira, hainbat gomendio egiten dira gazteek kultura eskuratzeko aukera handiagoak izan ditzaten, eta kulturaren sorkuntza, ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko, arreta berezia jarriz euskararen bultzadari.

*MUGIKORTASUN JASANGARRIA*

Mugikortasun jasangarriaren arloak mugikortasun alternatiboko modu berriak bultzatzen lagundu du, Moveuskadi atariaren bitartez. Hartara, 6.800 bidaia partekatu dira 2014 eta 2016 artean; hau da, batez beste lau lagun bidaia bakoitzeko. Hala, beste faktore batzuen artean, garraio jasangarrirako bitartekoen, garraio publikoaren eta bizikleten eguneroko erabilera igo da.

Etorkizunari begira, gazteen artean garraiobide jasangarrien erabilera sustatuz gero, jarduera fisiko osasungarria azpimarratzeko eta indartzeko aukera izango da.

*AISIA*

Aisialdiaren arloak 8.700 ikasle baino gehiago mugiarazi ditu, gazteen artean kirola sustatzeko, Eskolarteko Kirol Jokoak antolatuz eta Unibertsitateko Kirol Jokoak antolatzeko lankidetzaren bitartez. Bestalde, aisialdirako aukera tradizionala teknologia berriekin lotutako jarduera berriekin osatu da.

Modu horretan, III. Gazte Planaren emaitzen ebaluaziotik ateratako gomendioen arabera, gazteen artean kirol-jarduera sustatu behar da, eta gazteentzako jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza zabaldu behar da, euskararen erabilerari arreta berezia jarrita.

# 03

# III. Gazte Planaren emaitzen balioespena

# 3. III. Gazte Planaren emaitzen balioespena

Kapitulu honetan egindako analisiaren helburu orokorra III. Gazte Planak aurreikusitako urteko 220 ekintzak garatu ostean eskuratutako emaitzak balioestea da; ebaluazio horretan, aurreikusitako helburuak egiaz lortu diren ebaluatzeaz gain, helburu horiei zer-nolako erantzuna eman zaien ere balioetsiko da.

Planaren bederatzi arloetarako modu homogeneoan egingo da balioespena. Hain zuzen ere, honako egitura hau baliatuko dugu.

**Adierazleen aukeraketa-laburpena**. Arlo bakoitzaren ebaluazioaren hasieran, honako adierazle hauek aurkeztuko dira, modu bizkorrean tipifikatzeko edo ezaugarritzeko haietako bakoitzean bildutako jardueren multzoa:

- **Guztira egikaritutako gastuaren banaketa,** gazteen kolektibora zehazki egikaritutako ekintzetan izandako gastua adierazita.
- **Ekintzen banaketa, gazteen kolektibora izandako orientazioaren arabera**. Plana oro har gazteen kolektibora bideratuta dago; hori hala izanagatik ere, hainbat ekimen detektatu ditugu, gazteen babespean bilduta eta 30 urtez azpiko gazteei bereziki bideratuta ez zeudenak (planaren estandarra, Euskadiko gazteriaren arloko estrategia markoaren arabera). Hori dela eta, analisi horietatik erator litezkeen emaitzak eta ondorioak ez itxuragabetzeko, ekimenak katalogatu dira kolektibo horrekiko duten orientazioaren arabera. Arlo bakoitzak izandako banaketa adierazle honetan dago bilduta.
- **Ekintzen banaketa, lortutako garapen-mailaren arabera.** Planaren ekintzen aurrerapen-mailaren ikuspegia lortzeko, guztiak garapen-maila handiagoaren edo txikiagoaren arabera katalogatu dira (ekintza bakoitzerako egoera posibleak honela tipifikatu dira: amaituta, abian, ezeztatuta edota atzeratuta).
- **Ekintzen antolaketa, barne-kolaborazioaren eta -koordinazioaren mailaren arabera (transbertsalitatea).** Ekintza bakoitza garatzeko beharrezkoa izan den kolaborazio- eta koordinazio-maila ikusgarri egiteko xedearekin, ekintzak sailkatzeko zera hartu da kontuan, zer-nolako transbertsalitate-maila izan duten Eusko Jaurlaritzaren mendeko beste sail, arlo edo sozietate publiko batzuekin. Kasu horretan, tipifikazioak hiru maila izango ditu: handia, ertaina, apala.
- **Ekintzen banaketa, kanpoko eragileekin izandako lankidetza-mailaren arabera.** Ekintza jakin batzuk betetzeko bezalaxe, baliteke ezinbestekoa izatea Eusko Jaurlaritzaren beste alor batzuekin lankidetzan edo koordinatuta jardun behar izana; baliteke, halaber, kanpoko hirugarrenek ere nahitaez parte hartu beharra, ekintzak mamitu ahal izateko. Tipifikazioa aurreko kasuan bezalakoxea izango da: handia, ertaina eta apala.

**Ekintzen deskribapen orokorra**. Ondoren, planeko ekintzen deskribapen xehatua egingo dugu, ez zehaztasunari dagokionez, baizik eta ondoren zehaztutako elementu hauei dagokienez.

- **Etxebizitzaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia.** Arloko ekintzen testuingurua gazteen kolektiboarekin lotuta, filosofia orokorra, testuinguruaren adierazleak eta planaren indarraldian izandako gertakari esanguratsuenei erreferentziak, hala dagokionean, identifikatuta.
- **Planean jasotako arlo, erronka, ardatz, helburu eta lerro bakoitzari aplikagarri zaion esparru estrategikoa.** Ebaluatu beharreko jarduerak biltzen dituen egitura estrategikoaren laburpena.
- **Aurrekontu-ikuspegi orokorra.** Ekintzekin lotutako magnitude ekonomiko nagusien laburpena (dela aurrekontuetan jasotakoak, dela egiaz gauzatuak).
- **Ikuspegi hirukoitzaren inguruan xehatutako karakterizazioa.** Ekintzen analisia gazteei bideratuta egotearen ikuspegitik, transbertsalitate-maila handiagoa edo txikiagoa ote duten eta kanpo-eragileekin zer-nola kolaboratzen duten; guztia ere arlo bakoitzean balioetsitako ekintzak egokiro ezaugarritzeko.

**Emaitzak helburu estrategikoen arabera ebaluatzea**. Atal horretan zehar, arlo bakoitzeko helburuak bete ote diren balioesteko analisi xehatua egingo da; hala, egiaztatu ahal izango da helburu horiek lortu ote diren garatutako ekintzen bitartez. Hori dela medio, zehaztutako helburu bakoitzerako analisia egingo da, ikuspegi hirukoitz bat kontuan izanda.

- **Aurrekontu-dedikazioaren balioespena.** Plangintzarekin loturik, baliatutako bitarteko ekonomikoen erabilerari buruzko analisi xehatua egingo da; hartara, desbideratzeak identifikatuko ditugu eta, hala badagokio, desbideratze horien arrazoiak zehaztuko.
- **Estalduraren balioespena.** Eskura daukagun informazioaren arabera, ekintzen onurak jaso dituzten kolektiboak aztertuko dira, eta kolektibo orokor potentzialki onuradunarekin testuinguruan ipiniko dira. Informazioa tankera kualitatiboko beste datu batzuekin osatuko da, guztia ere onuradunaren profilaren eta haren ezaugarrien erradiografia hobea eskuratzen laguntzeko.
- **Efikaziaren balioespena.** Hasiera batean ezarritako helburuen norainokoa balioestea da, baita lortutako emaitzak ere.

Hurrengo orrietan zehar, deskribatutako egituraren arabera, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak (2014-2016) lortutako emaitzen balioespenaren analisia egingo da, haren egiturak biltzen dituen bederatzi arloetako bakoitzean: hezkuntza, enplegua, etxebizitza, osasuna, gizarte-ekintza, kultura, aisia, kontsumoa eta mugikortasun jasangarria.

Hala ere, nabarmendu beharra dago, funtsean, planaren garapen-urteetan jasotako informazioa hartu dela balorazioa egiteko oinarritzat, eta kasu batzuetan ez dela nahikoa informazio eduki balorazio osoagoa egin ahal izateko (ez zegoelako emaitzaren inguruko informazioa ematen duen adierazlerik edo ebaluaziorako beharrezkoa den bestelako informaziorik). Nolanahi ere den, atalean adieraziko da aldian-aldian zer analisi-bloketarako gertatzen den egoera hori.

Hala ere, analisia ahal izan den kasu guztietan osatu da bigarren mailako iturrietatik jasotako informazioarekin (bestelako planak, estatistikak edota txostenak), eskuarki, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean (2014-2016) bildutako ekintzaren bat betetzeko inplikatutako sailetatik jasoak.

# 1. ARDATZA EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

**1. arloa. Hezkuntza**
**2. arloa. Enplegua**
**3. arloa. Etxebizitza**

## 1. arloa. Hezkuntza




### Ekintzen deskribapen orokorra

Hezkuntzaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia

Hezkuntza-politikek toki garrantzitsua dute gazte-politiketan; izan ere, inolako zalantzarik gabe eragiten dute gazteen bizitza-ibilbidea eta -proiektua osatzen duten alderdi esanguratsuetan. Hartara, egindako ikasketak eta eskuratutako emaitza akademikoak alderdi erabakigarriak dira, inolako ezbairik gabe, pertsona batek lan-mundura jo behar duenean. Beste horrenbeste gertatzen da, baldin eta hezkuntzari erreparatzen badiogu nortasuna eta garapen pertsonala osatzeko behar ditugun ezagutza, trebetasun eta jarrera gisa.

Azken urteetan gazteek euskal hezkuntza-sistemari buruz daukaten ikuspegia hobetu egin da oro har; hala, Gazteen Euskal Behatokiak emandako informazioaren arabera, honako pertzepzio hauek jasotzen dira.

- • Bost gaztetatik batek pentsatzen du lanbide-heziketak prestakuntza egokia eskaintzen duela lan-munduan sartzeko, nahiz eta gazteon herenek aukeratzen duten lanbide-heziketa unibertsitate-hezkuntzaren aldean.
- EAEko gazteen eskolatze-tasak ez du aldaketa esanguratsurik izan urteen joanarekin, eta nabarmentzekoa da emakumeek eskolatze-tasa handiagoa dutela adin guztietan.
- Hala, 2014ko datuak hartzen baditugu, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa amaitu duten 20 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa % 85,9 da; hala, lortu du Euskadik Europar Batasunak ezarritako helburua.
- Eskola-uzte goiztiarraren indizea –hau da, ikasketak utzi eta oinarrizko bigarren hezkuntza bakarrik eskuratu duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa, edota amaitu ez dutenena– % 7,5 da. Portzentaje hori jaitsi egin da 2006tik, orduan % 12 baitzen.
- Emakumeen eta gizonen arteko alde orokorra bereziki esanguratsua da ikasketa-mailei erreparatzen baldin badiegu; hala, ikusiko dugu lanbide-ikasketen kasuan balantzak gizonezkoen aldera jotzen duela, eta goi-mailako ikasketen kasuan, berriz, emakumeen alde.

Alor honetako egoeraren deskribapen labur honen ostean, Eusko Jaurlaritzak hainbat beharrizan identifikatu ditu, gazteen hezkuntzaren auzia jorratzen hasteko lanari ekiteko. Hartara, lan-esparru oinarrizkoetako bat trebakuntza-maila hobetzeko lan orokorra dela nabarmenduko genuke, eskola-uztearen tasa murriztuta eta, hala, Europar Batasunak ezarritako helburuak lortuta. Horrez gain, eta aurrekoari gehituta, hainbat hezkuntza-aldagaik euskal gaztengan duten eragina murrizteko ere jarduten da, hala nola generoa, bizilekuaren lurraldea edota egoera sozioekonomikoa.

Hezkuntzaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak

1. ardatzaren barruan –Emantzipazioa eta autonomia–, III. Gazte Planak honako bost erronka hauek biltzen ditu hezkuntzaren alorreko enuntziatu estrategikoan.

- Asetzea gizarte-desberdintasunen ondorioz suertatutako beharrak. Behar horien artean izango dira, era berean, ikasgelatan lehen baino ikasle atzerritar gehiago egotearen ondorioz sortutakoak.
- Balio-hezkuntza hobetzea, hezkuntzaren eremu arautuan zein ez-arautuan, arreta berezia ipinita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, emakumeak ez diskriminatzean eta tankerako balioetan.
- Gaitasun instrumentaletan, prozedurazko gaitasunetan, trebetasunetan eta jarreretan eragina duten hezkuntza-eragileen lana koordinatzea, eskola barrukoena nahiz kanpokoena.
- Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, bai EAEko bi hizkuntza ofizialetan, bai gutxienez atzerriko hizkuntza batean.
- Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta ikasketak handitzeko asmoz, haien mugikortasuna sustatzea.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 6 helburu estrategiko, 24 esku-hartze lerro eta 77 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek hezkuntzaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin.**

Ondoren, hezkuntzaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

**1. ARDATZA.- EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA**

**1. arloa.- Hezkuntza**

**1.1.- Gizartearen eta generoaren alorreko berdintasunik ezaren eragina eta erreprodukzioa murriztea hezkuntza-sisteman.**

1.1.1.- Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketetan, diru-laguntzen eta lanarekin bateragarriak diren ikasketa-planen bidez.

1.1.2.- Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea, eta erantzuna ematea haien jatorria, kultura edo izan ditzaketen desgaitasunak direla-eta izan ditzaketen behar desberdinei.

1.1.5.- Genero-estereotipoei aurka egitea.

1.1.7.- Ikastetxeak emigrazioaren errealitatera egokitzea, zentro horiei baliabide egokiak emanda.

**1.2.- Balioetan oinarritutako hezkuntza hobetzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan.**

1.2.1.- Eskolako eta eskolatik kanpoko jarduera guztietan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea, eta jarraibideak ezartzea ikastetxearen urteko planean hezkuntza mota hori sartzeko.

1.2.3.- Belaunaldi arteko esperientzia-trukea ahalbidetzeko jarduerak edo programak sustatzea.

**1.3.- Gizarte eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan txerta daitezela sustatzea.**

1.3.1.- Ikasleek ikastetxeetan parte hartzea sustatuko duten estrategiak garatzea.

1.3.2.- Ikastetxeek udalarekin eta gizarte-eragileekin lankidetza-hitzarmenak egin ditzaten bultzatzea, elkarrekin jarduerak egin ahal izateko, eta denen intereseko guneak erabili ahal izateko.

1.3.3.- Kontuan hartzea eragileon erantzunkidetasuna, familiak eragile aktibo gisa duen eginkizuna sustatzea, eta sendotzea eta aintzat hartzea sare sozialen eta hezkuntza-elkarteen gaitasun estrategikoa eta koordinazioa eta sareko lana.

1.3.5.- Ikastetxearen curriculum-proiektuan hurbileko errealitatea nahiz Europako ingurune soziokulturalaren errealitatea sartu ahal izatea sustatzea eta erraztea.

1.3.6.- Ikasleei komunikatzeko gaitasunak (linguistikoak, teknologikoak eta harremanenak) garatzen lagunduko dieten programak areagotzea, ingurunearekin harreman hobea izan dezaten.

**1.4.- Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, bai EAEko bi hizkuntza ofizialetan bai gutxienez atzerriko hizkuntza batean.**

1.4.1.- Diru-laguntzak antolatzea gazteek atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko.

1.4.2.- Gazteek EBko herrialdeekin trukea izatea sustatzea.

1.4.3.- Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan; bereziki, proportzioan euskararen presentzia eta ezagutza txikiagoa den lurraldeetan.

**1.5.- Gazteen mugikortasuna handitzea, esperientzien trukea, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna laguntzeko, gazteak prest egon daitezen gaur egungo gizarte global eta elkarlotuan moldatzeko.**

1.5.1.- Gazteek Europako mugikortasun-baliabideak gehiago erabil ditzatela sustatzea.

**1.6.- Ikerkuntza eta espezializazioko ikasketak sustatzea.**

1.6.1- Bertan nahiz atzerrian espezializazioko ikasketak egiteko diru-laguntzen zuzkidura sustatzea.

1.6.2.- Ikerkuntza sustatzeko programak bultzatzea.

Honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, hezkuntzaren arloa guztira 6 helburu estrategikok osatzen dute; horien barruko ekintza gehienek hiru helbururi erantzuten diete. Alde batetik, eta modurik esanguratsuenean, 1.1 helburua topatuko genuke (gizartearen eta generoaren alorreko berdintasunik ezaren eragina eta erreprodukzioa murriztea hezkuntza-sisteman). Arloko ekintzen % 36 helburu horrekin lotuta daude. Helburu horren ondoren, 1.2 helburua nabarmenduko genuke, arloan egindako ekintzen % 21 biltzen dituena (balioetan oinarritutako hezkuntza hobetzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan). Azkenik, 1.3 helburuak ekintzen % 17 biltzen du (gizarte eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan txerta daitezela sustatzea).

Gráfico 1.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




Gráfico 5.2: Presupuestos ejecutados por objetivos estratégicos




<u>Aurrekontu-ikuspegi orokorra</u>

**2014 eta 2016 artean, 153 milioi euro baino gehiago bideratu dira hezkuntzaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean egikaritutako aurrekontu osoaren % 26,7.**

III. Gazte Planaren hiru urteko indarraldian, ikusi dugu programatutako aurrekontuen eta egikaritutako aurrekontuaren arteko aldeak ez direla oso esanguratsuak izan, 2016ko kasuan izan ezik. Azken urte horretan, hezkuntzaren arloak 52 milioi euro inguruko aurrekontua prestatu zuen, eta azkenean 60,5 gastatu ziren; hau da, programatutakoa baino % 15 gehiago.

Gráfico 1.3: Presupuestos programados y ejecutados entre los años 2014 y 2016




Oro har, hezkuntzaren arloak izan du aldakuntza txikiena programatutako eta egikaritutako aurrekontuen artean; izan ere, programatutako aurrekontuaren % 100 exekutatu da. Xehetasun-maila handiagoan sartuta, III. Gazte Planerako guztira 153.308.517 euroko aurrekontua prestatu zen, eta 153.906.035 euro gastatu ziren.

Gráfico 1.4: Presupuesto programado y ejecutado para el Área de Educación




Azkenik, programatutako eta egikaritutako aurrekontuak alderatuta, hezkuntzaren arloa osatzen duten sei helburu estrategiko bakoitzerako ikusi da haietako hiru helburuk % 1 eta % 20 artean gainditu dutela aurreikusitako aurrekontua; beste hiru helburuek, berriz, % 70 eta % 99 artean egikaritu dute aldez aurretik programatuta zeukaten aurrekontua.

Gráfico 1.5: Presupuesto programado y ejecutado por cada objetivo estratégico del Área de Educación (2014 - 2016)




## Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza

*Gazteak helburu*

Gazteen kolektiboari begira antolatutako ekintzen portzentaje handiena biltzen duen arloen artean, hezkuntzaren arloa nabarmendu behar dugu; izan ere, ekintzen % 81 gazteak esklusiboki ardatz hartuta egin dira –hau da, egikaritutako aurrekontuaren % 93–. Arlo horren izaera intrintsekoa aintzat hartuta, logikoa da zenbateko horiek izatea esku artean, ikasle gehienak gazteen adin-tartean biltzen baitira.

Hezkuntzaren arloa osatzen duten helburu estrategikoen artean, zera nabarmentzen da, 6.1 helburuak (ikerkuntza eta espezializazioko ikasketak sustatzea) izan duela gazteei esklusiboki zuzendutako ekintza-portzentaje apalena (% 61).




*Transbertsalitatea hezkuntzaren esparruan.*

Gazteen kolektiborako hezkuntzaren arloko ekintzak gauzatzeko transbertsalitate-mailaren analisiak maila nabarmen apala ageri du, eta kontzentrazio esanguratsuena Hezkuntza Berritzeko Zuzendaritzan, Emakunde – Emakumearen Euskal Institutuan eta Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzan pilatzen da. Hori hala izanagatik ere, zuzendaritza ugarik garatzen dituzte, modu indibidualizatuan, hezkuntzarekin lotutako ekintzak.




Aurrekontuari dagokionez, zuzendaritza batzuen kasuan konpentsazio-falta handia ageri da esleitutako ekintza kopuruaren eta egikaritutako aurrekontuaren artean. Hori da, esate baterako, Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritzaren kasua; hezkuntzaren arloko ekintzen % 16 biltzen ditu, eta gauzatutako aurrekontuaren % 0,3 baino ez da bideratu zuzendaritza horretara. Beste muturrean, Politika Zientifikoko Zuzendaritza daukagu: hezkuntzaren arloko ekintzen % 5 bildu ditu, eta gauzatutako aurrekontuaren % 23 hartu du ia.

Gráfico 1.5: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Educación



*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza.*

Hezkuntzaren arloko lankidetzak hainbat ekintza planteatu ditu, zeinetan arduradunak kanpoko eragileekin lankidetzan izan baitira jarduera horiek mamitzeko garaian. Honako grafiko honetan ikus daitekeenez, hezkuntzaren arloan aurkeztutako ekintzen % 28k egikaritutako aurrekontuaren % 77 biltzen dute, eta koordinazio-maila handia ageri dute arloa osatzen duten ekintzetan. Lankidetzan jardun duten hirugarren eragileen artean, nabarmentzekoak dira udalak, toki-erakundeak, GKEak, unibertsitateak eta bestelako irakaskuntza-zentroak.




## Emaitzen ebaluazioa, helburu estrategikoaren arabera

### 1.1. helburua. - Gizartearen eta generoaren alorreko berdintasunik ezaren eragina eta erreprodukzioa murriztea hezkuntza-sisteman.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**1.1.1.** - Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketetan, diru-laguntzen eta lanarekin bateragarriak diren ikasketa-planen bidez.

**1.1.2.** - Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea, eta erantzuna ematea haien jatorria, kultura edo izan ditzaketen desgaitasunak direla-eta izan ditzaketen behar desberdinei.

**1.1.5.** - Genero-estereotipoei aurka egitea.

**1.1.7.** - Ikastetxeak emigrazioaren errealitatera egokitzea, zentro horiei baliabide egokiak emanda

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Hezkuntzaren alorreko lehendabiziko helburu estrategikoa (gizartearen eta generoaren alorreko berdintasunik ezaren eragina eta erreprodukzioa murriztea hezkuntza-sisteman) lau esku-hartze lerrok konfiguratzen dute guztira. Lerro horien barruan, gauzatutako aurrekontuari dagokionez, 1.1.1 lerroa nabarmenduko genuke (erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketetan, diru-laguntzen eta lanarekin bateragarriak diren ikasketa-planen bidez); izan ere, lerro horretara bideratu da helburu estrategiko horri dagokion aurrekontuaren % 89.

Ildo horren ondoren, eta helburu hori mamitzeko egikaritutako aurrekontuaren % 8rekin, 1.1.2 esku-hartze lerroa ageri zaigu (ikasleen aniztasuna kontuan hartzea, eta erantzuna ematea haien jatorria, kultura edo izan ditzaketen desgaitasunak direla-eta izan ditzaketen behar desberdinei).



Ondoren, programatutako aurrekontuaren eta egiaz gauzatutakoaren arteko desbideratzea jasoko dugu, esku-hartze lerroen arabera banakatuta.

Gráfico 1.9: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Aurretik aipatu dugun moduan, 1.1 helburuak gizartearen eta generoaren alorreko berdintasunik ezaren eragina eta erreprodukzioa murriztea bilatzen du hezkuntza-sisteman, eta ekintzen % 64rako eskura dugun informazioa oinarri hartuta, guztira 111.070 lagunek jaso dituzte ekintza-lerro horretarako bildutako ekimenak. Horietatik 100.000 onuradun inguru ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak izango lirateke, baita ikastetxeak eta herritarrak ere, oro har.

- Bestalde, 1.1.1 esku-hartze lerroan bilduta, bi ikerketa-programa nabarmentzen dira: haietako bat doktorego aurrekoa eta bestea, berriz, ostekoa. Plana indarrean egon den hiru urteetan, guztira goi-mailako 1.254 unibertsitate-ikasle titulaturi lagundu die, baita 215 doktorego-titulaturi ere.
  1.1.1 esku-hartze lerroan bildutako beste ekintza nagusi bat unibertsitateko beka-deialdi orokorra izan da, mugikortasun-zailtasun bereziak dituzten ikasleei bideratua: 2014 eta 2016 artean 33.629 ikaslek baliatu dute.

- 1.1.2 esku-hartze lerroari dagokionez (ikasleen aniztasuna kontuan hartzea, eta erantzuna ematea haien jatorria, kultura edo izan ditzaketen desgaitasunak direla-eta izan ditzaketen behar desberdinei), kulturartekotasunari, sexu-aniztasunari eta kultura-aniztasunari buruzko hainbat sentsibilizazio-programa garatu dira, eta lehen eta bigarren hezkuntzako 15.470 ikaslerengana iritsi da.
  Bestetik, ikasleen beharrizan bereziei erantzuteko arretaren ekarpenari jarraikiz, guztira 10.109 ikasle geratu dira salbuetsita unibertsitate-prezio publikoetatik 2015 eta 2016 bitartean.

- 1.1.5 esku-hartze lerroari dagokionez (genero-estereotipoei aurre egitea), ekintzen % 42ren informazioa bakarrik daukagu; orotara 13 ekintza egin dira eta horien artean nabarmentzekoak dira, onuradun kopuruarekin lotuta, Berdingune webgunearen eta Gizonduz kanpainaren sare sozialen kudeaketa. Berdingune ataria erreferentzia da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-auzietan, eta gai horrekin loturik EAEn diren bitarteko eta programa publikoak biltzen ditu. Haren bidez, eskura diren datuen arabera, 2015ean guztira 23.839 gizonezko sentsibilizatu eta inplikatu ziren berdintasunaren alde.

- Azkenik, 1.1.7 esku-hartze lerroan bilduta (ikastetxeak emigrazioaren errealitatera egokitzea, zentro horiei baliabide egokiak emanda), 2014 eta 2016 artean kulturartekotasuna sustatzeko programak egin dira ikasle etorkinei bideratuta, baita gai horren inguruan irakasleak trebatzeko programak ere; hala, 10.181 onuradun erregistratu dira irakasleen, ikasleen eta ikastetxeen artean.

Efikaziaren balioespena

Helburu honetan garatutako programetarako eskura den informazioari loturik, hainbat puntu nabarmenduko genituzke.

- Derrigorrezko bigarren hezkuntzan antolatutako Kulturartekotasuneko Sentsibilizazio Programak hiru helburu nagusi izan ditu: alde batetik, toki-entitateak eta ikastetxeak babestea, ikasleen artean kulturarteko bizikidetzarako oinarrizko gaitasunak sustatzeko lanetan; bigarrenik, gazteen artean tolerantzia, elkartasuna, aniztasuna, berdintasuna eta tankerako balioak sustatzea, edozer dela ere euren jatorria, hizkuntza, sexua, sexu-aukera edo erlijioa; eta, hirugarrenik, pertsonarteko gatazka posibleei heltzeko eta haiek eraldatzeko estrategiak identifikatzea. Sentsibilizazio-kanpaina horiek 46 ikastetxetan egin dira, III. Gazte Plana indarrean izan den hiru urteetan; hala, guztira DBHko 4.047 ikaslerengana iritsi dira. Haien efikazia neurtzeari dagokionez, parte hartu zuten ikasleek betetako satisfazio-inkestak hartu dira aintzat, eta horietan 4,5 puntu eman zizkieten batez beste 5etik hiru urteetan.
- Gizonduz programaren sentsibilizazio- eta trebakuntza-jarduerarako gizarte-desberdintasunen eragina murrizteko helburuaren efikazia eta ekarpena neurtzeko (Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimena da, gizonezkoen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko kontzientziazioa, partaidetza eta inplikazioa sustatzeko), online trebakuntzako ikastaroaren batez besteko satisfazio-maila hartu zen kontuan, eta emaitza positiboak eskuratu ziren.
- Azkenik, Nahiko baterako hezkuntzako programaren satisfazio-mailari buruzko informazioa ere badugu; Nahiko lehen hezkuntzako lehendabiziko zikloan berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzeko programa da, eta 2016ko datuak bakarrik ditugu. Hala, urte hartan 6 puntutik 5,06ko satisfazio-maila eskuratu zuen, eta horrek erakusten du partaideek satisfazio-maila handia izan zutela. Urteotan, Nahiko programak ikasleekin, irakasleekin eta familiekin jardun du elkarlanean baterako hezkuntzaren bitartez; hezkuntzaren alorrean esku hartzeko metodo horren oinarria zera da, haurren potentzialitateak eta indibidualtasunak onartzea, edozer dela ere euren sexua, baita estereotipoak eta rolak ere euren garapen integralean, eta, horrez gain, emakumeen kontrako edozer diskriminazio eta indarkeria mota baztertzea.

**1.2. helburua. - Balioetan oinarritutako hezkuntza hobetzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**1.2.1.-** Eskolako eta eskolatik kanpoko jarduera guztietan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea, eta jarraibideak ezartzea ikastetxearen urteko planean hezkuntza mota hori sartzeko.

**1.2.3.-** Belaunaldi arteko esperientzia-trukea ahalbidetzeko jarduerak edo programak sustatzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

1.2 helburua, balioetan oinarritutako hezkuntza hobetzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan, bi esku-hartze lerrotan bildutako 16 ekintzaren bidez garatu da. Ikus dezakegun moduan, helburu horretarako gauzatutako aurrekontua 1.2.1 helburuan mamitu da oro har (eskolako eta eskolatik kanpoko jarduera guztietan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea), bertan bildu baitziren helburu hori lortzeko ekintzen % 87,5.

Gráfico 1.10: Presupuesto ejecutado por línea estratégica



Esku-hartze lerro bakoitzerako programatutako eta bideratutako aurrekontuen alderaketa-ikuspegi orokorrari dagokionez, honako grafiko honetan ikusten dugu 1.2.1 esku-hartze lerroak programatutako zenbatekoa baino % 21 gehiago bideratu duela; 1.2.3 lerroak, berriz, programatutako aurrekontuaren % 9 baino ez du bete.

Gráfico 1.11: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Eskura den informazioari erantzunez, hainbat oharpen egin litezke bigarren helburu estrategikorako garatu diren ekintzen estaldurarekin loturik; haien bidez, guztira 74.216 pertsonarengana iristea lortu da.

- Hori horrela izanik, 2014 eta 2016 bitartean, Ertzaintzak orotara 1.453 dibulgazio-hitzaldi eskaini ditu ikastetxeetan, eta haietan guztira 53.192 ikasle hartzaile izan dira, jarrera desegokiak eta indarkeria-ekintzak saihesteko neurriak azaltzeko, sustatzeko eta sakontzeko, baita bizikidetza egokian lagunduko duten faktore positiboak edo prebentzio-faktoreak laguntzeko eta sustatzeko ere.

- Gizarte-balioen hezkuntza hobetzeko helburuari laguntzeko, 2014 eta 2015 bitartean guztira ikasle-gurasoen 1.122 elkartek jaso dituzte diru-laguntzak, komunitate desberdinetako ikastetxeetako ikasleen artean bizikidetza, errespetua eta balioak sustatzeko helburuarekin.

- 2014an bakerako hezkuntzarekin eta bizikidetzarekin lotutako trebakuntza-ekintzak egin ziren, 3.563 irakasleri zuzenduta; hala, estrategiak eta ezagutzak ipini ziren haien esku, helburu horiek lortzeko hezkuntza lantzeko.

Efikaziaren balioespena

1.2 helburuari dagozkion ekintzen efikaziari dagokionez, eskura dugun informazioaren arabera, ezin dugu balioespenik egin; izan ere, helburu horretako ekintza bakarraren ebaluazioa bakarrik daukagu. 2014an hainbat esparrutako profesionalekin jardunaldi bat egin zen, gizarte-balioen hezkuntzak, tratu onak jorratzeko lanak eta pertsona erresilienteak lortzeko loturak zer-nolako garrantzia duten jorratzeko. Guztira jasotako 232 ebaluazioek zortzi puntu eman dituzte batez beste hamarretik.

**1.3. helburua. - Gizarte eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan txerta daitezela sustatzea.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**1.3.1.-** Ikasleek ikastetxeetan parte hartzea sustatuko duten estrategiak garatzea.

**1.3.2.-** Ikastetxeek udalarekin eta gizarte-eragileekin lankidetza-hitzarmenak egin ditzaten bultzatzea, elkarrekin jarduerak egin ahal

izateko, eta denen intereseko guneak erabili ahal izateko.

**1.3.3.-** Kontuan hartzea eragileon erantzunkidetasuna, familiak eragile aktibo gisa duen eginkizuna sustatzea, eta sendotzea eta aintzat hartzea sare sozialen eta hezkuntza-elkarteen gaitasun estrategikoa eta koordinazioa eta sareko lana.

1.3.4.- Ikastetxeak, kirol-instalazioak eta beste espazio batzuk irekitzea, ordutegitik eta/edo eskola-egutegitik kanpo, ikasketa eta kontsultarako espazio bezala erabiltzeko, baita beste jarduera kultural batzuetarako ere.

1.3.5.- Ikastetxearen curriculum-proiektuan hurbileko errealitatea nahiz Europako ingurune soziokulturalaren errealitatea sartu ahal izatea sustatzea eta erraztea.

1.3.6.- Ikasleei komunikatzeko gaitasunak (linguistikoak, teknologikoak eta harremanenak) garatzen lagunduko dieten programak areagotzea, ingurunearekin harreman hobea izan dezaten.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

1.3 helburua, gizarte eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan txerta daitezela sustatzea, bost esku-hartze lerroren bidez mamitu da, eta orotara III. Gazte Planean jasotako 13 jarduera bildu dituzte haren inguruan. Honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, 1.3.6 esku-hartze lerroak –Ikasleei komunikatzeko gaitasunak (linguistikoak, teknologikoak eta harremanenak) garatzen lagunduko dieten programak areagotzea, ingurunearekin harreman hobea izan dezaten– 1.3 helbururako bideratutako aurrekontuaren % 90,8 hartu du. Horrez gain, 1.3.5 esku-hartze lerroak (ikastetxearen curriculum-proiektuan hurbileko errealitatea nahiz Europako ingurune soziokulturalaren errealitatea sartu ahal izatea sustatzea eta erraztea) ez du inolako aurrekonturik izan lotuta; izan ere, lerro hori osatzen duten jarduera guztiak Europar Batasunak laguntzen ditu diruz.

Gráfico 1.12: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Hirugarren helburua osatzen duten ildo estregiko bakoitzean programatutako eta egikaritutako aurrekontuen alderaketari erreparatzen badiogu, zera ikusiko dugu, 1.3.6 lerroak aurrekontu-aldakuntza esanguratsua izan duela; izan ere, 7,6 milioi euroko zenbatekoa programatu zen, eta guztira 8,4 milioi gastatu dira. Hau da, aurreikusitakoa baino % 14 gehiago.

Aurrekontu-aldakuntza handiagoari dagokionez, berriz, 1.3.2 esku-hartze lerroak % 83 gainditu du programatutako aurrekontua.

Gráfico 1.13: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Eskura dugun informazioarekin, hezkuntzaren alorreko ia 23.000 onuradun zenbatu ditugu; horien artean biltzen dira herritarrak oro har, eta, bereziki, ikasle gazteak, irakasleak eta hezkuntzaren alorreko bestelako profesionalak.

- • Bestalde, 1.3.6 esku-hartze lerroan, ingelesean murgiltzeko 5 eguneko egonaldiak egin dira, barnetegietan, eta helburua zera izan da, lehen hezkuntzako seigarren urteko ikasleen artean ingelesaren erabilera sustatzea. Jarduera horren bidez, guztira 4.127 ikaslek eta 144 ikastetxek parte hartu dute.

- Halaber, 2015 eta 2016 bitartean, Ulibarri programa ipini zen martxan, euskararen erabilera sustatzera bideratuta, ikastetxeetan normalizatzeko proiektuak diseinatzea eta txertatzea sustatzearen bidez, baita ikastetxeetako gizarte-talde guztietan euskararen ezagutza eta erabilera handitzearen bidez ere. Proiektuak martxan iraun duen bi urteetan, guztira 400 ikastetxek parte hartu dute ekimenean.

Efikaziaren balioespena

Ez daukagu behar beste informazio ekintza horiek balioesteko; izan ere, jarduera bakarrari buruzko informazioa bakarrik daukagu, aplikatu zen urte bakarrekoa. Hala, 2015ean 9 puntu lortu zituen batez beste 10etik, honako ekimen honetan: profesionalak sentsibilizatzea familiekin gurasotasun positibotasunaren bidez lan egitearen garrantziari buruz, seme-alaben hazkuntzarako dituzten trebetasunak, protagonismoa eta inplikazioa hobetzeko. Hartara, gizarte eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan txerta daitezela sustatzeko helburua lortzen lagunduko da, familiekin lan egiten duten profesionalek gurasotasun positiboaren ikuspegitik egin dezaten.

**1.4. helburua. - Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, bai EAEko bi hizkuntza ofizialetan, bai gutxienez atzerriko hizkuntza batean.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**1.4.1.-** Diru-laguntzak antolatzea gazteek atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko.

**1.4.2.-** Gazteek EBko herrialdeekin trukea izatea sustatzea.

**1.4.3.-** Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan; bereziki, proportzioan euskararen presentzia eta ezagutza txikiagoa den lurraldeetan.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Ikus dezakegun moduan, helburu hori hiru esku-hartze lerrok osatzen dute, guztiak ere gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzera bideratuta. Grafikoan ikus dezakegun moduan, bada esku-hartze lerro bat beste guztien gainetik nabarmentzen dena: 1.4.1.- Diru-laguntzak antolatzea gazteek atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko. Lerro horretara 2.541.114 € bideratu dira orotara, eta horietatik 2.264.395 € egikaritu dira.




Honako grafiko honetan, programatutako eta egikaritutako aurrekontuak alderatzen dira, baita 2014 eta 2016 bitartean izandako desbideratzeak ere.




<u>Estalduraren balioespena</u>

Helburu horretarako bideratutako jarduera guztietarako eskura dugun informazioaren bidez, gutxienez 3.352 onuradun identifika ditzakegu, batik bat DBHko ikasleak, ikastetxeak eta elkarteak.

- Planak indarrean iraun duen bitartean, guztira 1.599 hizkuntza-beka eman dira atzerrirako DBHko 3. eta 4. ikasturteko ikasleentzat, baita Batxilergoko 1. eta 2. ikasturteko ikasleentzat ere. Tankera horretako ekimenekin, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ikasleen lehiakortasuna hobetu nahi du, baita kualifikazioa eta enplegura egokitzeko gaitasuna ere.

- Era berean, diru-laguntzen deialdi bat ere aurkeztu da gazteen mugikortasunerako edo EAEko eta Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu kide batzuetako gazteen trukerako jarduerak garatzeko; hala, 26 elkartek baliatu dituzte horiek, 2014 eta 2015eko datuek diotenaren arabera.

- NOLEGA programa bizitasun eta naturaltasun handiko hainbat jarduera ari da antolatzen, euskararen erabilera sustatzeko eskola-eremuan, hizkuntzaren aldeko interesa piztu dadin, baita irakasleen zein ikasleen sentimenduak ere. Ekimenok ia 1.000 ikastetxetan egin ziren 2015 eta 2016 artean.

<u>Efikaziaren balioespena</u>

Helburu estrategiko hori hiru ekimenez osatuta dago, eta haien efikaziari buruzko informazioa eskuratzeko zera egin dugu, diru-laguntzen deialdian eskaerak aurkeztu dituzten eta diru-laguntza jaso duten elkarteen alderaketa (gazteen mugikortasunerako edo EAEko eta Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu kide batzuetako gazteen trukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak). Hartara, 2014 eta 2015 artean ikusten den moduan, guztira 52 elkartek eskatu zuten diru-laguntza hori, eta haietatik % 50ek bakarrik (26 elkarte) lortu zuten eskuratzea. Hartara, tankera honetako ekimenetan eskaera handia ikusten da.

**1.5. helburua. - Gazteen mugikortasuna handitzea, esperientzien trukea, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna laguntzeko, gazteak prest egon daitezen gaur egungo gizarte global eta elkarlotuan moldatzeko.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**1.5.1.-** Gazteek Europako mugikortasun-baliabideak gehiago erabil ditzatela sustatzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

1.5 helburua (gazteen mugikortasuna handitzea, esperientzien trukea, gazteak prest egon daitezen gaur egungo gizarte global eta elkarlotuan moldatzeko) esku-hartze lerro bakarrak osatzen du: gazteek Europako mugikortasun-baliabideak gehiago erabil ditzatela sustatzea. Hurrengo grafikoan, ikusten dugu nola programatutako aurrekontutik (8.630.230 €) ia % 99 bete dela.

Gráfico 1.17: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea de estratégica




Estalduraren balioespena

Helburu hau betetzeko estaldurari buruz emandako informazioa oinarri hartuta eta helburu estrategiko honetarako bildutako jardueren % 33ren onuradunei buruzko informazioa bakarrik dugula jakinda, adieraz dezakegu orotara 5.015 izan direla, eta horien barruan desgaitasuna duten ikasleak eta unibertsitate-ikasleak izan direla gehienbat. Ondoren, informazioa dugun jardueren estaldurari buruzko datuak emango ditugu.

- 2015ean eta 2016an, hezkuntza-premia bereziko ikasleentzako garraio-laguntzak ipini ziren martxan, eta eskola-garraiorako esleipen indibidualizatuak egin ziren. Hartara, guztira 1.778 ikaslek jaso dituzte laguntzak, desgaitasuna duten seme-alabak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako ikastetxera eramatean eragiten dieten gastua ordaintzeko.

- Bestetik, Erasmus programa edota nazioarteko unibertsitate-mugikortasunerako beste programaren baten karira, nazioarteko mugikortasun-bekak eman zaizkie Euskadiko unibertsitate-ikasleei eta goi-mailako arte-irakaskuntzako ikasleei. 2014ko eta 2015eko informazioak dioskunaren arabera, 3.081 ikaslek baliatu dituzte nazioarteko mugikortasunera bideratutako laguntzak, eta partzialki estali ahal izan dituzte desplazamendu horiek eragindako gastuak.

Efikaziaren balioespena

1.5 helburuaren kasuan bezalaxe, hemen ere jarduera bakarraren kasuan ditugu ekimenen efikazia islatzen duten adierazleak. Erasmus+ programaren Gazteria kapitulua kudeatzeko Espainiako Agentzia Nazionalean parte hartuta guztira 44 eskaera jaso dira elkarteen partetik, eta % 54 baino ez dira eman. Horrenbestez, ekimenaren aldeko

eskaera handiak erakusten du zer-nolako interesa pizten duen. Ekimen honen bidez lortu nahi diren helburu guztien barruan, gazteriaren ahalmenak eta oinarrizko gaitasunak hobetzea nabarmenduko genuke, Europako bizitza demokratikoan eta lan-merkatuan partaidetza sustatzea, baita hezkuntzako herritartasuna, kulturarteko elkarrizketa eta gizarteratzea ere.

### 1.6. helburua. - Ikerkuntza eta espezializazioko ikasketak sustatzea.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**1.6.1.-** Bertan nahiz atzerrian espezializazioko ikasketak egiteko diru-laguntzen zuzkidura sustatzea.

**1.6.2.-** Ikerkuntza sustatzeko programak bultzatzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

1.6 helburua, ikerkuntza eta espezializazioko ikasketak sustatzea, 2 esku-hartze lerroren bitartez garatu da, eta guztira 11 jarduera egin dira. Horien artean, alde batetik, espezializazio-ikasketak garatzeko bekak sustatzea jasotzen da, eta, bestetik, ikerketa pizten duten programak indartzea. Ondoren ikusten dugun moduan, 1.6.2 esku-hartze lerroak (ikerkuntza sustatzeko programak bultzatzea) helburu estrategiko horretara bideratutako aurrekontuaren % 90 hartu du.

Gráfico 1.18: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Aurrekontu-informazioak erakusten duenez, 1.6.2 esku-hartze lerrorako zabalpen handia izan da, guztira 6,4 milioi euro egikaritu baitira; hau da, programatutako aurrekontu guztiaren % 70.

Gráfico 1.19: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Guztira 11 jarduerak osatu dute 1.6 helburua, ikerkuntza eta espezializazioko ikasketak sustatzea, eta jarduera horiek orotara 1.744 lagunengana iritsi dira.

- Onuradun gehien izan dituzten jardueren artean, Pasaiako, Ondarroako eta Bermeoko Itsas Arrantzako Institutu Politeknikoetan ikasketak egiteko bekak daude; guztira aktibo dauden arrantza-sektoreko 579 profesional gaztek baliatu dituzte.

- Berrikertu programaren helburua zera da, laguntza ematea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan eta enpresetan giza kapital ikertzailea sartzeko, itzuli behar ez diren diru-laguntzen bitartez, langile ikertzaileak kontratatzeko. Hartara, 2014 eta 2016 artean, guztira 274 euskal enpresak eta enpresa-erakundek kontratatu dituzte ikertzaileak.

Efikaziaren balioespena

1.6 helburuari dagozkion ekintzen efikaziari dagokionez, eskura dugun informazioaren arabera, ezin dugu balioespenik egin. Edonola ere, hura osatzen duten ekimenetan parte hartzeko gazteen eskariari erreparatzen badiogu, interes handia nabari dela esan dezakegu, batez ere Eusko Jaurlaritzak ikerkuntza eta espezializazioko ikasketak sustatzeko deitutako laguntzekin eta bekekin lotuta.

## 2. arloa. Enplegua




### Ekintzen deskribapen orokorra

Enpleguaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia

Lan-egoera gure gizarteko eremurik garrantzitsuena edo garrantzitsuenetako bat da, eragin handia baitu gizarte-nortasunak eratzeko prozesuaren eta gazteen emantzipazio-ibilbidearen gainean. Hala, atzeraldi ekonomikoak eta lan-merkatuak izandako eraldaketak (lanbide-ibilbideen linealtasuna etetea, langabezia handitu izana edo ezegonkortasun handia) zaildu egin diete gazteei euren bizitza-proiektua diseinatzeko eta garatzeko prozesua, eta luzatu egin diete familiekiko mendetasun-egoera eta trebakuntza-fasea bera[2]:

- 25 urte bete aurretik, ikastea da gazteen okupazio nagusia, eta, adin horretatik aurrera, gehienak lanean ari dira.
- Halaber, 18 eta 29 urte bitarteko populazioaren jarduera-tasa nabarmen jaitsi da atzeraldi ekonomikoaren ondorioz: 2008an % 57,3 izatetik 2013an % 51,4 izatera. Ebaluazio-aldiaren urteotan, berriz, 2014an % 53,5 izatetik 2016an % 49,1 izatera igaro da.
- Gazteen langabeziari dagokionez, 2014an % 29,5 izatetik 2016an % 23,7 izatera jaitsi da; edonola ere, gazteen langabezia populazio osoaren langabeziaren halako bi da ia.
- Egoera horren ondorioz, okupatutako gazteen lan-prekarietatearen mailak nabarmen handitu dira azken urteetan, eta batez besteko soldata hilean 1.000 € baino gutxiago da.

Egoera horretan, Eusko Jaurlaritzak, III. Gazte Planean, gazteen langabezia-tasa murrizten saiatzeko neurriak zabaltzeko apustua egin du, baita lan-munduan txertatzeko baliabideen efikazia hobetzekoa ere. Halaber, lanaren esparruan beste hainbat faktore garrantzitsu lantzeko neurriak ere zabaldu dira, hala nola laneko hilkortasun-tasa eta behin-behinekotasuna, oraindik ere handi samarrak baitira, bereziki emakumeen eta gazteenen artean: behin-behinekotasunaren tasa esponentzialki handitu da azken urteetan, ia ehuneko 16 puntu 2009tik, eta 2014an % 56,8 izatera iritsi zen.

Bestetik, nahiz eta autoenpleguaren aldeko hautua egin duten gazteen kopurua apala izan (% 6,2 norbere kontura, eta % 93,6 besteren kontura), kontuan hartzekoa da horretarako asmoa daukaten gazteen kopurua (hamar gaztetatik batek ekintzailetzari heldu dio edo heltzekotan da). Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak okupazioko eta garapen profesionaleko aukerak hobetzeko ikaskuntza sustatu du. Hori guztia ekintzailetza sustatzeko asmoz egin

[2] Euskal gazteriaren diagnostikoa, Gazteriaren Euskal Behatokiak 2017an argitaratua.

da, ez horrenbeste autoenpleguaren bidez, baizik eta etorkizunean aberastasuna eta enplegu handiagoa sortu dezakeen jarduera gisa.

Bestetik, enpleguaren alorraren analisia egitean, kontuan izan behar dugu enplegurako trebakuntza ere; hain justu, harremana baitu enplegu baterako aukera izateak eta helburu horretara bideratutako trebakuntzak, batez ere lanbide-heziketako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak.

Prestakuntzari dagokionez, lanbide-heziketaren balioespena altua da, eta hobetu egin da azken urteetan; hala, erabakigarria da hori, dualitatea ari baita lantzen batez ere lanbide-heziketaren ikuspegitik, gazteak lan-sisteman txertatzeko bide garbi gisa. Bestetik, eta jakinik enplegua lortzeko kanalik arrakastatsuenak ikasketa-zentroak eurak, praktikak egindako lantokiak eta kontaktu pertsonalen sareak direla, Eusko Jaurlaritzak trebakuntza-sistemaren eta lan-merkatuaren arteko koordinazioa hobetzea sustatu du III. Gazte Planaren indarraldian.

<u>Enpleguaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak</u>

1. ardatzaren barruan –Emantzipazioa eta autonomia–, III. Gazte Planak honako lau erronka hauek biltzen ditu enpleguaren alorreko enuntziatu estrategikoan.

- Etengabeko prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea, gaikuntza eta okupagarritasuna hobetzeko modu gisa.
- Prestakuntza alorraren eta lan-merkatuaren arteko lotura eta harremana sustatzea, gazteen enplegagarritasuna hobetzeko, enplegu-aukeretarako jasotako trebakuntza hobeto egokituta.
- Gazteak lan-munduan txertatzeko prozesua hobetzea, enplegua sortzera zein mantentzera bideratutako politika koordinatu bat sustatuta, baita ekintza positiboko neurriak eta erakundeen hainbat mailaren partaidetza txertatzera bideratuta ere.
- Ikaskuntza sustatzea, adin goiztiarretatik ekintzailetza-gaitasunak sustatzera eta autoenpleguaren alorrean gazte-ekimenak sustatzeko ekintzak abian ipintzera bideratutako politika koordinatu baten bidez.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 4 helburu estrategiko, 15 esku-hartze lerro eta 65 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek enpleguaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin.**

Ondoren, enpleguaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| **1. ARDATZA.- EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA** |
|---|
| **2. arloa.- Enplegua** |
| |
| **2.1.- Etengabeko prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntza sendotzea.** |
| **2.1.1.** - Gazte langileei lanbide-gaitasunak eskuratzeko erraztasunak ematea. |
| **2.2.- Hezkuntzaren eta lan-merkatuaren arteko lotura handiagoari bide ematea, jasotako prestakuntza eta enplegu-aukerak hobeto egokitzen direla bermatzeko.** |
| **2.2.1.-** Berariazko prestakuntza azpimarratzea gazteak laneratzeko estrategia gisa, haien lan-ibilbideak garatzeko tresna gisa. |
| **2.2.2.-** Lanbide-prestakuntza eta aurretiaz lan-eskarmentua izateko bide ematea, eskuratu diren ezagutza teorikoak gauzatzeko moduan. |
| **2.2.3.-** Unibertsitateko ikasleei lan-merkatuan sartzeko behar dituzten gaitasunak ematea. |
| **2.2.4.-** Ikaskuntza arautuen eta ez-arautuen ikasleei beste aukera bat eskaintzea, aisialdiaren eta sorkuntzaren eremuan. |
| **2.2.5.-** Prestakuntzako eskaintza lan-merkatuaren benetako premietara egokitzea. |
| **2.2.6.-** Ikastetxeek aholkularia izatea gazteei prestakuntza-ibilbideari eta enplegu-bilaketari buruzko aholkuak |

emateko, lan-merkatuari buruzko informazioa barne (enplegagarritasun-mailak eta ordainsariak).

**2.3.- Gazteen laneratzea hobetzea, politika koordinatua sustatuz enplegua sortu eta mantentzeari begira, baita haren kalitatea hobetzeko ere, diskriminazio anizkoitzeko egoeran izan litezken pertsonak azpimarratuz.**

**2.3.1.-** Gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteak laneratzeko bide ematea.

**2.3.2.-** Gazteei enplegu-politikei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza ematea.

**2.3.3.-** Politika koordinatua sustatzea, gazteentzako lanpostuak sortzeko eta haiei eusteko, eta, horretarako, ekintza positiboko neurriak hartzea eta zerga-abantailak aplikatzea, kontratazioaren arloan enpresen konpromisoa sustatzeko.

**2.3.4.-** gazteak lehen sektorean laneratzea eta bertan mantentzea sustatzea, belaunaldien arteko ordezkapena sustatuz.

**2.3.5.-** Tokiko korporazioen parte-hartzea handitzea enplegua sortzeko programetan.

**2.3.7.-** Gazteen istripu-tasa murriztea, generoen arteko desberdintasunei erreparatuz.

**2.4.- Espiritu ekintzailea handitzea, gaitasun ekintzaileak hasierako etapetatik bultzatzeko asmoa duen politika koordinatu baten bitartez.**

**2.4.1.-** Gazteen artean espiritu berritzaile eta ekintzailea sortzea eta sustatzea.

**2.4.2.-** Politika koordinatua garatzea, gazteek autoenplegua eta enpresak sortzea sustatze aldera, kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez.

**2.4.3.-** Nekazaritzaren sektorean sartu nahi duten gazteei prestakuntza ematea.

Hurrengo grafikoan nabarmendu dezakegun moduan, 2.3 helburuak, kalitatezko enpleguekin gazteen laneratzea hobetzeko xedea duenak, izan ditu jarduera gehien (% 43). Ondoren, enpleguaren allorreko jardueren % 30ekin, Eusko Jaurlaritzak trebakuntzaren esparruaren eta lan-merkatuaren arteko lotura handiagoa lortzearen aldeko apustua nabarmendu behar da.

Gráfico 2.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




Aurrekontuari dagokionez, eta jarduera kopuruaren modu berean, aurrekontu handiena egikaritzen duen helburu estrategikoa 2.3 da, eta ondoren 2.2. Bi helburu estrategikoen artean 94,6 milioi euro biltzen dituzte; hau da, enpleguaren atalak orotara egikaritutako aurrekontuaren % 89. Ondoren, helburu estrategiko bakoitzerako aurrekontuaren ikuspegia jasoko dugu.

Gráfico 2.2: Presupuestos ejecutados por objetivos estratégicos




Aurrekontu-ikuspegi orokorra

**2014 eta 2016 artean, 106 milioi euro baino gehiago bideratu dira enpleguaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren % 18,5.**

Urte bakoitzean enpleguaren arloan egikaritutako aurrekontuaren azterketa xehatuak bilakaera oso desberdina ageri du aztertutako urte bakoitzean. Horren arrazoia zera izan liteke, aurrekontu–informazioa erregistratzeko modua: batzuetan, urte anitzeko partidak izan dira, egikaritze-urte bakoitzean oso argiro esleitu gabe.

Gráfico 2.3: Presupuestos programados y ejecutados entre los años 2014 y 2016




Ikuspegia urtez urte hartuta, horrenbestez, ezin liteke analisia erabat zuzen/osorik egin.

Alabaina, hiru urteetarako ikuspegi bateratua eta azterketa orokorra eginda, ikusiko dugu enpleguaren arloak programatutako aurrekontuaren % 64 egikaritu duela.

Gráfico 2.4: Presupuesto programado y ejecutado para el Área de Empleo




Arlorako finkatutako helburu estrategikoen prismatik aztertuta lortuko genukeen ikuspegia baliteke distortsionatua izatea urte anitzeko aurrekontu-konpromisoak direla eta, baita eskura dugun informazio-mailagatik ere; nolanahi ere, helburuen arabera kontsolidatuta ikusiko genuke haietako bakoitzean zer aurrekontu-egikaritze izan den.

Gráfico 2.5: Presupuesto programado y ejecutado por cada objetivo estratégico del Área de Empleo (2014 - 2016)




<u>Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza</u>

*Gazteak helburu*

Enpleguaren alorrean jasotako ekintzen % 68 gazteei bakarrik zuzenduta egon dira, eta egikaritutako aurrekontuaren % 37 osatu dute. Enpleguaren alorreko lau helburuetan gazteengana modu esklusiboan bideratutako ekintzak daude; horien artean nabarmentzekoa da 2.1 helburua, etengabeko prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntza sendotzea bilatzen duena, eta haren barruko ekintzak (4) gazteei bideratuta daude. Beste horrenbeste 2.2 helburuarekin ere (hezkuntzaren eta lan-merkatuaren arteko lotura handiagoari bide ematea), haren barruko ekintzen % 85 Euskadiko gazteei bideratuta baitaude (guztira 17). Ondoren, Euskadiko gazteak lan-munduan txertatzera bideratutako helburuak biltzen dituen ekintzen % 59 (guztira 17) gazteei daude bideratuta esklusiboki.




*Transbertsalitatea enpleguaren arloan.*

Enpleguaren arloan garatutako ekintzen ezaugarria zera da, oro har, Eusko Jaurlaritzaren arlo askoren partaidetza izan dutela; dena dela, beharrezko espezializazio-mailaren ondorioz, ekintza gehien-gehienak Enplegu Sailak hartzen ditu bere gain oro har, eta Lanbidek bereziki. Ekintza bakoitza martxan ipintzeko garaian izan beharreko transbertsalitateari espezifikoki helduta, balio absolutuetan maila apala ageri du (ekintzen % 10), nahiz eta haien aurrekontuaren egikaritze-maila guztira martxan ipinitako aurrekontuaren % 20ra iristen den.




Bestetik, ekintza horien edukiaren analisiak erakusten du transbertsalitatea kualifikazio-maila hobetzera bideratutako ekintzetan gertatu dela; hau da, gazteen prestakuntzan, eta horretarako Enplegu eta Hezkuntza Sailek orpoz orpo jardun dute, helburuak eskatzen duen moduan.

Honako taula honetan dago jasota ekintzen eta aurrekontuen banaketaren xehetasuna, parte hartu duen zuzendaritzaren arabera. Lanbide nabarmentzen da Enpleguaren arloan gehien, aurrekontuaren % 80 egikarituta, 32 ekintzatarako. (Guztizkoaren % 49). Atzetik du Nazioartekotze Zuzendaritza, bi ekintzatara aurrekontu osoaren % 11 bideratuta (nazioartekotze-bekak eta Global Training bekak, zehazki).

Gráfico 2.6: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Salud




*Kanpoko eragileekiko lankidetza.*

Enpleguaren arloan kontuan izandako jarduerak ezin izango ziren egin Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileen lankidetzarik gabe. Bi jardueratatik bat hirugarren eragileen lankidetzari esker mamitu da (unibertsitateak, Lanbiderekin lankidetzan jarduten duten zentroak eta entitateak, udalak, mankomunitateak, enpresak, klusterrak eta tankerako adibideak).




Honako taula honetan dago jasota aurrekontuaren banaketa, ekintza kopuruaren eta kanpoko eragileekin izandako koordinazio-mailaren arabera.




## Emaitzen ebaluazioa, helburu estrategikoaren arabera

### 2.1. helburua. - Etengabeko prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntza sendotzea.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

2.1.1. - Gazte langileei lanbide-gaitasunak eskuratzeko erraztasunak ematea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Enpleguaren arloko lehendabiziko helburu estrategikoak, etengabeko prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntza sendotzea bilatzen duenak, esku-hartze lerro bakarra dauka, gazte langileei lanbide-gaitasunak eskuratzeko erraztasunak ematera bideratua. Esku-hartze lerro horretarako egikaritutako aurrekontuak alorrerako bideratutako guztiaren % 6 osatzen du, eta % 58ko desbideratzea izan du hasieran prestatutako aurrekontuaren aldean, nahiz eta programatutako jarduera guztiak ez diren mamitu. Desbideratze nagusiak bi jardueratan gertatu dira: unibertsitate-tituludun eta lanbide-heziketako tituludun gazteak kontratatzea atzerriko euskal enpresetan, eta trebakuntza-bekak nazioartekotzearen esparruan. Horren arrazoia baliteke izatea aurrekontu-banaketa programatutakoaren eta egiaz egikaritutakoaren artean, biak urte baterako baino gehiagorako ekintzak izaki.




Estalduraren balioespena

Bizitza osoko ikaskuntzari buruzko Legearen (urriaren 10eko 1/2013) zioen azalpenean jasotzen den moduan, «*ikaste-prozesu honen sustapena izan da Europa XXI. mendean modernizatzeko prozesua gidatu duen ekimen nagusietako bat. Bai Lisboako 2000ko Estrategiak, bai Europa 2020 Estrategiak berretsi egiten dute bizitza osoko ikaskuntza faktore eraldatzaile erabakigarri gisa, Europa jakintzaren gizarte eta ekonomia aurreratu bilakatu ahal izateko*».

Testuinguru horretan kokatzen dira, hain justu, 2014 eta 2016 artean etengabeko prestakuntza sustatzera bideratutako 7 milioi euroak, jardueren % 6 mamituta (gutxienez 516 gaztek jaso dituzten lau ekintzarekin lotuta). Hain zuzen ere, honako baieztapen hauek egin ditzakegu.

- Ekintza nagusia, onuradunen kopuruari erreparatuta, BEINT nazioartekotze-bekak izan dira. Programa horren helburua zera izan da, unibertsitate-tituludun gazteen trebakuntza nazioartekotzearen esparruan, Euskadiko enpresek eta bestelako erakundeek etorkizunean profesionalak izan ditzaten, ekonomia irekiak eskatzen dituen erronkei efikaziaz heldu ahal izateko. Guztira 428 gaztek esku hartu dute programa honetan, eta orotara 4.993.289 euro bideratu dira; hau da, helburu horretara bideratutako aurrekontuaren % 71.

- Bigarren ekintzarik esanguratsuena, aurrekontuari dagokionez, atzerrian kokatutako euskal enpresetan praktikak egiteko gazteen kontratazioko laguntzak izan dira. Ekimen hori titulazioarekin kualifikatutako gazte langabeetarako pentsatuta zegoen, eta helburu horretara bideratutako aurrekontuaren % 15 bideratu dute; hala, 2016an 20 onuradun izan ditu (aurreko urteetako informaziorik ez dago). Tankera horretako laguntzen bitartez, gazte langabeak lan-munduan txertatzeko bidean lan egiten da, aurretik euren titulazioarekin lotutako lan-esperientziarik ez daukatenek lanbide-esperientzia kualifikatua lor dezaten, enpresen beharretara egokituta betiere. Horrez gain, EAEko enpresa-ehunari ere laguntzen dio, nazioartekotze-prozesuan ahalegin handia egiten ari den aldetik.

- Azkenik, ahaleginak egin dira lanbide-gaitasunak eskuratzea sustatzeko lankidetzarako garapenaren alorreko gazte profesionalen artean, bi beka-programaren bitartez, biak ere Euskadiko boluntario kooperatzaileak, batetik, Nazio Batuen sistemarekin lotutako nazioarteko erakundeetan txertatzeko, eta, bestetik, Lankidetzarako Euskal Agentzian bertan bilduta. Gazte Planaren hiru urteetan jasotako datuen arabera, guztira 68 gaztek baliatu dituzte beka horiek, eta guztiek ere goi-mailako gradua, unibertsitateko diplomatura edo lizentzia dituzte.

Efikaziaren balioespena

Oraindik informazio espezifikorik ez baldin badaukagu ere ekintza horiek xehetasunez aztertu ahal izateko, baieztatu dezakegu III. Gazte Planaren esparruan helburu hori betetzeko egin diren ekimenek harrera oso ona izan dutela euskal gazteen artean; izan ere, jasotako eskaera kopuruak nabarmen gainditu du eskainitako plaza kopurua (esate baterako, 10 eskaera jasotzen dira beka bakoitzeko lankidetzarako garapenaren esparruan). Hala, beka-programa horiek Eusko Jaurlaritzaren ekintza publikoaren parte dira Gazte Plan honen aurretik ere, eta aurrera begira ere eskaintzen segituko da, euskal gazteei kualifikazio-aukerak ematen jarraitzeko.

### 2.2. helburua. - Hezkuntzaren eta lan-merkatuaren arteko lotura handiagoari bide ematea, jasotako prestakuntza eta enplegu-aukerak hobeto egokitzen direla bermatzeko.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**2.2.1.-** Berariazko prestakuntza azpimarratzea gazteak laneratzeko estrategia gisa, haien lan-ibilbideak garatzeko tresna gisa.

**2.2.2.-** Lanbide-prestakuntza eta aurretiaz lan-eskarmentua izateko bide ematea, eskuratu diren ezagutza teorikoak gauzatzeko moduan.

**2.2.3.-** Unibertsitateko ikasleei lan-merkatuan sartzeko behar dituzten gaitasunak ematea.

**2.2.4.-** Ikaskuntza arautuko eta ez-arautuko ikasleei beste aukera bat eskaintzea, aisialdiaren eta sorkuntzaren eremuan.

**2.2.5.-** Prestakuntzako eskaintza lan-merkatuaren benetako premietara egokitzea.

**2.2.6.-** Ikastetxeek aholkularia izatea gazteei prestakuntza-ibilbideari eta enplegu-bilaketari buruzko aholkuak emateko, lan-merkatuari buruzko informazioa barne (enplegagarritasun-mailak eta ordainsariak).

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Enpleguaren arloko bigarren helburuak orotara 28,5 milioi euro egikaritu ditu 20 ekintzatan, sei lerro estrategikotan bilduta. Horien barruan, bi nabarmendu behar dira bereziki besteen gainetik, egikaritutako aurrekontuari dagokionez. Alde batetik, 2.2.1 esku-hartze lerroa (berariazko prestakuntza azpimarratzea gazteak laneratzeko estrategia gisa) eta 2.2.2 lerroa (lanbide-prestakuntza eta aurretiaz lan-eskarmentua izateko bide ematea, eskuratu diren ezagutza teorikoak gauzatzeko moduan). Bi esku-hartze lerroek helburu horrekin lotutako aurrekontu osoaren % 70 egikaritu dute.

Gráfico 2.9: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Programatutako eta egikaritutako aurrekontuen arteko desbideratzeei dagokienez, honako lerro hauetan gertatzen dira batik bat.

- *2.2.1.- Berariazko prestakuntza azpimarratzea gazteak laneratzeko estrategia gisa, haien lan-ibilbideak garatzeko tresna gisa.* Kasu honetan, trebakuntzarako diru-laguntzen deialdiari egiten dio erreferentzia, kualifikazio profesionala sustatzeko prestakuntza propioa, enplegagarritasun-maila handiagoa izateko, enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpisistemari loturik. Plangintzan jasotako 9 milioi euroko aurrekontutik 7,7 milioi euro egikaritu dira.
- *2.2.2.- Lanbide-prestakuntza eta aurretiaz lan-eskarmentua izateko bide ematea, eskuratu diren ezagutza teorikoak gauzatzeko moduan.* Desbideratzeak Hezibizi eta Lehen Aukera programetan identifikatu dira batez ere, nahiz eta, eskura den informazioaren arabera, izan litekeen aurrekontuen barne-erregistroarekin lotutako auzia eta urteko kontabilitatearena.

Gráfico 2.10: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica



Estalduraren balioespena

Oro har, helburu honekin lotuta zabaldutako jardueren bidez eta eskura den informazioarekin loturik, gutxienez 80.552 gaztek izan dituzte jardueron onurak 2014 eta 2016 artean. Lortutako egiazko estaldura-maila erabat balioesterik ez baldin badago ere, ez baitago behar beste informazio horretarako, honako alderdi hauek nabarmendu litezke.

- 2.2.1 ildo estrategikoarekin lotuta (berariazko prestakuntza azpimarratzea gazteak laneratzeko estrategia gisa, haien lan-ibilbideak garatzeko tresna gisa), guztira 9 ekintza izan ditu eta guztira 38.800 onuradun; hala, aurrekontuaren % 36 egikaritu du ia.

  Horien barruan, bereziki nabarmentzeko modukoa da gaitasunak egiaztatzeko programa, 22.000 gazterengana heldu dena; horiei guztiei enplegagarritasuna hobetzen lagundu zaie, laneko esperientziaren eta trebakuntzako bide ez-formalen bidez eskuratu dituzten gaitasunak egiaztatzen lagunduta. Bestetik, nabarmentzekoa da lanbide-heziketako ziklo guztietako ikasleek lan-zentroetan trebakuntza praktikoa jasotzeko ekimena ere; guztira 10.000 ikaslek esku hartu dute 2016an. Horrek esan nahi du helburu horretarako aurreikusitako onuradunen % 12,5 bildu duela ekimen horrek, eta egiazko lan-egoera batean egin dutela trebakuntza-jarduera, ikasleek euren lanbidearekin lotutako jarduerak gauzatuta.

  Gainera, EHUrekin sinatutako lankidetza-hitzarmena ere azpimarratzeko da, makina-erremintako ikasgela bat martxan ipintzeko, ingeniaritzan eta sektore horretako ikasgaietan titulazioa duten gazteei begira, baita aeronautika-ikasgela bat ere. Halaber, teknologia aeronautikoetan espezializatzeko ikastaro bat ere prestatu da, eta, hari esker, urtero 50 ikaslek trebakuntza espezializatu hori jasotzen dute EAErako oso garrantzitsuak diren jarduera ekonomikoko lerroetan.

- Nabarmendu beharreko beste esku-hartze lerro bat 2.2.2 izan da (lanbide-prestakuntza eta aurretiaz lan-eskarmentua izateko bide ematea, eskuratu diren ezagutza teorikoak gauzatzeko moduan). Lerro horren barruan, hainbat programa garrantzitsu biltzen dira, hala nola Lehen Aukera programa, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko laguntzak eskaintzen dituen diru-laguntzen bidez artikulatua. Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-programa hori tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatzera bideratuta dago. Praktikaldiko kontratua edo lan-kontratu mugagabea egiten da eta, hala, gazteen enplegagarritasuna bultzatu nahi da, baita gazte horien laneratzea ere. Horrenbestez, ikasketak amaitu berri dituzten 1.500 gazte inguruk lehendabiziko lan-aukera izan dute, hezkuntza-bizitzatik lanbide-bizitzarako jauzia egin ahal izateko.

  Era berean, nabarmentzekoa da Hezibi programa ere. Lanbide-heziketa dualeko eredua da, eta lana eta ikasketak uztartzeko aukera eskaintzen du, trebakuntza-zentroaren eta enpresaren artean garatzen den prestakuntza-prozesu baten bidez. Hala, ikasle langileak prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratu bat sinatzen du enpresan. Prestakuntza dualak gero eta presentzia zabalagoa du eta enpresek ere gero eta gehiago eskatzen dute; hori horrela izanik, onura handiak sortzen dituen eredua dela frogatuta dago. Eskura dugun informazioaren arabera, 8.620 ikaslek baliatu dute programa hau 2014 eta 2016 artean.

- Bestalde, 2.2.3 esku-hartze lerroarekin loturik (unibertsitateko ikasleei lan-merkatuan sartzeko behar dituzten gaitasunak ematea), jarduera bakarra izan du: Global Training bekak. Beka horiek 2012an sortuak dira, eta guztira 1.150 gaztek baliatu dituzte III. Gazte Planaren indarraldian. Helburua zera, EAEko gazteen nazioz haraindiko mugikortasuna sustatzea, euren profil akademikoarekin lotutako jarduerak eta proiektua gauzatzeko atzerriko erakundeetan, aldez aurretik antolatutako prestakuntza praktikoko plan batekin. Nabarmendu behar da 2016ko deialdiak plaza kopuruan % 11ko hazkundea izan duela aurreko urteekin alderatuta, eta guztira 410 beka eman direla.

Efikaziaren balioespena

Helburu horri erantzuteko diseinatutako jardueren multzoak zera bilatzen du, prestakuntzaren eta lan-merkatuaren arteko lotura garatzea, jasotzen den prestakuntzaren eta enplegu-aukeren artean egokitzapen-maila handiagoa lortzeko. Hartara, eta batez ere trebakuntza-beken, lankidetza-hitzarmenen eta kontratazio-laguntzen bitartez, hainbat jarduera diseinatzen dira helburu hori erdiesteko.

Neurri horien efikaziari buruzko analisi espezifiko bat egin ezin bada ere, zalantzarik gabe lanean dago jarraitu beharra hezkuntzaren eta enpresen arteko lotura estutzeko, lan-merkatuaren eskariaren arabera, trebakuntza-eskaintza egokitzeko eta lanbide-kolektibo jakin batzuen langabezia-tasa handiak poliki-poliki amaitzeko, jakinik horietan lan-eskua ez dagoela erabat estalita.

**2.3. helburua. - Gazteen laneratzea hobetzea, politika koordinatua sustatuz enplegua sortzeari eta mantentzeari begira, baita haren kalitatea hobetzeko ere, diskriminazio anizkoitzeko egoeran izan litezken pertsonak azpimarratuz.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

2.3.1.- Gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteak laneratzeko bide ematea.

2.3.2.- Gazteei enplegu-politikei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza ematea.

2.3.3.- Politika koordinatua sustatzea, gazteentzako lanpostuak sortzeko eta haiei eusteko, eta, horretarako, ekintza positiboko neurriak hartzea eta zerga-abantailak aplikatzea, kontratazioaren arloan enpresen konpromisoa sustatzeko.

2.3.4.- Gazteak lehen sektorean laneratzea eta bertan mantentzea sustatzea, belaunaldien arteko ordezkapena sustatuz.

2.3.5.- Tokiko korporazioen parte-hartzea handitzea enplegua sortzeko programetan.

2.3.7.- Gazteen istripu-tasa murriztea, generoen arteko desberdintasunei erreparatuz.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Helburu honek jasotzen du enpleguaren arloko aurrekontu-dedikaziorik handiena: 66 milioi euro baino gehiago lan-munduratzea hobetzeko 2014 eta 2016 artean. Dena dela, zehaztu behar da, eskura dugun informazioa kontuan izanda, helburu honetan pisu handiena duten jardueren aurrekontu-dedikazioa ezin izan dela banakatu, zehazki gazteen kolektibora bideratutakoa bereizteko. Hori da, esate baterako, enplegu-zentro berezietan desgaitasunak dituzten pertsonek lanpostuei eusteko emandako soldatetarako diru-laguntzen kasua (horretarako 30,5 milioi euroko aurrekontua egikaritu da, % 33tik gorako desgaitasun-maila dutenei bideratuta, baina ez dakigu horietatik zenbat sartuko liratekeen gazteen kolektiboaren barruan).

Gráfico 2.11: Presupuesto ejecutado por línea estratégica



Honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, aurrekontuen arteko desbideratzeari dagokionez, 2.3.1 lerroa nabarmentzen da (gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteak laneratzeko bide ematea).

Gráfico 2.12: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Helburu hori betetzeko estaldurari buruz emandako informazioa oinarri hartuta eta bildutako jardueren % 62ren onuradunei buruzko informazioa bakarrik dugula jakinda, adierazi dezakegu orotara 42.254 pertsona izan direla. Nabarmendu behar dugu horietatik 19.553 gazte gisa daudela identifikatuta, eta gainerakoak, berriz, kolektibo orokorrago gisa daude definituta; baliteke azken horien artean ere gazteak izatea, nahiz eta identifikatuta egon ez (langabeak, desgaitasuna dutenak, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak eta abar).

Zehaztasunetara igarota, honako balioespen hauek egin ditzakegu.

- Lerro nagusietako bat gizarte-bazterketako arrisku-egoeretan dauden gazte langabeak lan-munduan txertatzeko bidea egitearekin lotutakoa izan da.

  Alde horretatik, gazteen azpikolektibo horretara bideratutako hainbat ekintza ipini badira ere martxan, zera nabarmenduko genuke, dedikazioa, aurrekontu-ahalegina eta gazte onuradunen irismena, trebakuntza-zentroetara bideratutako diru-laguntzei dagokienez, trebakuntza-ekintza kualifikatzaileak eta transbertsalak eskaintzeko. Horien bitartez, nagusiki langabeei bideratutako trebakuntza-jarduerak programatzen dira, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko ekintzetarako, profesionaltasun-ziurtagiriekin lotu gabeko enpleguarentzat garrantzitsuak diren trebakuntza-ekintzetarako eta lan-aurreko ekintzetarako zein gaitasun erabakigarrietarako pentsatuta. Guztira 15.300 gazteri baino gehiagori eskaini die trebakuntza enplegurako eta lanekoak ez diren praktikak trebakuntzarekin lotutako enpresetan 2015 eta 2016 bitartean, parte hartzen duten pertsonak lan-munduan txertatzeko aukerak handitzeko xedez.

  Gazteen kolektiborako datu espezifikorik ez baldin badaukagu ere, nabarmentzekoak dira enpleguko zentro berezietan desgaitasunak dituzten pertsonen lanpostuei eusteko emandako soldatetarako diru-laguntzak ere. Enpleguko zentro berezien bidez, desgaitasunak dituzten pertsonak lanpostu bat izateko eta bertan jarraitzeko modua izaten dute, lanbide-jarduera babesten duten unitateak osatuta. Diru-laguntzen lerro horretarako egikaritutako aurrekontua 30,5 milioi euro baino gehiago izan zen 2015 eta 2016 artean; guztira desgaitasuna duten 8.700 pertsonak baino gehiagok baliatu dituzte 2015ean, eta 83 zentrok zehazki 2016an.

  Beste jarduera batzuk ere garatu dira bide horretatik: Sendotu programa, laneratze-enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza-programak, edota IDA programaren tankerako ekimen berritzaileagoak, desabantaila-egoeran dauden pertsonak trebatzeko eta lan-munduan txertatzeko aukerak hobetzera

bideratuak EBko beste herrialde batzuetan. Integrazio soziolaboraleko azken proiektu hori trukearen bidez mamitzen da. Prestakuntza-ikastaro bat eta hizkuntza ikastekoak ditu, enpresetan praktikak antolatzen ditu, eta haietarako eskaintzen den prestakuntza eskaintzen du, baita tutoretza ere praktikaldian zehar. Guztira 58 gaztek parte hartu dute programa honetan 2015ean eta 2016an zehar.

- Gazteei eskainitako informazioa, orientazioa eta laguntza bereziki garrantzitsua eta beharrezkoa da gazteek eskura dituzten zerbitzu guztietara ahalik eta modurik onenean gerturatzeko, lan-munduan txertatzeko aukerak hobetzeko.

  Alde horretatik, Lanbideren bitartez enplegurako orientazio- eta laguntza-zerbitzu hau eskaintzen da gazteentzat (orientaziorako deialdi bakarraren zati gisa). Deialdi horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik kanpoko entitateen laguntza behar duten orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak zehazten dira, eta horiek finantzatzeko deialdia egiten da. Gainera, espazio fisiko egonkorrak diren enplegu-zentroak ere diruz laguntzen dira. Horietan, kanpoko erakunde laguntzaileek erabiltzailearen edo eskatzailearen eskura jartzen dituzte enplegua bilatzeko hainbat baliabide, hark bere kasa kontsulta ditzan, baita orientatzaile bat ere, lan-munduan sartzeko eta horretarako tresnak erabiltzeko laguntza pertsonalizatua emango diona. 2015erako eskura ditugun datuen arabera, 55.632 lagun baino gehiago (25.549 emakume eta 30.083 gizon) artatu ziren, eta horietatik 10.265 ziren gazteak (guztizkoaren % 18).

  Gazteen kolektibora iristeko kanalen bilaketaren eta orientazio-zerbitzuak gerturatzearen beharrez, Eusko Jaurlaritzak, Lanbideren bitartez, hainbat lankidetza-hitzarmen sinatu ditu Euskadiko unibertsitateekin (EHU, Deustu eta Mondragon). Azkeneko hiru urteetan guztira 0,6 milioi euro bideratu ditu hitzarmen horietara, eta zentro akademiko horietako 1.840 ikasle inguruk baliatu dituzte.

- Bestetik, nabarmentzekoak dira enplegua sortzeko programetan toki-korporazioen partaidetza handitzera bideratutako laguntza-lerroak. Proiektuen hainbat tipologia babestera bideratutako laguntzak identifikatu dira, urtean 20 milioi euro inguruko aurrekontu-zuzkidurarekin, eta gutxienez 1.610 gazte langaberengana iritsi dira.

  - 1. motako proiektuak. Enplegua sustatzea. Ezohiko merkatuan egindako kontratazioak, lan-munduan txertatzeko arazo bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna handitzea helburu dutenak, euren kualifikazioa edota gaitasun pertsonalak zein motibazioa indartzera bideratutako aldi baterako lan-esperientziarekin.

  - 2. motako proiektuak. Kontrataziorako laguntzak. Ohiko merkatuan egindako kontratazioak, lan-munduan txertatzeko arazo bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna handitzea helburu dutenak, euren kualifikazioa edota gaitasun pertsonalak zein motibazioa indartzera bideratutako aldi baterako lan-esperientziarekin.

  - 3. motako proiektuak. Ohiko merkatuan bertako enpresek langabeak kontratatzeko. Gutxienez hiru hilabeteko iraupenarekin, laguntzaren zenbatekoa handitu egiten da, baldin eta lehen lanpostua izango duten 35 urtez azpiko gazteak kontratatzen badira. Ekintza horiek langabeziak bereziki eragindako eskualde eta udalerrietara daude bideratuta.

- Azkenik, eta laneko ezbehar-tasarekin loturik, bi ekimen nabarmendu behar dira (batez ere baliabide propioekin zabalduak eta, hortaz, aurrekontu espezifikorik gabeak), lanbide-heziketako eta unibertsitateko ikasleen artean laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzeko, baita, oro har, gazte okupatuen laneko ezbehar-tasaren eraginari buruzko informazio eguneratua emateko ere. Lehendabiziko kasuan 600 ikasle ingururengana iritsi da ekimena; bigarren kasuan, berriz, 1.500 izan dira onuradun (gazte-politiketan jarduten duten erakunde publikoak eta bestelako entitateak, profesionalak, bitartekariak eta gazteekin lan egiten duten eragileak, gazteak eta gizartea, oro har).

Efikaziaren balioespena

Alde horretatik, nahiz eta informazio zuzenik izan ez efikaziari buruzko ebaluazioa egiteko, hainbat balioespen egin ditzakegu.

- Gazteen kolektiboko lan-munduratzea da Eusko Jaurlaritzako arduradun publikoen kezka nagusietako bat; izan ere, krisi ekonomikoak eragin berezia izan du EAEko gazteen artean. Hala, 18 eta 29 urte bitarteko pertsona aktiboen arteko langabezia-tasa laukoiztu egin da 2008 eta 2014 artean, % 7,3 izatetik % 29,5 izatera.

  Alde horretatik, bitartekoak ezarri dira jarduerak hainbat esparrutatik abiarazteko (orientazioa eta informazioa, aholkularitza, kontrataziorako laguntzak eta abar). Koiunturan izandako hobekuntzek eta erakundeek egindako ahaleginek inpaktu positiboa izan dute gazteen langabezia-tasa hobetzeko bidean, ia ehuneko sei puntu murriztu baita 2016an, % 23,7ra iritsita. Oso handia izaten jarraitzen du, populazio orokorraren tasaren bikoitza baita, eta EB28ko batezbestekotik gora dago. Horrenbestez, arreta bereziarekin jarraitu beharra dago lanean datozen urteetan ere.

- Bestetik, laneko ezbehar-tasaren adierazleak izandako bilakaerari erreparatuta, nabarmendu behar da bajadun laneko istripuen kopuruak, 16 eta 34 urte bitarteko populazio okupatuan, adin bereko 1.000 pertsona okupatuko, beherakada nabarmena izan duela oso azken hamarkadan. Dena dela, 2014 eta 2015eko datuei erreparatuta, aipatu behar dugu apurtxo bat handitu dela (% 34,3tik % 36,4ra).

**2.4. helburua. - Espiritu ekintzailea handitzea, gaitasun ekintzaileak hasierako etapetatik bultzatzeko asmoa duen politika koordinatu baten bitartez.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**2.4.1.-** Gazteen artean espiritu berritzaile eta ekintzailea sortzea eta sustatzea.

**2.4.2.-** Politika koordinatua garatzea, gazteek autoenplegua eta enpresak sortzea sustatze aldera, kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez.

**2.4.3.-** Nekazaritzaren sektorean sartu nahi duten gazteei prestakuntza ematea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Egikaritutako aurrekontuaren % 53,9 (guztira 5 milioi euro inguru 2014 eta 2016 artean), espiritu ekintzailea gaztetatik sustatzeko helbururako, gazteen artean espiritu berritzaile eta ekintzailea sortzeko eta sustatzeko esku-hartze lerrora bideratu da, eta % 43,1, berriz, politika koordinatua garatzera, gazteek autoenplegua eta enpresak sortzea sustatze aldera, kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez.

Gráfico 2.13: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Aurrekontuen batez besteko egikaritze-maila % 68ra iritsi da programatutako aurrekontuaren aldean, eskura dagoen informazioak dioenez. Banaketa honako grafiko honen bidez dago jasota.

Gráfico 2.14: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Helburu horrekin zabaldutako jardueretarako eskura dagoen informazioak, gutxienez, 39.329 onuradun identifikatzeko bidea egiten du, batez ere gazteak, nahiz eta informazio guztia ez dagoen banakatuta kolektibo horretarako. Ekintza desberdinen analisi xeheagori jarraikiz, hainbat alderdi nabarmendu ditzakegu.

- Hainbat ekimen nabarmentzen dira espiritu ekintzailea garaiz sustatzeko hezkuntzaren esparruan, eta ekintzailetza-kultura eta enpresaren mundua eraman nahi dituzte ikasgeletara, ekintzailetza-gaitasunak garatzea indartuta (sormena, berrikuntza, talde-lana, erabakiak hartzea, ekimena, lidergoa, konpromisoa eta determinazioa, negoziazioa eta abar), beste kultura eta gizarte-errealitatea batzuetara gerturatzea estimulatuta eta ikastetxeen arteko lankidetza sustatuta.

  Programa horiek –Ikasenpresa eta Urrats Bat– guztira 0,9 milioi euro inguru bideratu dituzte (programatutako aurrekontuaren ia bikoitza), eta 36.700 hartzaile gazte izan dituzte.

- Ekintzailetza-proiektuei eskainitako zuzeneko laguntzei dagokienez, alor sozialeko ekintzailetzaren esparrua nabarmendu behar da, gazteekin loturik. Alde horretatik, hainbat laguntza-lerro zabaldu dira, gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko laguntza integrala eskaintzera bideratuak (gizarte-ekonomiako enpresak sortzea edota enpresa arruntak gizarte-ekonomiako enpresa izatera igarotzea),

gazteetan arreta berezia ipinita (junior kooperatibak). Gutxienez 2,1 milioi euro bideratu dira, eta guztira 1.200 lagunengana iritsi dira ekimenok.

Efikaziaren balioespena

Lan-munduan txertatzeko bide gisa ekintzailetza sustatzea aspaldian lantzen ari den esparrua da. Krisialdiaren gogortasun bereziak gazteak zein nagusiak ekintzailetzara bideratu ditu autoenplegurako bide gisa. Dena den, ekintza publikoaren xedea ekintzailetza sustatzea da, enpresa-proiektua hazteko aspirazioarekin, proiektuen babesari esker enpresa-proiektuak sendotu daitezen eta enplegu gehiago eta kalitate handiagokoa sortzeko bide gisa hazteko.

Global Entrepreneurship Monitor etxeak 2016an Euskadirako egindako datuei erreparatuta, hasierako fasean dauden ekintzaileen % 33 baino gehiago 34 urtez azpiko gazteak dira, eta ehuneko hori nabarmen murrizten da kontsolidatutako ekintzaileak aztertzeko garaian[3] .

Dena dela, EAEn norbere konturako lanak ez dauka indar handirik gazteen kolektiboaren artean: okupatutako pertsonetatik % 6,3k bakarrik lan egiten zuen norbere kontura 2015ean. Ehuneko hori murriztu egin da 2013tik, orduan % 9,5 baitzen. Gainera, hamar gaztetatik zazpik ez du pentsatu ere egin norbere kontura lanean hasterik.

*Distribución por edad según las etapas del proceso emprendedor. CAPV 2016*




| | Persona emprendedora potencial (próximos 3 años) | Persona emprendedora en etapa inicial | Persona emprendedora consolidada |
|---|---|---|---|
| 18-24 | 18,8% | 1,5% | 0,0% |
| 25-34 | 20,4% | 31,9% | 4,1% |
| 35-44 | 29,8% | 39,3% | 22,4% |
| 45-54 | 16,7% | 18,2% | 37,7% |
| 55-64 | 14,4% | 9,1% | 35,9% |

Fuente: GEM CAPV (APS, 2016).

[3] Txosten osoa irakurtzeko: http://www.gem-spain.com//wp-content/uploads/2015/03/Informe-GEM-CAPV-2016.pdf

## 3. arloa. Etxebizitza




### Ekintzen deskribapen orokorra

<u>Etxebizitzaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia</u>

Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean izandako jarduna, III. Gazte Planean jasota bezala eta gazteen kolektiboarekin lotuta, alokairuaren aldeko lehentasunezko apustua izan da, Euskadiko gazteen bizi-proiektuen garapena eta ongizatea posible egingo duten politikak garatzeko borondatetik abiatuta. Hori guztia gazteen kolektiboari bereziki eragin dion krisi ekonomikoaren 2014 eta 2016 arteko testuinguruan; izan ere, gazteontzat enplegu bat izateko itxaropen negatiboen aurrean, ikasketak egiten jarraitzea izan da bide bakarra, lan-merkatura irteteko prozesua atzeratzea eta, horrenbestez, emantzipazioa ere gerorako utzi beharra.

Egoera hori garbi geratzen da Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako analisietan; horietan jasotzen denez, denbora-tarte horretan gazteen emantzipazio-tasa ehuneko lau puntu inguru jaitsi da. Nolanahi ere, egoera ez da krisia hasi zen urteetan bizi zenaren oso bestelakoa (2007 eta 2008), neurri handi batean diru-sarrerak bermatzeko errentari, etxebizitzako prestazio osagarriari edota babestutako alokairuko etxebizitza-parkeko sarrerari esker. Hala, 2016an babestutako etxebizitzaren esleipenen erdia baino gehiago (% 55) 35 urtetik gorako pertsonentzat izan ziren EAEn, eta alokairu-kontratuen % 21,1, berriz, gazteek sinatu zituzten.

Era berean, ebaluazio-plan honen horizontean izan den gertaera bat ere nabarmendu behar da. 2015ean Etxebizitzaren Legea onartu zen, aitzindaria Espainiako Estatuan jasotzen dituen gizarte-eskubide aurreratuengatik, eta, hala, lehendabizikoz aitortzen du Estatuan etxebizitzarako eskubide subjektiboa, osasunarekin edo hezkuntzarekin parekatuta. Horrez gain, etxebizitza hutsen penalizazioa ere gehitu da, eta administrazioak behartzen ditu erabateko lehentasuna/esklusibotasuna ematera alokairuko etxebizitzak sustatzeari.

<u>Etxebizitzaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak</u>

1. ardatzaren barruan –Emantzipazioa eta autonomia–, III. Gazte Planak honako bi erronka hauek biltzen ditu etxebizitzaren alorreko enuntziatu estrategikoan.

- Gazteei etxebizitza lortzen laguntzeko politikak sustatzea. Horretarako, eskuratzeko moduko prezioa duen eskaintza koordinatua sortu beharko du Administrazioak etxebizitza-parke publikoa handituta. Hori egitean, lehentasuna eman behar zaio alokairuari erosketaren aurrean; hutsik dauden etxebizitzak erabili behar dira, eta laguntza sustatu.

- Gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduen dibertsifikazioa zaintzea. Etxebizitzak erabiltzeko eta horiek jabetzan izateko modu eta eredu are malguago eta berriagoak erabili behar dira, etxebizitzaren merkatua are malguagoa izan dadin eta merkatu hori familia-egituren, lurralde-mugikortasunaren eta gizartearen beste aldaketa batzuetara egokitzeko.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 2 helburu estrategiko, 5 esku-hartze lerro eta 9 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek etxebizitzaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin**.

Ondoren, etxebizitzaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| **1. ARDATZA.- EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA** |
|---|
| **3. arloa. Etxebizitza.** |
| **3.1.- Zailtasun funtsean ekonomikoak dituzten gazteek etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzea, etxebizitzen eskaintza handituz eta alokairua lehenetsiz.** |
| **3.1.2.-** Etxebizitza hutsa mobilizatzea, babestutako alokairu-merkatuan sar dadila ahalbidetuz, Etxebide Zerbitzuan izena eman duten eskatzaileentzat, bereziki erreparatuta zailtasun funtsean ekonomikoak dituzten gazteei, eta genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenei.<br><br>**3.1.3.-** Pisu eta eraikin hutsak mobilizatzea, babestutako alokairu-merkatuan sar daitezela ahalbidetuz, Etxebide Zerbitzuan izena eman duten eskatzaileentzat, bereziki erreparatuta gazteei eta genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenei.<br><br>**3.1.4.-** Gazteei informazioa, orientazioa eta laguntza ematea etxebizitza eskuratzeko neurri publikoen eskaintzari buruz. |
| **3.2.- Bizileku-eredu berrien garapena sustatzea, gazte-tipologia desberdinei eta haien premiei erantzuteko.** |
| **3.2.1.** Babestutako alokairu-etxebizitzen eraikuntza sustatzea, emantzipatu nahi duten gazteen beharretara bereziki egokitutako eraikuntza-ezaugarriekin eta araubide ekonomikoarekin.<br><br>**3.2.2.** Gazteen artean ezagutzera ematea Etxebizitza Sailak abian jarritako webgunearen bidez babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko mekanismoa, eta haren erabilera sustatzea. |

Helburu estrategikoko jardueren banaketak erakusten du **argia dela 3.1 helburuaren nagusitasuna, gazteen etxebizitza eskuratzeko baldintzak hobetzea (% 78)**, 3.2 helburuarekin alderatuta (eredu berriak sustatzea), gainerako % 22 sailkatzen baita azken horretan.

Gráfico 3.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




Metatutako aurrekontu-dedikazioaren analisiak erakusten duenez, **bitartekoak banatzeko pisua modu orekatuagoan banatu da hiru urteetan**, eta % 57 egikaritu da 3.1 helburuari erantzuteko, eta % 43, berriz, 3.2 helbururako.

Honako grafiko honek erakusten du etxebizitzaren arloak egikaritutako aurrekontuaren banaketa, helburu estrategikoetako bakoitzaren arabera.

Gráfico 3.2: Presupuestos ejecutados por objetivos estratégicos




<u>Aurrekontu-ikuspegi orokorra</u>

**2014 eta 2016 artean, 33 milioi euro baino gehiago bideratu dira etxebizitzaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren % 5,8.**

Gráfico 3.3: Presupuestos programados y ejecutados entre los años 2014 y 2016




Aurreko grafikoan ikusten denez, planak indarrean iraun duen urteetan egikaritutako aurrekontua murrizten joan da; hala 2015ean eta 2016an egikaritutako aurrekontua 2014an egikaritutakoa baino % 40 txikiagoa izan da.

Programatutako aurrekontuaren desbideratzeari erreparatzen baldin badiogu, nabarmendu behar dugu, 2014an izan ezik, gainerako urteetan ez dela egikaritu osorik programatutako aurrekontua.

**Hiru urteko epealdi osorako, etxebizitzaren arloarekin lotuta egikaritutako aurrekontuak programatutako aurrekontuaren % 88 izan dira.** Ebaluazioan ikusten den moduan, eta ekintza batzuetarako dugun informazio-faltaren eraginez, datu hori gutxi gorabeherakoa izango litzateke.

Gráfico 3.4: Presupuesto programado y ejecutado para el Área de Vivienda




Helburu estrategiko bakoitzerako programatutako eta egikaritutako aurrekontuari dagokionez, alde nabarmena ageri da bien artean: 3.1 helbururako bideratutako aurrekontuaren kasuan % 21ean gainditu da, eta 3.2 helburuaren kasuan, berriz, programatutakoa baino % 35 beherago geratu da.

Gráfico 3.5: Presupuesto programado y ejecutado por cada objetivo estratégico del Área de Vivienda (2014 - 2016)




<u>Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza</u>

*Gazteak helburu*

Etxebizitzaren arloak modu orokorrean jarduten du; edonola ere, gazteen kolektiboa oso presente dago arloaren lehentasunen artean, ekintza publikoa diseinatzeko garaian. Arrazoi hori dela eta, jardueren onurak izan dituen kolektiboari buruzko informazioa banakatu daiteke, eta gazteen kolektibora bideratutako ekintzak, hortaz, identifikatuta daude. Horren arrazoia etxebizitzaren arloaren beraren analisi-gaitasuna da, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak posible egiten duena, neurri handi batean. Hori dela eta, baieztatu dezakegu arlo honetan bildutako ekintzen % 78 gazteen kolektiboaren ikuspegitik aztertu ahal izan direla, informazio oinarrizkoa kolektibo horretarako bakarrik aterata. Horrenbestez, ez dago datu «kutsaturik» beste adin-tarte batzuetako kolektiboei buruzko informazioarekin.

Hala, III. Gazte Planean etxebizitzaren arlorako bildutako ekintzen % 78 horretan, gazteentzako informazio espezifikoarekin, egikaritutako aurrekontuaren % 99 hartu dute; hau da, 32,9 milioi euro Euskadiko gazteen kolektibora bideratu dira.




*Transbertsalitatea etxebizitzaren arloan.*

Gazteentzako etxebizitzaren arloko ekintzak egiterakoan izandako transbertsalitate-maila apala izan da. Horren arrazoia etxebizitzarekin lotutako ekintzen euren ezaugarriak dira, oro har, oso espezializatuak baitira. Hala, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak berak garatu ditu ekintza gehienak, bai zuzenean, bai sailari atxikitako sozietate publikoen bitartez (Visesa eta Alokabide).




Etxebizitzaren arloko kasu konkretuan, jardueren % 11k ageri dute transbertsalitatea; kasu honetan, bereziki etxebizitzaren arloko neurri publikoei zabalkundea ematera bideratuta. Horretarako ez da aurrekontu esleiturik identifikatu, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, aurrekontu hori webguneen mantentze-lanetarako aurrekontu orokorraren barruan sartzen da, baita Zuzenean zerbitzuaren aurrekontuaren barruan ere. Hori dela eta, praktikan, esan genezake etxebizitzaren kasuan transbertsalitatea ez dela aplikatzen, eta III. Gazte Planean bildutako ekintzak oso-osorik Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailburuordetzak zehaztu eta egikaritu dituela.

*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza*

Planean kontuan hartutako ekintzei buruzko eskura daukagun informazioaren arabera, ez da izan Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileekin jardun beharreko ekintzarik.

## Emaitzen ebaluazioa, helburu estrategikoaren arabera

### 3.1.- Zailtasun funtsean ekonomikoak dituzten gazteek etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzea, etxebizitzen eskaintza handituz eta alokairua lehenetsiz.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

| |
|---|
| 3.1.2.- Etxebizitza hutsa mobilizatzea, babestutako alokairu-merkatuan sar dadila ahalbidetuz, Etxebide Zerbitzuan izena eman duten eskatzaileentzat, bereziki erreparatuta zailtasun funtsean ekonomikoak dituzten gazteei, eta genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenei. |
| 3.1.3.- Pisu eta eraikin hutsak mobilizatzea, babestutako alokairu-merkatuan sar daitezela ahalbidetuz, Etxebide Zerbitzuan izena eman duten eskatzaileentzat, bereziki erreparatuta gazteei eta genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenei. |
| 3.1.4.- Gazteei informazioa, orientazioa eta laguntza ematea etxebizitza eskuratzeko neurri publikoen eskaintzari buruz. |

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

3.1 helburua, alokairua lehenesten duena gazteei etxebizitza eskuratzeko lehentasunezko aukera gisa, III. Gazte Planean etxebizitzaren arloan bildutako 9 jardueretatik 7ren bitartez garatu da. Jarduera horiek ikuspegi bikoitz bat jasotzen dute (hainbat formularen bidez) etxebizitza-eskaintza handitzea, ahal dela alokairuan, baita gazteei jakintza, komunikazioa, aholkularitza, orientazioa eta laguntza sortzeko mekanismoak lantzea ere, emantzipaziorako bizi-ibilbiderako. Aurrekontu-informazioak helburu horretarako hiru lerro zabaltzea aurreikusten du (ikusten dugunez, lehendabiziko lerro estrategikoak hartzen du aurrekontu-ahalegina eta -dedikazioa, eskura dugun informazioaren arabera)[4].

Gráfico 3.6: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Egindako bederatzi ekintzen inguruko informazioa baldin badugu ere, jarduera horietako gutxitan da informazio hori nahikoa gazteen arteko egiazko estalduraren balioespena egin ahal izateko. Nolanahi ere, sailaren iturri propioen informazioa osatuz, honako baieztapen hauek egin ditzakegu.

- Etxebizitza hutsa alokairuan sustatzearekin lotutako ekintza, 2014-2016 aldian gazteentzako etxebizitzan ehuneko esanguratsu baten erreserba aurreikusten duena, bi programaren esparruan garatu da: Bizigune (etxebizitza hutsei buruzko programa honen xedea hutsik dauden etxeak topatzea da alokairu babestuan emateko) eta ASAP (programaren helburu nagusia titulartasun pribatuko etxebizitza hutsak merkatuan errentarientzako arrazoizko prezioan alokatzeko ipintzea da).

[4] Nabarmendu behar dugu, 3.1.3 lerroari dagokionez, jarduera horren garapenaren pilotua ez zela egin eskuratutako aldez aurreko dokumentuaren emaitzekin, eta, hortaz, ez da ageri esleitutako aurrekonturik.

Hala, datuek erakusten dute 35 urtez azpiko 1.180 gazte inguruk baliatu dituztela urtean batez beste bi programa horiek[5]. Jarduera horrek etxebizitzaren arlora bideratutako eta egikaritutako aurrekontuaren % 37 osatzen du.

Oro har, Etxebizitzaren Behatokiak etxebizitza-politikari buruz aztertutako informazioan ikus daitekeenez, 2016an Etxebiden eskatzaileen % 30,8 ziren 35 urtetik beherako gazteak.

Horrez gain, alokairu-araubideko etxebizitza babestuaren eskaria da handiena (2014an izena emandako 54.042 pertsonen % 73k alokairua bakarrik eskatzen zuten; 2015ean % 78 ziren 54.620 eskatzailetatik[6]). Hori dela eta, ondoriozta daiteke alokairua eskari zabala duen aukera dela, edozer dela ere eskatzailearen adin-tartea.

Hala, eskura ditugun 2014ko datuen arabera, gazteei alokatutako etxebizitzen ehunekoa, esleipen guztien artetik, % 39 izan zen; 2015ean ehuneko hori apur bat jaitsi zen, % 33ra, eta 2016an, berriz, % 27ra.

Horrela, 2014an errentamendu-araubidean zozketan emandako etxebizitzak 346 izan ziren, eta murrizketa nabarmena izan zuten 2015ean, araubide horretan bertan zozkatutako etxebizitzen guztizkoa 122ra jaitsi baitzen.

- Zaharberritzera bideratutako lerro estrategikoari dagokionez, berriz, hiri-apartzeriako etxebizitza publikoaren euskal etxebizitza-parkea ezartzeko bideragarritasun-analisia egin da; nolanahi ere, azterlanaren emaitzek eta osteko kontaktuek ez zuten lortu esperotako erantzuna. Hori dela eta, ekimena bertan behera utzi zen.

- Aholkularitzaren eta orientazioaren esparruan, batez ere Etxebidek izan du ekimen nagusia, nahiz eta bakarrik ez den aritu. Datuak adinaren arabera banakatuta ez badauzkagu ere, komunikazioaren,

| | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| Total consultas | 5.717 | 8.892 |
| Visitas web | 1.150.915 | 953.067 |
| Etxebide | 849.340 | 753.897 |
| Departamento de Vivienda | 194.763 | 135.139 |
| Bizilagun | 65.363 | 35.197 |
| Observatorio de Vivienda | 24.682 | 14.219 |
| Eraikal | 16.767 | 14.615 |
| Otras comunicaciones | 161.358 | 74.574 |
| Aviso de renovación bienal | 51.373 | 7.538 |
| Apertura plazo de inscripción | 46.192 | 14.526 |
| Baja o archivo de expediente | 32.512 | 10.778 |
| Subsanación de documentación | 16.662 | 23.245 |
| Alta | 5.719 | 9.168 |
| Denegación o archivo de inscripción | 4.598 | 5.584 |
| Admisión y exclusion a promotores | 4.302 | 3.735 |
| Invitación al sorteo | - | - |

5 ASAP eta Bizigune programek maizterren adina jasotzen ez badute ere, kalkuluen arabera etxebizitzen % 25 hartzen da, Plangintzako Zuzendaritzak berak egindako zenbatespenen arabera.

6 Etxebizitzako politika integralen ebaluazio-txostenaren arabera (2015ekoa, datuak ditugun azken urtea, txosten hau prestatzean oraindik argitaratu gabe baitzeuden 2016koak).

aholkularitzaren eta difusioaren alorrean egindako lana[7] honako taula honetan geratzen da jasota.

- Bestalde, egindako azterlan espezifikoa argitaratzea eta zabaltzea («Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa», «Krisia eta gazteen emantzipazioa Europan» eta «Bizitegi-emantzipazioaren kostua») 4.300 pertsona, entitate eta erakundetara baino gehiagotara iritsi dira, ikerketa horietako bakoitzarekin lotutako albisteak zuzenean jaso baitituzte.

Efikaziaren balioespena

Ez daukagu informazio espezifikorik, hartutako neurrien efikazia osorik balioesteko aukera ematen duenik. Nolanahi ere, hainbat ondorio atera ditzakegu.

- Difusio- eta dibulgazio-lanak (prentsako eta beste komunikabide batzuetako kanpainak, eta webguneen bidez egindakoak) urtean 4.700 etxebizitza baino gehiago mugiarazi ditu alokairuan emateko, bai Bizigune programan, bai ASAP programaren barruan.
- Erabiltzaileek Etxebideren zerbitzuarekin duten satisfazio-maila igo egin da: 100 puntutik 57,9 zen 2013an, eta 59,3 izan zen 2015ean.

**3.2 helburua.- Bizileku-eredu berrien garapena sustatzea, gazte-tipologia desberdinei eta haien premiei erantzuteko.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

| |
|---|
| **3.2.1.** Babestutako alokairu-etxebizitzen eraikuntza sustatzea, emantzipatu nahi duten gazteen beharretara bereziki egokitutako eraikuntza-ezaugarriekin eta araubide ekonomikoarekin. |
| **3.2.2.** Gazteen artean ezagutzera ematea Etxebizitza Sailak abian jarritako webgunearen bidez babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko mekanismoa, eta haren erabilera sustatzea. |

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

3.2 helburu estrategikoak etxebizitzaren arloko aurrekontuaren % 43 egikaritu du 2014 eta 2016 artean, eta eremu honetan berrikuntza-osagaia txertatzen du; izan ere, bizitegi-eredu berriak bilatzen eta ezartzen saiatzen da, gazteen kolektiboak emantzipatzeko aukera izan dezan euren beharrizanen ikuspegia aintzat hartuta. Eskura dugun informazioa kontuan hartuta, 3.2.1 ildo estrategikora bideratu da baliabideen % 100, eta guztira 14 milioi euro baino gehiagoko aurrekontu-egikaritzea erregistratu du[8].

7 Etxebizitzako politika integralen ebaluazio-txostenaren arabera (2015ekoa, datuak ditugun azken urtea, txosten hau prestatzean oraindik argitaratu gabe baitzeuden 2016koak).

8 Permutarekin lotutako ildo estrategikoari dagokionez (webgunean mekanismo honi buruzko informazioa ematera bideratua), webguneen gastu orokorrean bildutako aurrekontuarekin egin da. Arrazoi hori dela eta ez da ageri banakapenean.

Gráfico 3.7: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Bizitegi-eredu berriak sustatzeko erronkari erantzuteko egindako ekintzak bi izan dira. Eskura dugun informazioak ez du uzten estalduraren analisi osoa egiten. Halere, honako puntu hauek nabarmendu ditzakegu.

- Alokairu babestuan emateko etxebizitzak eraikitzea sustatzera bideratutako ekintzen analisitik ondorioztatzen da ahaleginak egiten ari direla formula berriak topatzeko, kolektibo honentzat bereziki egokitutako etxebizitza eskuratzeko formula berriak topatzen.

  Hartara, hainbat aukera identifikatu dira, bitarteko formula gisa erabil daitezkeenak: erosketaren eta alokairuaren arteko formulak, erosteko aukera eta abar. Horiek etxebizitza-jabetza malgutzeko, errazteko eta modu mailakatuan jabetza sustatzeko bideak izango lirateke, pertsona eta bizikidetza-unitate horien bizi-eboluziora egokituta betiere. Araudiaren ikuspegitik, etxebizitza eskuratzeko figura berriei dagokienez, oraindik ere analisia egiteke dago.

  Alde horretatik, ADAS programa nabarmendu behar dugu (zuzkidura-bizitokiaren programa); aldi baterako ostatu-tipologia eskaintzen du, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzat, horien artean gazteak. Programa hori lehendabizikoz 2016an lotu zen Gazte Planarekin, eta urte horretako datuek erakusten dute ezaugarri horiekin 47 etxebizitza esleitu direla.

  ADAS programan bezalaxe, etxebizitza partekatuak ere badira. 2016an guztira 6 etxebizitza esleitu ziren modalitate horretan.

- Bestetik, gazteen artean Etxebizitza Sailak abian jarritako webgunearen bidez babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko mekanismoa ezagutzera emateko eta haren erabilera sustatzeko jarduera, hasierako plangintzaren arabera, 2014an gauzatu behar zen, eta ondoren berriro planifikatu zuten 2015erako. Hala, 2016an egikaritu da, eta urte osoan permuta bakarra izan du. Hortaz, emaitza ikusita, ez du jarraituko ondorengo urteetan.

Efikaziaren balioespena

Ez dago balioespena egiteko behar beste informazio. Nolanahi ere, komeni da nabarmentzea, 3.2.2 ildo estrategikoarekin loturik (gazteen artean ezagutzera ematea Etxebizitza Sailak abian jarritako webgunearen bidez babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko mekanismoa, eta haren erabilera sustatzea) eta ikusita permuta bakarra erregistratu dela, mekanismo hori eta haren difusioa aztertzen ari direla.

# 2. ARDATZA
# BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

**4. arloa. Osasuna**
**5. arloa. Gizarte-ekintza**
**6. arloa. Kultura**
**7. arloa. Aisialdia**
**8. arloa. Kontsumoa**
**9. arloa. Mugikortasun jasangarria**

## 4. arloa. Osasuna




### Ekintzen deskribapen orokorra

Osasunaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia

Osasuna da baliorik preziatuenetako bat, harexek ematen baitie pertsona guztiei euren asmoak eta bizi-helburuak energia osoz betetzeko eta euren aukerak arrakastaz gauzatzeko aukera[9]. Era berean, osasunik gabe, guztiz aktibo egoteko eta guztiz aktiboak izateko gaitasunak mugatu eta murriztu egiten dira. Eusko Jaurlaritzak hainbat osasun-plan garatu ditu erkidego baten osasunari eragiten dioten determinatzaile ugariei heltzeak dakarren erronkari erantzuteko, eta osasun-sistemaren zein inplikatutako eragileen politiken norabidea markatu ahal izateko. Osasun Plana (2013-2020) oinarrizko erreminta da osasun-zerbitzuetan efizientzia eta efikazia hobetzeko bidean, Osasun Antolamendurako 8/1997 Legeak ezartzen duen moduan, hura baita erreferentziazko araudia gaiarekin loturik. Hala, 13. artikuluak ezartzen du Euskadiko Osasun Plana izango dela sistemaren plangintza eta programazioa egiteko erreminta gailena.

Osasun-plan hori indarrean izan da III. Gazte Planaren indarraldian, eta lehentasun-eremuetako bat gazteei eskaintzen die.(Laugarren arloa. Haurtzaroan eta gazterian osasun-baldintzak eta -aukerak hobetzea. Haurrek eta gazteek osasunaren gainean dituzten eskumenak lantzen ditu, erabaki osasungarriak eta seguruak hartzeko). Hori dela eta, oinarrizko erreferentzia bihurtzen da osasunaren arloan ekintza publikoa bideratzeko garaian, gazteen testuinguruan. Erreferentzia hori ekintza publikoarekin osatzen da, hain zuzen, Jaurlaritzaren beste sail batzuetatik (segurtasuna, berdintasuna, hezkuntza, kirolak eta abar) honako helburu honekin garatzen baita: Gazteen egungo eta etorkizuneko bizi-kalitatean nabarmen eragingo duten erronka nagusiei erantzutea: ohitura eta jarrera osasungarriak, jarduera fisikoa eta kirola, elikadura eta elikadura-jarreren nahasmenduak, arrisku-kontsumoak, afektibitatea, sexualitatea eta sexu-transmisioko infekzioak, bide-segurtasuna, osasun mentala eta abar.

Testuinguru horretan, eta Euskadiko Gazteen Egoeraren 2017ko Diagnostikoaren arabera[10], osasun egoera hala-holakoa, txarra edo oso txarra dutela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak guztien artetik % 4,6 besterik ez dira, nahiz eta % 20,7k osasun-arazo kroniko, jarraitu edo iraupen luzeko bat duen eta % 13,7k antsietate- edota

[9] Osasun Plana 2013-2020

[10] Gazteen Euskal Behatokiak eta Gazte Aukerak egina.

depresio-arazoak aitortzen dituzten. Auzi horiekin kezkatuta eta lanpetuta ageri dira arduradun publikoak, eta ekintza publikoaren barruan biltzen ari dira, ahalik eta gehien murrizteko.

Osasunaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak

2. ardatzaren barruan –bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa–, III. Gazte Planak osasunaren arloko enuntziatu estrategikoa lau erronka estrategikoren gainean egituratu du, indarrean den denboran gazteen osasunaren arloa jorratzeko. Osasunaren kontzeptua dimentsio anitzetik lantzeko ikuspegiarekin, honako hauek izan ziren identifikatutako erronka estrategikoak:

- gazteek lehen baino hobeto ezagutzea osasun-baliabideen erabilgarritasuna eta erabilera;
- gazteek ohitura nahiz jokabide osasungarriak izan ditzatela sustatzea, osasunaren ikusmolde integral nahiz dimentsioaniztuna oinarri harturik;
- jokabide arriskutsuak prebenitzea eta murriztea, osasunaren ikusmolde integrala oinarri harturik;
- norbanakoen gain eta taldearen gain mugikortasunak dituen ondorio negatiboak murriztea.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 4 helburu estrategiko, 14 esku-hartze lerro eta 44 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek osasunaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin.**

Ondoren, osasunaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| |
|---|
| **2. ARDATZA.- BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA** |
| **4. arloa.- Osasuna** |
| **4.1.- Gazteen artean osasun-programa eta -zerbitzuen ezagutza, balorazioa eta erabilera ona indartzea.** |
| **4.1.1.-** Gazteentzako osasun-programak ezagutaraztea, eta gazteen hizkera, eremu eta kanalak erabiltzea horien ezagutza eta erabilera handitzeko, halakoak ezagutu eta erabiltzea eragotz dezaketen oztopo objektibo eta subjektiboak saiheste aldera. |
| **4.2.- Gazteek ezagutza, ohitura eta jokabide osasungarri gehiago berenganatzea.** |
| **4.2.1.-** Gazteei ohitura eta jokabide osasungarriak ezagutarazi eta horiei buruz sentsibilizatzea, hizkera, kanal eta eragile aproposen bidez.<br>**4.2.2.-** Osasunerako hezkuntza sustatzea hezkuntza-maila guztietan.<br>**4.2.3.-** Gazteen osasunarekin lotutako esku-hartzeen koordinazioa sustatzea.<br>**4.2.4.-** Arrisku-jokabideen prebentziorako prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei. |
| **4.3.- Osasunarekin lotutako arrisku-jokabideak murriztea, gazteei eragiten dieten eremu guztietan.** |
| **4.3.1.-** Gazteei zenbait arrisku-jokabideren berri ematea, eta hizkera, bitarteko eta eragile aproposak erabiliz sentsibilizazioa ematea.<br>**4.3.2.-** Prebentziozko jarduera garatzea osasun-arazo nagusiei aurka egiteko: trafiko-istripuei, mendekotasun-jokabideei, hiesari, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunei, nahi gabeko haurdunaldiei, elikadura-nahasmenduei, jarduera fisikorik ezari eta jokabide sedentarioan denbora handia emateari, nahasmendu mentalei eta laneko segurtasunari.<br>**4.3.3.-** Hezkuntzaren eremutik prebenitzea pertsonen osasunean eragin kaltegarria duten arrisku-jokabide nagusiak.<br>**4.3.4.-** Alkoholaren eta substantzia berrien kontsumoa murriztera zuzendutako neurriak indartzea.<br>**4.3.5.-** Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen kontrol eta prebentziorako ohiturak sortzea.<br>**4.3.6.-** Neurriak sustatzea bizimodu aktiboari bide emateko, garraiobide aktiboak erabiltzeko eta ariketa eta kirola egiteko aukera inklusiboak baliatu ahal izateko, gazteak sozializatzeko bide gisa. |

**4.3.7.-** Gazteen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen fenomeno, patologia eta jokabide berrien agerpena hautematea, zerbitzuak egokitu edo dagozkion ekintzak gauzatu ahal izateko.

**4.3.8.-** Jokabide osasungarriak sustatzeko prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei.

**4.3.9.-** Pobrezia, eskola-porrota nahiz familia-arazoak direla-eta arrisku- eta kalteberatasun-egoera handienean dauden talde edo kolektiboei zuzendutako esku-hartze prebentiboak sustatzea eta/edo horiekin elkarlanean aritzea, Adikzioen VI. Planarekin sinergian.

**4.4.- Errepideetan gazteen mugikortasunaren ondorioz izaten diren istripuen tasa murriztea.**

**4.4.1.-** Gazteen trafiko-istripuen tasa prebenitzeko jarduerak egitea, bide-hezkuntzaren bitartez.

**4.4.2.-** Errepideetako istripu-tasa eta ingurumen-inpaktua murrizteko arduraz gidatzeko beharrari buruz sentsibilizatzea, generoen arteko desberdintasunak kontuan hartuta.

Ikusten dugun moduan, **helburu horien xede nagusia zera da, Eusko Jaurlaritzak osasunaren, bizitza osasungarriaren ohiturak hartzearen eta osasunarekin zein mugikortasunaren inguruko arrisku-jokabideak murriztearekin lotuta dituen zerbitzuak eta programak gazteen artean zabaltzea**. Dena dela, gainerako guztien artetik 4.3 helburua nabarmentzen da (osasunarekin lotutako arrisku-jokabideak murriztea), bai egikaritutako aurrekontuari dagokionez, bai erantzuteko ekintza kopuruari dagokionez. Hurrengo grafikoan ikus dezakegu, helburuka banatuta, 2014 eta 2016 artean egikaritutako aurrekontuaren ehunekoa.

Gráfico 4.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




**Osasunaren arloa osatzen duten 44 ekintzetatik, % 59 (26 jarduera) arrisku-jokabideak murriztera bideratu dira; horietara ia bost milioi euro bideratu dira, hau da, osasunaren arloko aurrekontu orokorraren % 68.** Helburu horren atzetik, ohitura osasungarrien aldeko apustua nabarmendu behar da: guztira 10 ekintza izan ditu, eta milioi bat euroko baino gehiagoko aurrekontua ere bai.

Honako grafiko honek erakusten du osasunaren arloak egikaritutako aurrekontuaren banaketa, helburu estrategikoetako bakoitzaren arabera.




Aurrekontu-ikuspegi orokorra

**2014 eta 2016 artean, zazpi milioi euro baino gehiago bideratu dira osasunaren arloan planarekin loturik[11]; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren % 1,3.**




Aurreko grafikoan ikusten denez, planak indarrean iraun duen urteetan egikaritutako aurrekontua handitzen joan da; hala 2016an egikaritutako aurrekontua 2014an egikaritu zena baino % 60 handiagoa izan da. Horrez gain, programatutako aurrekontuetan ere murrizketa ageri da; izan ere, lehendabiziko urtean lau milioi eta erdiko gastua baino handiagoa aurreikusten zen, eta 2016an, berriz, lau milioi baino gutxiago izan zen, eskura dugun informazioaren arabera.

**Hiru urteko epealdi osorako, osasunaren arloarekin lotuta egikaritutako aurrekontuak programatutako aurrekontuaren % 62 izan dira.** Ebaluazioan ikusten den moduan, eta ekintza batzuetarako aurrekontu egikarituei buruz dugun informazio-faltaren eraginez, datu hori gutxi-gorabeherakoa izango litzateke.

[11] Emandako eta gazte-planaren segimendurako datu-basean erregistratutako informazioaren arabera.

Gráfico 4.4: Presupuesto programado y ejecutado para el Área de Salud




Planaren indarraldiko urte bakoitzerako programatutako eta egikaritutako aurrekontuari dagokionez, desbideratze garbiak ageri dira; hain zuzen, % 60koa. Izan ere, zortzi milioi euro inguru programatu ziren, eta ia bost exekutatu. Honako grafiko honetan dago jasota lau helburuen desbideratzea.

Gráfico 4.5: Presupuesto programado y ejecutado por cada objetivo estratégico del Área de Salud (2014 - 2016)




<u>Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza</u>

*Gazteak helburu*

Hasierako adierazleetan aipatzen genuen moduan**, III. Gazte Planean osasunaren esparruan jasotako ekintzen % 61ek gazteak zituzten xede.** Xede-populazioaren arabera egikaritutako ekintzen aurrekontuaren ikuspegiarekin jarraituz, **osasunaren arloan erabilitako aurrekontuaren % 84 –hau da, 7.261.843 €– Euskadiko gazteengana bideratu da**.




*Transbertsalitatea osasunaren arloan.*

Osasunaren arloa Osasun Sailean dago batez ere kontzentratuta, Osasun Publikoko eta Adikzioen Zuzendaritzan eta Osakidetzan bertan. Hala eta guztiz ere, arlo honetan Jaurlaritzaren beste bi sailek ere esku hartzen dute (zortzi zuzendaritzak orotara), eta esparru honetan identifikatutako erronkei erantzuna ematera bideratzen dute euren jarduna eta esperientzia. Jardunaren % 14an modu koordinatuan edo elkarrekin parte hartuta aritzen dira, eta batez ere bizitza osasungarrietan hezteko eta arriskuen inguruan sentsibilizatzeko jarduerak izaten dira, hainbat sailen arteko inplikazioa beharrezkoa baita, gazteen kolektibora modu efektiboan iritsi ahal izateko.




Honako grafiko honetan ikus daitekeenez, egikaritutako aurrekontuaren banaketa eta osasunaren arloan esku hartzen duten zuzendaritza bakoitzaren jarduera kopurua daude bilduta. Hala, Osasun Publikoko eta Adikzioen Zuzendaritzak biltzen du 2014 eta 2016 artean martxan ipinitako ekintzen % 57. Nolanahi ere, aurrekontuari dagokionez, Osakidetzak baliatutako aurrekontuaren % 1 baino ez du egikaritua; izan ere, aurrekontu propioz egiten ditu ekintzak (emandako informazioaren arabera, oso konplexua da gastua kolektiboaren arabera aztertzea kasu honetan). Osasun Publikoko eta Adikzioen Zuzendaritzak eta Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko

Gráfico 4.6: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Salud




Zuzendaritzak biltzen dute osasunaren arloan egikaritutako aurrekontuaren % 84.

*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza*

Osasunaren arloko lankidetzak hainbat ekintza planteatu ditu, zeinetan arduradunak kanpoko eragileekin lankidetzan izan baitira jarduera horiek mamitzeko garaian. Kasu honetan, osasunaren arloko jardueren % 50 inguruk kanpoko eragileekin parte hartu dute, hala nola elkarteekin, toki-erakundeekin, GKEekin edota bestelako gizarte-eragileekin. Jarduera horiek, nagusiki, informazioa, prebentzioa edota sentsibilizazioa lantzeko dira, eta hirugarrenekin lankidetzak izateak zabaldu beharreko mezua hobeto hedatzen laguntzen du.




Hala, guztira egikaritutako aurrekontuaren % 70 baino gehiago hirugarrenekin lankidetza-maila handikotzat katalogatutako ekintzetara bideratu da.

Gráfico 4.7: Presupuesto ejecutado y número de actuaciones según grado de coordinación con agentes externos




## Emaitzen ebaluazioa, helburu estrategikoaren arabera

**4.1. helburua. - Gazteen artean osasun-programa eta -zerbitzuen ezagutza, balorazioa eta erabilera ona indartzea.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**4.1.1.-** Gazteentzako osasun-programak ezagutaraztea, eta gazteen hizkera, eremu eta kanalak erabiltzea horien ezagutza eta erabilera handitzeko, halakoak ezagutu eta erabiltzea eragotz dezaketen oztopo objektibo eta subjektiboak saiheste aldera.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

4.1 helburuak, gazteen artean osasun-programa eta -zerbitzuen ezagutza, balorazioa eta erabilera ona indartzera bideratuak, esku-hartze lerro bakarra dauka. Esandako lerro horretan bost ekintza zehatz biltzen dira, eta, hainbat espazio eta kanal baliatuta, EAEn gazteek eskura dituzten osasun-programa eta -espazio guztiak ezagutu nahi dira. Esku-hartze lerro horrek helburu horretarako egikaritutako aurrekontuaren % 10 biltzen du, eta programatutako aurrekontuaren % 82 egikaritu du.

Gráfico 4.8: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Estalduraren balioespena egiteko informazioa egindako jardueren % 50 ingururako dago eskuragarri, eta guztiek ez dute egiazko norainokoaren xehetasunik ematen, onuradunei dagokienez. Dena dela, honako baieztapen hauek egin ditzakegu.

- Informazioa eskuratu dugun jardueren kasuan, arlo honetan egikaritutako aurrekontu osoaren % 10 osatzen dute; hala, hiru urteen artean 6.540 hartzaile izan dira (orientazioa behar duten nerabeak eta adingabeak, haur edo nerabe baten babesgabetasunak edo eskubide-urraketak kezkatutako herritarrak, LGTB kolektiboa eta haien ingurunea, eta genero-portaera ez-normatiboak dituzten adingabeen familiak).

  Modu xehatuan, helburu honek hainbat ekintza biltzen ditu. Horien artean, bi arreta-zerbitzu:

- *«Berdindu Pertsonak» telefonoz, bide telematikoz eta aurrez aurre LGTB kolektiboarentzat*; egindako kontsulten % 50 baino gehiago gazteekin eta nerabeekin izaten dira, eta gainerakoak, berriz, gazteen edo kolektibo horretako kideen gurasoek egindakoak izaten dira. Jarduteko bide horretatik, LGTB kolektiboko eta euren inguruko pertsonei laguntza eskaintzen zaie, orientazioa edo laguntza behar dutenean; gizartea sentsibilizatzeko lan egiten da sexu-aniztasunaren inguruan; homofobiaren, transfobiaren edota bestelako edozer eratako diskriminazioaren kontra borrokatuta eta LGTB kolektiboari laguntzen jardunda.

  Ekimen horri esker, guztira 2.741 lagun eta 509 erakunde baino gehiagoko kolektibo bat zerbitzu eman zaio, eta 1.400 kontsulta artatu dira zuzenean.

- *Haurrei eta nerabeei laguntzeko telefono bidezko zerbitzu telematikoa, 116111 Zeuk Esan*. Webgune hori haur eta nerabeei orientazioa, aholkularitza eta informazioa eskaintzera bideratuta dago, babesgabetasun-egoera posibleen kasuak babes-sistemara bideratzeko, baita komunikazio-kanal ireki bat sortzeko ere. Halaber, gazteentzako adierazpen-bide gisa sortua da, eta adingabeei, gurasoei eta hezkuntza-komunitateari zuzendutako bitartekoak zintzilikatzeko horma bat da. Guztira 1.800 pertsonak baino gehiagok egin dituzte kontsultak, eta, horiek aztertuta, esan dezakegu 130 kasu baino gehiago bideratu direla urtean beste bitarteko eta zerbitzu batzuetara.

Efikaziaren balioespena

Ez dago behar beste informazio ekintza horien efikaziari buruzko ondorioak ateratzeko. Nolanahi ere, aurrekontuari bakar-bakarrik erreparatuta, aurrekontuak egikaritzeko garaian izandako desbideratze-mailari buruzko informazioa eman liteke. Hala, programatutakoa baino % 18 gutxiago egikaritu da jarduera horietan.

Dena dela, eta adierazle orokorragoei erantzunez, azpimarratu behar dugu helburu horrek zera ezartzen zuela jarduera espezifiko gisa: esku-orri espezifikoak prestatuta eta banatuta, GIBa, hiesa eta sexu-transmisioko bestelako infekzioak prebenitzera bideratutako informazioa zabaltzea. Jarduera hau bereziki garrantzitsua da; izan ere, 2006tik, 10.000 biztanleko GIB infekzio berrien adierazlea (15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean) 1etik gora dago; 2014an 1,5 izan zen. Ondoren, 2015ean apur bat murriztu zen 1,2ra. (Txosten hau prestatzeko garaian, ez geneukan 2016ko daturik).

#### 4.2. helburua. - Gazteek ezagutza, ohitura eta jokabide osasungarri gehiago berenganatzea.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**4.2.1.-** Gazteei ohitura eta jokabide osasungarriak ezagutarazi eta horiei buruz sentsibilizatzea, hizkera, kanal eta eragile aproposen bidez.

**4.2.2.-** Osasunerako hezkuntza sustatzea hezkuntza-maila guztietan.

**4.2.3.-** Gazteen osasunarekin lotutako esku-hartzeen koordinazioa sustatzea.

**4.2.4.-** Arrisku-jokabideen prebentziorako prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

4.2 helburu estrategikoak osasunaren arloko aurrekontuaren % 19 egikaritu du 2014 eta 2016 bitartean, eta haren helburua euskal gazteen artean ohitura osasungarriak sustatzea da. Bereziki nabarmentzekoa da, egikaritutako aurrekontuari dagokionez, 4.2.3 lerroa (gazteen osasunarekin lotutako esku-hartzeen koordinazioa sustatzea),

aurrekontuaren % 44 bideratzen baita hartara. Ondoren, programatutako aurrekontuaren % 38rekin, 4.2.4 lerroa nabarmenduko genuke; alegia, jokabide osasungarriak sustatzeko prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei, guztia ere arrisku-portaerak prebenitzeko ikuspegitik.

Ondoren, 4.2 helburuko lerro estrategiko bakoitzerako egikaritutako aurrekontu-ikuspegia jasoko dugu. - Gazteek ezagutza, ohitura eta jokabide osasungarri gehiago berenganatzea.

Gráfico 4.9: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Eskura dugun informazioari erreparatuta, programatutako eta egikaritutako aurrekontuaren arteko hutsune handiena 4.2.1 esku-hartze lerroan ageri da, eta % 77koa da (guztira 1.031.020 euro bideratu ziren aurrekontuetan, eta 240.228 euro bakarrik egikaritu dira). Nolanahi ere den, desbideratze horren arrazoia izan liteke ekintza jakin batera bideratutako aurrekontuari buruzko informaziorik ez edukitzea; hau da, «prebentzio-unibertsaleko programak: osasunerako hezkuntza helburu duten programak abian jartzea gazteentzat, eta ohitura eta jokabide osasungarriak ezagutarazi eta haiei buruz sentsibilizatzea». (Jarduera hori 2015ean eta 2016an egin da, nahiz eta aurrekontu-datuetan ez dagoen jasota.).

Ondoren, helburu estrategiko hori mamitzeko baliatu diren lau esku-hartze lerroetarako programatu eta egikaritu den aurrekontuaren arteko desbideratzea aztertzen da grafiko batean. Oro har, programatuko guztizkoaren gaineko % 56 egikaritu dela jasotzen du.

Gráfico 4.10: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Eskura den informazioari erantzunez, hainbat oharpen egin litezke bigarren helburu estrategikorako garatu diren ekintzen estaldurarekin loturik.

- Gazteei ohitura eta jokabide osasungarriak ezagutarazi eta horiei buruz sentsibilizatzera bideratutako bi jarduerekin loturik, nabarmentzekoa da, batetik, osasunerako hezkuntza helburu duten programak abian

jartzea gazteentzat, eta ohitura eta jokabide osasungarriak ezagutarazi eta haiei buruz sentsibilizatzea eta, bestetik, drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea. Programa hori 25.600 gazterengana baino gehiagorengana iritsi zen 2014an, eta 2015eko daturik ez daukagu. 2016an batez ere udalekin egin zen lan (adikzioak prebenitzeko ekipo teknikoarekin eta gabe), bai eta GKEekin ere. Guztira 975 erakunde onuradun lortu zituen, eta 560 tailer eta saiotan jardun zen haiekin lanean.

Bestetik, 2015ean programa espezifiko bat egin da tabakismoa prebenitzeko, eta bertan DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak inplikatu dira, tabakoa erretzeko ohituraren kontrako leloak sortuz, eskolako jolastokian atseden-orduan informazio-mahai bat ipinita, bertan erretzearen kontrako leloak sortu ahal izateko.

Jarduera hori gazteen artean tabako-kontsumoaren kontrako borroka indartzeko sortu da; azkeneko datuen arabera, 2012rako adin-tarte horretako pertsonen artean nabarmen murriztu zen kontsumoa, nahiz eta tabakoa erretzen hasteko adinak egonkor jarraitzen duen 17 urtean. Horrenbestez, ekintza publikoaren arretagune izaten jarraitzen du, baita Osakidetzaren ildo estrategikoetako bat ere, gazteen kolektiboari dagokionez.

- Osakidetzak bizi-ohitura osasungarriak sustatzeari begira egiten dituen neurriei dagokienez, eskolako osasunaren berrikuspenak eta osasunaren alorreko alfabetizazioa eskaintzen dizkie eskolaumeei, ezagutza eta portaera positiboak eskura ditzaten; hala, azpimarratu behar da lehen hezkuntzako lehendabiziko urtetik hasten direla (Lehen hezkuntzako 1. eta 5. mailetan, ariketa fisikoa, elikadura, aho-higienea, istripuen prebentzioa, eskuak garbitzea, fotobabesa eta jarrera-higienea lantzen dira; 2. DBHn, aurrekoez gain, tabakoaren, alkoholaren eta drogen kontsumoa prebenitzea ere jorratzen da). Gutxi gorabehera 9.500 ikasle erregistratu dira onuradun gisa urtean batez beste.

- Gazteen osasunean hirugarrenekin esku hartzeko jardueren koordinazioari dagokionez, elkarteekin jardun da batez ere lanean. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira hiesaren kontrako elkarteei emandako laguntza ekonomikoak eta GIBaren eremuan edota sexu-transmisiozko infekzioen alorrean lan egiten dutenei emandakoak; izan ere, urtean batez beste 17 erakundek jaso dituzte laguntzok, alor horretan urtean 35 programa baino gehiago onartu ondoren.

- Azkenik, nabarmendu behar da unibertsitatekoak ez diren ikasle-gurasoen elkarteen kolektiboak ere izan direla onuradun ekintza jakin batean; hain zuzen, ikasle-gurasoen elkarteei Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ematen dizkien diru-laguntzetan. Diru-laguntza horien helburua hau da: jarduerek sortutako gastuak ordaintzea, unibertsitatez kanpoko ikasleen gurasoei eta helduen hezkuntzarako ikasleen elkarteei zuzendutako ikastaroetako jarduerak garatzeko beharrezko azpiegitura-gastuak ordaintzen laguntzea, eta unibertsitatez kanpoko ikastaroetako ikasleen gurasoei zein ikasleei eurei zuzendutako jardueren gastuak ordaintzea. 2016an, guztira, 535 elkarte onuradun izan dira (urte bakarren erregistratu da jarduera hori).

Helburu honetan bildutako jardueretarako dugun informazioari helduz, hortaz, eta kontuan izanda haien % 45i buruzko informazioa bakarrik daukagula (eta ez direla ekintza beraren hiru urteetarako onuradunen kopuruari buruzko datuak jaso), guztira 46.505 onuradun kontabilizatu dira.

<u>Efikaziaren balioespena</u>

Eskura dugun informazioaren arabera eta zeharkako informazioarekin osatuta, honako alderdi hauek nabarmendu ditzakegu.

- Jakintza eta ohitura osasungarriak eskuratzea oso eremu zabala eta heterogeneoa da. Edonola ere, aipamen berezia egin behar zaie Elikadura Osasungarriko Plana ezartzeko oinarrietarako egindako ahaleginei; alde horretatik, adituen talde bat osatu da, eta plan horretarako ildo estrategikoak biltzen dituen dokumentu bat prestatu da. Era berean, 2016an haurrei zuzendutako Aladino inkesta egiten hasi da.

Alderdi hori bereziki garrantzitsua da; izan ere, gazteen obesitatearen auzia apala da, baina handitzen ari da azkeneko urteetan (obesitate-tasa 2002an % 3,4 zen, eta 2013an, berriz, % 5,4 da), nahiz eta jarduera fisikoa ere ugaritu den (2007an % 67,6 zen, eta 2013an % 75,3ra igo zen). Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunen ustean, esku hartzeko lehentasunezko esparrua da hori, eta halaxe geratzen da nabarmenduta, gainera, elikadura osasungarria sustatzera bideratutako ekimenetan, Osasun Planean bertan.

- Bestalde, «arrisku-jokabideen prebentziorako prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei» puntua aztertzen badugu, nabarmendu behar dugu profesionalei, bitartekariei eta gazteekin lan egiten duten eragileei zuzendutako trebakuntza-ikastaroek 8,2 puntuko satisfazioa lortzen dutela 10etik 2016an, eta 1.500 hartzaile baino gehiago izan dituztela.

### 4.3. helburua. - Osasunarekin lotutako arrisku-jokabideak murriztea, gazteei eragiten dieten eremu guztietan.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**4.3.2.-** Prebentziozko jarduera garatzea osasun-arazo nagusiei aurka egiteko: trafiko-istripuei, mendekotasun-jokabideei, hiesari, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunei, nahi gabeko haurdunaldiei, elikadura-nahasmenduei, jarduera fisikorik ezari eta jokabide sedentarioan denbora handia emateari, nahasmendu mentalei eta laneko segurtasunari.

**4.3.3.-** Hezkuntzaren eremutik prebenitzea pertsonen osasunean eragin kaltegarria duten arrisku-jokabide nagusiak.

**4.3.4.-** Alkoholaren eta substantzia berrien kontsumoa murriztera zuzendutako neurriak indartzea.

**4.3.5.-** Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen kontrol eta prebentziorako ohiturak sortzea.

**4.3.6.-** Neurriak sustatzea bizimodu aktiboari bide emateko, garraiobide aktiboak erabiltzeko eta ariketa eta kirola egiteko aukera inklusiboak baliatu ahal izateko, gazteak sozializatzeko bide gisa.

**4.3.7.-** Gazteen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen fenomeno, patologia eta jokabide berrien agerpena hautematea, zerbitzuak egokitu edo dagozkion ekintzak gauzatu ahal izateko.

**4.3.8.-** Jokabide osasungarriak sustatzeko prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei.

**4.3.9.-** Pobrezia, eskola-porrota nahiz familia-arazoak direla-eta arrisku- eta kalteberatasun-egoera handienean dauden talde edo kolektiboei zuzendutako esku-hartze prebentiboak sustatzea eta/edo horiekin elkarlanean aritzea, Adikzioen VI. Planarekin sinergian.

Ikusten dugun moduan, helburu honek hartzen ditu esku-hartze lerro gehien (zortzi, hain zuzen ere), eta orotara programatutako aurrekontuaren % 68 biltzen du (guztira 8,2 milioi euro zituen programatuta eta 4,9 milioi euro egikaritu dira). Honako grafiko honetan ikusten den moduan, bada esku-hartze lerro bat beste guztien gainetik ageri dena; hau da, 4.3.7 (gazteen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen fenomeno, patologia eta jokabide berrien agerpena hautematea, zerbitzuak egokitu edo dagozkion ekintzak gauzatu ahal izateko). Guztira 3,7 milioi euro baino gehiago egikaritu dira lerro horretan.

Gráfico 4.11: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Dena dela, esku-hartze lerro horretan egikaritutako gastuagatik ere, programatutako aurrekontua egikaritu zena baino % 30 handiagoa izan zen; hots, 5.369.009 eurora iritsita, osasunaren arloaren barruko esku-hartze lerro

Gráfico 4.12: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




batera bideratutako zenbateko handiena.

<u>Estalduraren balioespena</u>

Eskura dugun informazioari jarraikiz, honako puntu hauek nabarmenduko genituzke 2014 eta 2016 artean martxan jarritako 26 jarduerek izandako estaldura-mailari dagokionez. Jarduera horiek, gainera, sailkagarriak dira saihestu edo minimizatu nahi den jarreraren tipologiaren arabera.

- ***Alkohola, tabakismoa eta beste droga batzuk*.**
  - Gidariei edari alkoholdunak edota bestelako drogak kontsumitzearen prebentzio-kontrolak egiteari dagokionez, nabarmendu behar da, Trafiko Zuzendaritzak, Ertzaintzaren bidez, alkoholemiaren eta drogen kontrolak egiten dituela aldian-aldian: emandako informazio estatistikoak ez du uzten adinaren araberako sailkapenik egiten, nahiz eta datu orokorrek erakusten duten urtean 88.000 alkoholemia proba baino gehiago egin direla, eta 4.000 droga-proba baino gehiago ere bai. Alkoholemia-proban positibo eman dutenen kopuruak bere horretan jarraitzen du (guztira egindako kontrolen % 3 inguru), drogen kontsumoan emandako positibo kopuruak, aldiz, 9 puntu egin du gora (2014an egindako kontrol guztien % 20 izan zen, eta 2016an, berriz, % 29).

  - Nabarmentzekoa da «Kerik gabeko gelak» programa, gazteek tabakoarekin duten lehendabiziko harremana saihesteko edo atzeratzeko, baita gazte erretzaileen prebalentzia murrizteko eta, finean, minbiziak eta gaixotasun kardiobaskularrek eragindako heriotzak saihesteko ere. Programa horretan guztira 29.500 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute (DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak) 13/14 eta 15/16 ikasturteetan, nahiz eta aurreko urteko datuek erakusten duten ia % 30eko jaitsiera izan dela aurreko urtearekin alderatuta.

  - Era berean, nabarmendu beharra dago «Adingabeak eta alkohola» programa ere, 2014an sortua Osasun Sailaren ekimenez eta Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, Eudelen eta gazteen zein herritarren ordezkarien partaidetzarekin (erakundearteko partaidetza). Haren helburua 18 urtetik beherakoen artean alkohol-kontsumoa murriztea da, kontsumoaren hasiera-adina atzeratzea, gehiegizko kontsumoak saihestea eta alkoholaren kontsumoarekin lotutako arazoak kolektibo horrekin jorratzea.

    Esku-hartzeen artean, jai-esparruen testuinguruan egindakoak daude. Hala, 2014an guztira 40 esku-hartze egin ziren, eta 10.552 pertsonarengana heldu ziren; gehienak gazteak ziren, osasun-planeko ebaluazio-datuen euren arabera. 2015ean orotara 69 esku-hartze egin ziren, eta 9.133 hartzaile izan zituzten. Bi urteetan, gizonen ehunekoa emakumeena halako bi izan zen. Txosten hau prestatzeko garaian, ez daukagu 2016an egindako esku-hartzeen inguruko berririk.

    Jarduera hori hezkuntzaren esparruan ere egin da 2015ean: 230 tailer 73 ikastetxetan, eta 33 udalerritako 3.780 ikaslek parte hartu dute.

  - Oro har, helburu horretan oso garrantzitsua izan da aisia eta droga-kontsumoa bereiztera bideratutako prebentzio- eta trebakuntza-programetan garatutako lana, eta, hala, arrisku-jarrerak murriztea, bereziki jai- eta aisialdi-giroetan gertatzen direnak Lan horiek, toki-erakundeekin eta GKEekin lankidetzan, 34.000 gazte hartzaile izan dituzte (2015eko datuak, informazioa eskuragarri dugun urte bakarrekoak).

  - Azkenik, prebentzio selektiboko eta adieraziko programak nabarmendu behar dira. Herritar talde zehatz batzuei zuzendutako programak abian jartzea; hau da, adikzio-arazoak sor ditzaketen arrisku-faktoreen mende daudenei edo dagoeneko droga-kontsumoa eta beste jokabide arazotsuak agertzen dituzten pertsonei. 2014 eta 2016 urteetarako diren datuen arabera, 17.000 onuradun batez beste.

- ***GIB/hiesa, sexu-transmisiozko infekzioak eta nahi gabeko haurdunaldiak.***
  - GIB/hiesa, sexu-transmisiozko infekzioak eta nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzera bideratutako jarduerak, besteak beste, eskolatutako nerabeekin egindakoak, ikasgeletan esku hartuta: 100 ikastetxek baino gehiagok parte hartu dute urtero programa honetan, eta batez beste 7.000 gida banatu dituzte 6.000 neraberen artean (azken datu horiek 2016koak dira).

  - Nerabeekin esku-hartze komunitarioa izateko programak. Sexu-heziketari buruzko jarduerak nerabeen artean hainbat udalerritan *(ekimen honetan bakarrik daukagu onuradunei buruzko informazioa planak indarrean iraun duen 3 urteetan, nahiz eta haren ordezkagarritasuna apala izan egikaritutako aurrekontuari dagokionez: % 0,7)*. Guztira 1.000 gazte baino gehiago erregistratu dira jarduera horren onuradun gisa.

- Esparru honetan badira jarduera gehiago ere, nahiz eta informaziorik izan ez; esaterako, xiringak trukatzeko programa, farmazietan hiesaren kontrako kita banatzea, hiesaren kontrako elkarteak eta espetxeak.

- ***Sustatu beharreko jarreren artean, jarduera fisikoa indartzea nabarmentzen da.***
  - Batez ere Mugiment ekimenari erreferentzia eginda jarduera fisikoa sustatzeko. Osasun Sailak, Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak elkarren artean sustatua da, eta hainbat estrategiaren bidez lantzen du (2014ko osasun-planaren ebaluazioaren arabera).

| ESTRATEGIA | Población diana | Objetivo principal |
|---|---|---|
| MUGISARE | Comunidad | Crear redes locales para coordinación de acciones y estrategias. |
| MUGITOKI | Agentes locales clave, profesionales, expertos | Crear un centro de referencia de recopilación, actualización y generación de conocimiento. |
| MUGIBILI | Población general | Fomentar la actividad de "Caminar" |
| MUGIEGUN | | Facilitar la participación ciudadana en eventos deportivos |
| MUGIKASI | Población infantil | Incrementar el tiempo de AF / prevención del sedentarismo en los centros escolares |
| MUGIERAGIN | Profesionales del ámbito sanitario y de deportes | |
| MUGIBETI | Población mayor | Impulsar la práctica de AF atendiendo a sus necesidades particulares |
| MUGILAN | Centros de trabajo | Facilitar la práctica de AF y prevenir el sedentarismo en el entorno laboral |

III. Gazte Planak berariaz aipatzen du Mugisare programa, eta adierazten du 11 udalerrik parte hartu zutela 2015ean ekimen horretan, eta 6 udalerrik 2016an; halaber, Mugibili programa ere aipatzen du. 2015eko osasun-planaren ebaluazioko datuak hartuta, 95 udalek jaso zituzten diru-laguntzak eta 115 proiektu babestu zituzten Mugibilirekin lotutako estrategia horretan.

- ***Beste prebentzio-esparru batzuk***

  - Jarduera jakin batera bideratutako lehendabiziko aurrekontu-partida guztira 3.583.074 eurokoa da, hau da, helburu horretarako guztira egikaritutako aurrekontuaren % 72, eta 12 eta 16 urteko 82.691 nerabe tetano-difteriaren (Td) eta giza papilomaren birusaren kontra txertatzeko baliatu da.

  - Datu konkreturik ez badugu ere, elikadurako jokabide-nahasmenduak prebenitzera bideratutako ahaleginak ere nabarmendu behar ditugu, baita substantzien adikziotik eratorritako arazoak dituzten gazteen asistentzia ere.

<u>Efikaziaren balioespena</u>

Alde horretan jasotako informazio oso gutxi daukagula jakinda, ezin dezakegu egin balioespen bat aurreikusitako neurrien efikaziaren inguruan. Hala ere, landutako alderdi nagusiekin lotutako adierazle oroko nagusiak berrikusita,

zera ondorioztatu dugu, egokia dela jarduera horiek lortu nahi dituzten helburuei eusten jarraitzea etorkizunera begira ere.

- Zirkulazio-istripuetako hilkortasun-tasaren estatistika-adierazleari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu azken hamarkadan beherakada nabarmena izan duela. 2014ko hilkortasun-tasa 15 eta 29 urte bitarteko 2,2 pertsonakoa zen 100.000 gazteko; 2004an, berriz, tasa hori 11,4koa zen.

- Gazteen artean alkohola kontsumitzeko joerak ere behera egin du, nahiz eta oraindik ere populazioaren tasa orokorrarekin alderatuta oso goian jarraitzen duen (gazteen % 24,5ek du gehiegizko alkohol-kontsumoa edo arriskutsua, eta herritarren tasa orokorra, berriz, % 11,4koa da).

- GIBaren analisiaz gain (izandako bilakaerari buruzko datu nagusiak aurreko helburuaren analisian aztertu ditugu), helburu honetan nerabeen haurdunaldien tasan izandako beherakada ere nabarmendu beharra dago: 2014an 7,6/1000 zen, eta 2012an, berriz, 9,7/1000 izan zen. Kasu horretan, kezkagarriagoa da alderaketa, kontuan izanda haurdun geratzen diren nerabeen jatorria; izan ere, atzerriko jatorria duten nesken artean haurdunaldien tasa zazpi bider handiagoa da Espainiako herritartasuna dutenen artean baino, 2017an argitaratutako gazteen diagnostikoari buruzko datuen arabera.

  Nerabeekin egindako esku-hartze komunitarioko programan bildutako datuen arabera, gazteen % 85ek badaki 3 metodo antisorgailu eraginkor identifikatzen; % 81,3k badaki sexu-transmisiozko 3 infekzio identifikatzen, eta % 60k ezagutzen ditu sexu-transmisiozko 3 bide.

**4.4. helburua. - Errepideetan gazteen mugikortasunaren ondorioz izaten diren istripuen tasa murriztea.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**4.4.2.-** Errepideetako istripu-tasa eta ingurumen-inpaktua murrizteko arduraz gidatzeko beharrari buruz sentsibilizatzea, generoen arteko desberdintasunak kontuan hartuta.

Lau helburuetako lehendabizikoan bezala, 4.4 helburuak ere esku-hartze lerro bakarra dauka, eta, zehazki, hilkortasun-tasarekin lotutako arriskuak murriztutako bide-jarrerak hartzeko beharra zabaltzea du helburu. Gainerako helburuekin alderatuta, desberdintasun esanguratsua dauka, aurrekontua askoz ere apalagoa baita: alor honetarako bideratutako aurrekontu osoaren % 3.

Honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, eta gainerako esku-hartze lerroek ez bezala, egikaritutako aurrekontuak % 2 gainditu du programatutakoa.

Gráfico 4.13: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




<u>Estalduraren balioespena</u>

Trafiko Zuzendaritzak gidatutako kanpainak garatu ditu Eusko Jaurlaritzak bide-arriskuko jarrerei eta haien ondorioei buruz, eta guztira DBHko eta erdi-mailako ikasketetako 42.979 gazte izan ditu hartzaile.

Kanpaina horien helburua oraindik ere gidatzen hasi gabe dauden pertsonen artean bideko arriskuei buruzko kontzientzia piztea eta prebentzioa bultzatzea izan da, «Gerta dakizuke» eta «Road show» ekintzen bidez, baita «Norabide guztiak» foro-teatroaren bidez ere. Guztira, 746 saio egin dira 2014 eta 2016 artean.

Bestetik, Emakundek ere egin ditu bide-hezkuntzari, hilkortasun-tasa prebenitzeari eta identitate maskulinoak eraikitzeari buruzko ikastaroak, Gizonduz programako sentsibilizazio- eta hezkuntza-jardueren barruan: 25 ikastaro, 249 ordu eta 458 parte-hartzaile erregistratu dira 2015 eta 2016 artean.

<u>Efikaziaren balioespena</u>

Ekimen hauetako onuradunen satisfazio-maila handia da, bai zirkulazio-kanpainen kasuan, bai bide-hezkuntzari, hilkortasun-tasa prebenitzeari eta identitate maskulinoak eraikitzeari buruzko ikastaroetan, guztia ere Emakundek sustatutako Gizonduz programaren sentsibilizazio- eta trebakuntza-jarduereetan.

# 5. arloa. Gizarte-ekintza




## Ekintzen deskribapen orokorra

Gizarte-ekintzaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia

Gizarte-ekintzaren arloaren barruan, bi jarduera-adar biltzen dira: batetik, gazteen egoera ekonomikoarekin lotutako alderdiak, eta, bestetik, Euskadin emakumeen eta gizonen artean den berdintasun-maila.

Gazteriaren Euskal Behatokiak emandako informazioaren arabera, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen herenak bakarrik ditu hilean 600 euro baino gehiago, eta, horrenbestez, ulertzekoa da gazteen % 26,8k bakarrik lortzen dutela euren diru-sarrerekin edo euren bikotekideen diru-sarrerekin bizitzea.

2017ko urtarrilean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentako (DBE) laguntzetan aktibo dauden espedienteei erreparatuz gero, ikusten da 5.375 espediente dagozkiela 16 eta 29 urte bitartekoen adin-taldeko pertsonei; hau da, Euskadiko biztanleria osoaren taldean aktibo dauden espediente guztien % 8,5. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak pobrezia-arrisku handiagoan dauden gazteen kolektiboetarako laguntza ekonomikoei eutsi die, jarduera-eremu nagusietako bat bezala.

Gizarte-ekintzaren arloko bigarren oinarrizko auzia, berriz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna da; hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen ipintzen ditu abian erantzunkidetasunaren esparruan, baita genero-indarkeriaren kontrako borrokan aurrera egitera bideratuta ere.

Osasunaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak

2. ardatzaren barruan –bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa–, III. Gazte Planak honako lau erronka hauek biltzen ditu gizarte-ekintzaren alorreko enuntziatu estrategikoan.

- Arrisku-egoeran dauden edota bereizkeria jasan dezaketen gazteei eskainitako laguntza hobetzea, gizarte-, hezkuntza-eta enplegu-zerbitzuek koordinatutako prebentzio eta esku-hartze neurriak garatuta.
- Gizon eta emakumeen artean etxeko lanak egiteko eta menpeko adingabekoak nahiz adinekoak zaintzeko denbora berdintsu bana dadila lortzea.
- Gazteen arteko genero-indarkeriari aurre egitea, prebentziozko ekintzak eta indarkeria horren biktimei eskainitako laguntza uztartzearen bidez.
- Gazteen artean, emakumeen aurkako jarrerak eta indarkeriazko jokaerak ezabatzea.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 5 helburu estrategiko, 11 esku-hartze lerro eta 31 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek gizarte-ekintzaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin**.

Ondoren, gizarte-ekintzaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| |
|---|
| **2. ARDATZA.- BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA** |
| **5. arloa.- Gizarte-ekintza** |
| |
| **5.1.- Arrisku edo gizarte-bazterketako egoeran dauden gazteentzako arreta soziala hobetzea.** |
| 5.1.1.- Prebentzioa eta esku hartze soziala gazteen bazterketaren alorrean, aniztasunari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei erreparatuta. |
| 5.1.2.- Diru-sarrerak bermatzeko politika gazteen beharretara egokitzeko aukera ematen duten neurriak antolatzea. |
| **5.2.- Aurrera egitea emakume eta gizon gazteen arteko harremanetan benetako berdintasuna lortzeko, bai eremu pertsonalean bai lanekoan.** |
| 5.2.1.- Gizon gazteen erantzunkidetasuna azpimarratzea. |
| **5.3.- Genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei arreta osoa ematen saiatzea.** |
| 5.3.1.- Genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei emandako arreta eta informazioa hobetzea. |
| 5.3.2.- Formulak bilatzea edonolako genero-indarkeria sufritu duten emakume gazteen arretan hautemandako gabeziak betetzeko. |
| 5.3.3.- Emakume gazteen aurkako indarkeria kasuen detekzio goiztiarra handitzea. |
| **5.4.- Gazteria genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazo gisa.** |
| 5.4.1.- Genero-indarkeriaren aurkako «zero tolerantzia» sustatzea gazteen artean. |
| 5.4.2. Emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten duten irudi eta edukiak ezabatzea. |
| 5.4.3.- Herritar gazteenek genero-indarkeriako agerpenei buruz duten pertzepzioa areagotzea, batez ere, indarkeria mota sotilenei dagokienez (mikroindarkeriak). |
| **5.5.- Indarkeriazko jokabideen prebentzioa hobetzea. A) Azterlanak eta ikerketak egitea gazteen arteko genero-indarkeriaren arazoari buruz. B) Komunikazio-kanal eraginkorrak sortzea gazteen artean jokabide bortitzak prebenitu ahal izateko.** |
| 5.5.1.- Azterlanak eta ikerketak egitea gazteen arteko genero-indarkeriaren arazoari buruz. |
| 5.5.2.- Komunikazio-kanal eraginkorrak sortzea gazteen artean jokabide bortitzak prebenitu ahal izateko. |

Helburu estrategikoen araberako jardueren banaketak **5.1 helburuaren aldeko nagusitasuna erakusten du (arrisku edo gizarte-bazterketako egoeran dauden gazteentzako arreta soziala hobetzea)**, bertan bildu baitira gizarte-ekintzaren arloko jardueren % 39. Ondoren 5.4 helburua letorke (gazteria genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazo gisa), jardueren % 23 bilduta.

Gráfico 5.1: Actuaciones por objetivos estratégicos



Honako grafiko honek erakusten du gizarte-ekintzaren arloak egikaritutako aurrekontuaren banaketa, bost helburu estrategikoetako bakoitzaren arabera. Ikusten dugunez, pisu handiena 5.1 helburuak dauka (arrisku edo gizarte-bazterketako egoeran dauden gazteentzako arreta soziala hobetzea) egikaritutako aurrekontuari erreparatuta, guztizkoaren % 99,2 horretara bideratu baita. Horren arrazoia zera da, helburu horretan bildutako ekintzak garrantzi berezikoak direla Euskadin, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edota familiako eta laneko bizitza kontziliatzeko laguntzak.




Aurrekontu-ikuspegi orokorra

**2014 eta 2016 artean, guztira 248.478.225 euro baino gehiago bideratu dira gizarte-ekintzaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren**




**% 43,2.**

Eskura ditugun datuen arabera, planak indarrean iraun duen hiru urteetan, egikaritutako aurrekontuak ez du inoiz ere gainditu programatutako aurrekontua, eta oro har bien arteko aldea % 25 izan da.

Honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, planak indarrean iraun duen hiru urteotan egikaritutako aurrekontua programatua baino apalagoa izan da, eta % 71 egikaritu da.




Azkenik, helburu estrategiko bakoitzerako programatutako eta egikaritutako aurrekontuen inguruan, beste behin ere, 5.1 helburu estrategikoa nabarmendu behar dugu, programatutako eta egikaritutako aurrekontuaren artean izan duen desbideratzeagatik; izan ere, egikaritutako aurrekontuekin lotutako informazioa partzialki bakarrik daukagu.




<u>Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza</u>

*Gazteak helburu*

Gizarte-ekintzaren arloak oso presente dauka gazteen kolektiboa bere lehentasunetan, jarduera publikoa definitzeko garaian; hori dela eta, hainbat ekintza topa ditzakegu gazteen kolektiborako bereziki diseinatuta. Hala, III. Gazte Planean bildutako jarduera guztien % 48 gazteen kolektiboari zuzenean bideratuta daude; hau da, egikaritutako gastuaren % 73. Dirutan esanda, 248 milioi euro.




*Transbertsalitatea gizarte-ekintzaren arloan.*

Gizarte-ekintzaren arloan gazteen kolektiborako egindako ekintzen transbertsalitate-maila apala da, eta arlo horretan izandako ekintzen % 6an bakarrik ageri da. Hala eta guztiz ere, egoera hori den arren, inplikatutako zuzendaritza asko daudela ikus dezakegu. Horien artean nabarmentzekoak dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea (% 26), Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza (% 23) eta Justizia Zuzendaritza (% 13), jarduera kopuru gehien bilduta. Bestetik, egikaritutako aurrekontuaren ikuspegitik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak (% 63) eta Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritzak (% 27) bildu dute gizarte-ekintzara bideratutako aurrekontuaren zatirik handiena.





Gráfico 5.6: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Acción Social

*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza*

Gizarte-ekintzaren arloko lankidetzak hainbat ekintza planteatu ditu, zeinetan arduradunak kanpoko eragileekin lankidetzan izan baitira jarduera horiek mamitzeko garaian. Kasu honetan, gizarte-ekintzaren arloko jardueren % 35ean kanpoko eragileekin jardun dute lankidetzan, hala nola elkarteekin eta toki-erakundeekin. Jarduera horien artean, bereziki nabarmentzekoak dira sentsibilizazio- eta kontzientziazio-lanak, baita laguntza ekonomikoetarako programak esleitzea ere.




Honako grafiko honetan, egikaritutako aurrekontuen eta jarduera kopuruaren arteko harremana ikus daiteke, esleitutako koordinazio-mailaren arabera (handia, ertaina edo apala). Hala, korrelazio-maila handia ikus daiteke aurrekontuaren zati handiena egikarituta daukaten jardueren (% 98) eta hirugarren eragileekin izandako koordinazio-maila apalaren artean. Era berean, ikus dezakegu jardueren % 65ek esandako koordinazio-maila apal hori ageri dutela.



Gráfico 5.7: Presupuesto ejecutado y número de actuaciones según grado de coordinación con agentes externos

## Emaitzen ebaluazioa, helburu estrategikoaren arabera

### 5.1. helburua. - Arrisku edo gizarte-bazterketako egoeran dauden gazteentzako arreta soziala hobetzea.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**5.1.1.-** Prebentzioa eta esku-hartze soziala gazteen bazterketaren alorrean, aniztasunari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei erreparatuta.

### 5.1.2.- Diru-sarrerak bermatzeko politika gazteen beharretara egokitzeko aukera ematen duten neurriak antolatzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

5.1 helburu estrategikoak 2014 eta 2016 artean gizarte-ekintzako aurrekontuaren % 98 egikaritu du, eta haren helburua arrisku edo gizarte-bazterketako egoeran dauden gazteentzako arreta soziala hobetzea da. Horretarako, bi esku-hartze lerro ditu. Alde batetik, gazteen bazterketa prebenitzea eta, bestetik, gazteen diru-sarrerak bermatzeko neurriak artikulatzea. Nabarmentzekoa da azkeneko esku-hartze lerro hori egikaritutako aurrekontuari dagokionez, helburuarekin lotutako aurrekontuaren % 89 hartzen baitu.

Gráfico 5.8: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Bestetik, programatutako eta egikaritutako aurrekontuari erreparatzen badiogu, partzialki eskuratu dugun informazioaren arabera, 5.1.2 esku-hartze lerroak dauka desbideratze handiena; izan ere, guztira 313.474.402 euro programatu ziren aurrekontuan eta egikaritu, berriz, 219.119.309 euro egikaritu zituen, diru-sarrerak

Gráfico 5.9: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




bermatzeko politika gazteen beharretara egokitzeko aukera ematen duten neurriak antolatzera.

Estalduraren balioespena

Helburu hori betetzeko estaldurari buruz emandako informazioa oinarri hartuta eta bildutako jardueren % 73ren onuradunei buruzko informazioa bakarrik dugula jakinda, adierazi dezakegu orotara 180.594 onuradun izan direla. Zehaztasunetara igarota, honako balioespen hauek egin ditzakegu.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) hileroko prestazio ekonomiko bat da, nahikoa baliabide ez duten pertsona eta familien oinarrizko premiak asetzeko eta lan-irteera bat topatzen laguntzeko ematen dena. Laguntza horiek kolektibo zabal batek eskura ditzake, eta gazteengan ere ipintzen du arreta; hala, 30 urtez azpikoei laguntzen die, gizarte-bazterketako egoeran eror ez daitezen.
  Eskura dugun informazioaren arabera, III. Gazte Plana indarrean izan den hiru urteetan, Eusko Jaurlaritzak 30 urtetik beherako 25.354 laguni eman die prestazio ekonomiko hau.

- Bestetik, helburu honen ekimenen artean, laneko eta familiako bizitza kontziliatzeko laguntzak ere biltzen dira; haien azken helburua zera da, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea, bai enplegua eskuratzeko eta mantentzeko, bai seme-alabak edota mendetasun-egoeran diren senideak zaintzeko dedikazio intentsiboa posible egiteko. Hartara, guztira 47.679 familiak baliatu dituzte laguntzok, eta horiek guztiak gaur egun eszedentzia-egoeran edo lanaldia murriztuta daude; dena dela, ez daukagu behar beste datu onuradun horiek identifikatu ahal izateko.

- Halaber, euren kargura seme-alabak dituzten familientzako laguntzak ere aipatzekoak dira, seme-alaben jaiotzan edo adopzio-garaian sortutako gastuei aurre egiten laguntzeko, baita haien mantentze-lanetarako ere. Laguntza horien bitartez, 2014 eta 2016 bitartean orotara 92.656 guraso, familia-unitateko kide eta onuradun erregistratu dira.

Efikaziaren balioespena

Aurretik aipatu dugun moduan, euskal gazteen artean sustatutako gizarte-ekintzako jarduera nagusietako bat diru-sarrerak bermatzeko errenta ematea izan da. 2017ko datuek erakusten dutenez, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 2k jasotzen du esandako prestazioa; sexuak bereizita, emakumeen portzentajea handiagoa da (% 2,4) gizonezkoena baino (% 1,7). Dena dela, kontuan izan behar da laguntza mota honek ez diela erantzuten pobrezia-kasu guztiei; izan ere, adin-tarte honetako bertako egiazko pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoa dezente handiagoa da DSBE jasotzen dutenena baino. Hala, 2016an, pobrezia-egoeran zeuden gazteen kolektiboan erregistratutako datu erreala % 8,1 izan zen; hau da, ehuneko 6,1 puntu gehiago, DSBE jasotzen duen % 2 horren aldean.

**5.2. helburua. - Aurrera egitea emakume eta gizon gazteen arteko harremanetan benetako berdintasuna lortzeko, bai eremu pertsonalean, bai lanekoan.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**5.2.1.-** Gizon gazteen erantzunkidetasuna azpimarratzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Gizarte-ekintzaren arloko bigarren helburuak (aurrera egitea emakume eta gizon gazteen arteko harremanetan benetako berdintasuna lortzeko, bai eremu pertsonalean, bai lanekoan) esku-hartze lerro bakarra dauka: gizon gazteen erantzunkidetasuna azpimarratzea. Esku-hartze lerro horretarako egikaritutako aurrekontuak alorrerako bideratutako guztiaren % 0,02 osatzen du, eta % 4ko desbideratzea izan du programatutakoaren aldean.

Gráfico 5.10: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Helburu horretarako bideratutako jarduera guztietarako eskura dugun informazioaren bidez, gutxienez 971 erakunde eta pertsona onuradun identifika ditzakegu, hainbat eratako gizarte-eragilez osatuak (populazioa oro har, erakunde publikoak, sindikatuak eta abar). Esku-hartze lerro honetan dugun ekintza bakoitzerako informazioaren arabera, guztira 900 pertsona baino gehiagoren artean bultzatu du honako helburu hau: gizarte-eragile guztien ardura sustatzea, langileek (gizonek zein emakumeek) lan- eta familia-bizitza eta bizitza pertsonala uztartu

dezaten, eta, zehazki, familien barrenean, gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna sustatzea, pertsonen zaintzari eta arretari lotutako lanetan eta etxeko lanetan.

Efikaziaren balioespena

Ez dago efikaziari buruzko balioespena egiteko behar beste informazio.

### 5.3. helburua. - Genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei arreta osoa ematen saiatzea.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**5.3.1.-** Genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei emandako arreta eta informazioa hobetzea.

**5.3.2.-** Formulak bilatzea edonolako genero-indarkeria sufritu duten emakume gazteen arretan hautemandako gabeziak betetzeko.

**5.3.3.-** Emakume gazteen aurkako indarkeria kasuen detekzio goiztiarra handitzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

5.3 helburuak, genero indarkeriaren emakumezko biktima gazteei arreta osoa ematen saiatzea xede duenak, hiru esku-hartze lerro ditu biktimen arreta hobetzera eta emakume gazteen kontrako indarkeria-kasuak garaiz detektatzera bideratuta. Honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, 5.3.2 esku-hartze lerroak (formulak bilatzea edonolako genero-indarkeria sufritu duten emakume gazteen arretan hautemandako gabeziak betetzeko) helburu horretarako egikaritutako aurrekontuaren % 77 hartu du. Ondoren 5.3.1 lerroa izan du, biktima horiei arreta hobea eskaintzera bideratua.

Gráfico 5.11: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Bestetik, programatutako eta egikaritutako aurrekontuen ikuspegitik, ikus dezakegu hiru esku-hartze lerroetan desbideratze esanguratsuak izan direla programatutako aurrekontuei dagokienez, partzialki eskuratu dugun informazioaren arabera. Helburu osorako, programatutako aurrekontuaren % 50 egikaritu da: kopuru hori bereziki esanguratsua da bigarren jarduera-lerrorako, desbideratzea milioi bat eurokoa baino handiagoa izan baita.

Gráfico 5.12: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Estalduraren balioespena egiteko informazioa egindako jardueren % 71 ingururako dago eskuragarri, eta onuradunak, berriz, 18.320 lagun dira, datuek diotenez.

- 5.3.1 esku-hartze lerroaren kasuan, bi ekintza egin dira. Horien barruan, batetik, «etxe- eta genero-indarkeriako ekintzen ondoriozko jarduketak» prozesua daukagu, eta etxeko indarkeria jasaten duten 9.923 emakumerengana iritsi da. Bestetik, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako 24 orduko telefono-zerbitzua daukagu: 7.886 onuradun erregistratu dira.

- 5.3.2 esku-hartze lerroarekin jarraituz (formulak bilatzea edonolako genero-indarkeria sufritu duten emakume gazteen arretan hautemandako gabeziak betetzeko), bi jarduera nabarmenduko ditugu biktima horiei ekonomikoki laguntzera bideratuta eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko, Eusko Jaurlaritzan inplikatutako profesionalekin alferrikako izapideak saihestuta. Hartara, partzialki eskura dezakegun informazioa oinarri hartuta, jarduera horiek gutxienez 446 onuradun izan dituzte guztira.

- Azkenik, 5.3.3 esku-hartze lerroari erreparatuta (kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida prestatzea), 65 gazte eta kirol-erakunde izan dituzte onuradunen artean. Jarduera hori egin izanaren arrazoia zera da, kirola dela emakumeen eta gizonen arteko aldea gehien nabarmentzen duen esparruetako bat gure gizartean, eta desberdintasun horri laguntzen dio neska-mutilek jasotzen duten sozializazio desberdinak, kirol-jarduerak maskulinizatu izanaren ondorioz. Hartara, gida horren helburu nagusia kirolarekin lotutako pertsona guztien ezagutza eta sentsibilizazioa lortzen laguntzea da, onartezinak diren jarrerak identifikatuta eta esparru horretan jazarpen-egoerak eta sexu-abusuak prebenitzeko neurriak proposatuta.

Efikaziaren balioespena

Euskadin emakumeen kontrako indarkeria-tasa orokorra 2015ean 7,3 izan zen 15 eta 29 bitarteko 1.000 emakumeko. Eta, kasurik gehienetan, bikotekideek edo bikotekide-ohiek egindako indarkeria da, Gazteriaren Euskal Behatokiak emandako datuen arabera. Emakume gazteei dagozkien tasak handiagoak dira 29 urtetik gorakoei dagozkienak baino; hala ere, egoera horrek ez du esan nahi gazteek genero-indarkeria gehiago sufritzen dutenik, baizik eta emakume gazteek gehiago salatzen dutela egoera hori, tasa horrek genero-indarkeriagatik salaketa ipinitako emakumeak kontabilizatzen baititu.

III. Gazte Planak ezarritako jardueretatik abiatuta eta helburu estrategiko horretarako emaitzetatik bildutako informazioa oinarri hartuta, ez dago behar beste informazio egoera horien efikazia balioetsi ahal izateko. Nolanahi ere, eta ikuspegi erabat globalari helduta, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritza egiten ari den lana emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, *EAEko emakumeen eta gizonen arteko VI. berdintasun-planak* erakusten duen moduan. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren helburua, funtsean, esku hartzeko zenbait ildo eta jarraibide zehaztea da, euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango duten jarduketa zuzentzeko. Berdintasun-plan horren diseinuaren aurretik, Euskal Autonomia

Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean tradizio handia izan da: 1991ra jo behar dugu, ordukoa baita EAEko emakumeentzako ekintza positiborako I. Plana.

### 5.4. helburua. - Gazteria genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazo gisa.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**5.4.1.-** Genero-indarkeriaren aurkako «zero tolerantzia» sustatzea gazteen artean.

**5.4.2.** Emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten duten irudi eta edukiak ezabatzea.

**5.4.3.-** Herritar gazteenek genero-indarkeriako agerpenei buruz duten pertzepzioa areagotzea, batez ere, indarkeria mota sotilenei dagokienez (mikroindarkeriak).

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

5.4 helburu estrategikoak gizarte-ekintza arloko aurrekontuaren % 0,2 egikaritu du 2014 eta 2016 artean, eta haren helburua honako hau da: gazteria genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazo gisa. Hala, bereziki nabarmentzekoa da 5.4.3 esku-hartze lerroan egikaritutako aurrekontuari dagokionez (herritar gazteenek genero-indarkeriako agerpenei buruz duten pertzepzioa areagotzea, batez ere, indarkeria mota sotilenei dagokienez), aurrekontu osoaren % 64 bideratu baitu. Haren atzetik dator 5.4.1 esku-hartze lerroa, egikaritutako aurrekontuaren % 31rekin eta helburu hau lantzeko asmoz: genero□indarkeriaren aurkako «zero tolerantzia» sustatzea gazteen artean.

Ondoren, 5.4 helburuko lerro estrategiko bakoitzerako egikaritutako aurrekontu-ikuspegia jasoko dugu (gazteria

Gráfico 5.13: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazo gisa).

Eskura dugun informazioari erreparatuta, programatutako eta egikaritutako aurrekontuaren arteko hutsune handiena 5.4.2 esku-hartze lerroan ageri da, eta % 39koa da (guztira 56.000 euro bideratu ziren aurrekontuetan, eta 21.000 euro bakarrik egikaritu dira). Nolanahi ere, desbideratze horren arrazoia izan liteke informaziorik ez izatea komunikabideekin eta publizitate-agentziekin batera kode deontologiko bat prestatzeko jarduera egikaritzeko aurrekontuei buruz, sentsibilizatzeko eta trebatzeko espazioak gaituta.

Ondoren, helburu estrategiko hori mamitzeko baliatu diren hiru esku-hartze lerroetarako programatu eta egikaritu den aurrekontuaren arteko desbideratzea aztertzen da grafiko batean. Oro har, programatuko guztizkoaren

Gráfico 5.14: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica



gainean % 92ko desbideratze apala izan du.

Estalduraren balioespena

Zazpi jarduera garatu dira gazteak genero-indarkeriaren inguruan sentsibilizatzearekin lotuta, lehen mailako gizarte-arazo den aldetik. Nahiz eta eskura dugun informazioak ez duen uzten estalduraren ebaluazio osoa egiten (jardueren % 42ren inguruko informazioa baino ez daukagu), informazio horren arabera, guztira 4.582 onuradun kontabilizatu dira, gazteak, emakumeen elkarteak eta komunikabide eta publizitate-agentziak kontuan hartuta.

- Emakumeei eragindako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren (azaroak 25) esparruan egindako Beldur Barik kanpainak guztira 12 eta 26 urte bitarteko 5.713 nerabe eta gazte kontabilizatu ditu. Ekimen horren bitartez, hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sustatu nahi dira gazteen artean, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko (indarkeria sexistaren aurpegi desberdinak identifikatzea, gazteekin batera portaera eta jarrera indibidual zein kolektibo egokiak eraldatzea eta sortzea emakumeen kontrako desberdintasunak gainditzeko, eta emakumeen kontrako indarkeria mota oro prebenitzea).

- Bestetik, nabarmentzekoa da, era berean, komunikabideetan eta publizitatean mezu sexistak identifikatzeko eta amaitzeko erreminta bat prestatu izana, baita batzorde bat sortzea ere, publizitate eta komunikazio sexisten inguruko kexak eta salaketak bidaltzeko eta jasotzeko. Hartara, *Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa* prestatu eta zabaldu da. Ekimen horren bidez, 400 emakume-elkarterengana eta 100 komunikabide eta publizitate-agentziarengana heldu da mezua, titulartasun publikokoak edo pribatukoak, EAEn jarduten dutenak.

Efikaziaren balioespena

Ez daukagu informazio espezifikorik, hartutako neurrien efikazia balioesteko aukera ematen duenik. Nolanahi ere, esan dezakegu partaidetza handia izan dutela hainbat ekintzak. Horren adibide da *Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka*, 2017ko abenduan 10.300 sinatzaile zituena.

## 6. arloa. Kultura




### Ekintzen deskribapen orokorra

<u>Kulturaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia</u>

Gazte-politiken erronka nagusiak gazteen artean kultura unibertsalizatzera bideratuta joan behar du, eta politik horien edukiek gizarte-kohesioa bultzatzen duten hezkuntza-helburuei erantzutea lortu behar da. Modu espezifikoagoan, politika horiek kultura eskuratzeko bidea erraztu behar dute, eta kultura-kontsumo kritikoa sustatu, adierazpide artistikoak eta sortzaileak aukeran ipinita.

Bestetik, aurreko helburuen osagarri moduan, Eusko Jaurlaritzak gazteen artean euskarazko kultura-kontsumoa sustatzeko neurriak zabaltzeko apustua egin du III. Gazte Planean. Hala, 2017ko Gazteen Egoeraren Diagnostikoak erakusten duen moduan, euskarazko irakurketa-ohitura apur bat murriztu da azken urteetan; hala, 15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen % 43,5etik % 41,8ra murriztu da 2016an. Bestetik, aurrekoari gehituta, euskal gazteen arteko adiskidetasun-harremanetan euskararen erabilerak beheranzko joera dauka: 2014 eta 2016 artean, lagunartean nagusiki euskaraz mintzatzeko joera duten gazteen ehunekoa 10 puntu jaitsi da; hala, 2004 eta 2016 artean, % 48,5etik % 38,1era jaitsi da.

<u>Kulturaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak</u>

2. ardatzaren barruan –bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa–, III. Gazte Planak honako hiru erronka hauek biltzen ditu kulturaren alorreko enuntziatu estrategikoan.

- Gazteek kultura eskuratzeko dituzten aukerak handitzea, emakume eta gizon gazteek aukera berdinak dituztela bermatuz.
- Gazteen kultura-sorkuntza, -sustapena eta -ekoizpena indartzea, eta emakume gazteak nabarmentzea presentzia txikiagoa duten edo behar bezain ikusgai ez dauden eremuetan.
- Kulturaren alorreko materialak sortzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko orduan, hizkuntza- nahiz kultura-aniztasuna kontuan izatea eta, hori egitean, euskara sustatzea.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 3 helburu estrategiko, 11 esku-hartze lerro eta 22 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek kulturaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin**.

Ondoren, kulturaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| **2. ARDATZA.- BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA** |
|---|
| **6. arloa.- Kultura** |
| |
| **6.1. Gazteek kultura eskuratzeko dituzten aukerak handitzea, emakume eta gizon gazteek aukera berdinak dituztela bermatuz.** |
| 6.1.1.- Kultura kontsumitzeko ohiturak sortzea, gazteei askotariko diziplina artistiko eta kulturalak eskuratzen lagunduz, emakume eta gizon gazteek aukera berdinak izatea saiatuz. |
| 6.1.2.- Kultura-eskaintza gazteentzako eskuragarriagoa bihurtzea. |
| **6.2.- Gazteen kultura-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzea, eta emakume gazteak nabarmentzea presentzia txikiagoa duten edo behar bezain ikusgai ez dauden eremuetan.** |
| 6.2.1.- Euskal artista gazteak, baita beste jatorrikoak ere, erakarriko dituzten kultura-sorkuntzako eremuak sustatzea. |
| 6.2.2.- Sortzaile gazteei behar besteko prestakuntza eta baliabideak ematea haien sormena garatzeko eta haien lanak zabaltzeko. |
| 6.2.4.- Sortzaile gazteen artean IKTen erabilera sustatzea, sorkuntzarako eta ekoizpenerako tresna gisa. |
| **6.3.- Kulturaren ekoizpen eta kontsumoan hizkuntza- eta kultura-aniztasunari erreparatzea.** |
| 6.3.1.- Euskararen erabilera sustatzea gazteriarentzako jarduera kulturalen eskaintzan. |
| 6.3.3.- Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea. |
| 6.3.4. - Euskal gizartearen errealitate kulturaniztuna erakustea eta kulturarteko harremanak sustatzea. |

Honako grafiko honetan ikus daitekeen moduan, 6.2 eta 6.3 helburuek (emakumeen presentzia indartzea kultura-esparruetan, eta kulturaren ekoizpen eta kontsumoan hizkuntza- eta kultura-aniztasunari erreparatzea, hurrenez hurren) izan dute III. Gazte Planeko kulturaren arloko jarduera handiena (% 91).

Gráfico 6.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




Aurrekontuari dagokionez, eta ekintzen kasuan bezalaxe, 6.2 eta 6.3 helburuek hartzen dute egikaritutako aurrekontuaren zatirik handiena. Kulturaren arloko aurrekontu osoa, planak indarrean iraun duen hiru urteetan, 15 milioi eurokoa izan da, eta horietatik % 53 bideratu dituzte 6.3 helburura (kulturaren ekoizpen eta kontsumoan hizkuntza- eta kultura-aniztasunari erreparatzea), eta aurrekontuaren beste % 37 6.2 helburura bideratu da (gazteen kultura-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzea, eta emakume gazteak nabarmentzea presentzia txikiagoa duten edo behar bezain ikusgai ez dauden eremuetan).

Gráfico 6.2: Presupuestos ejecutados por objetivos estratégicos




<u>Aurrekontu-ikuspegi orokorra</u>

**2014 eta 2016 artean, guztira 15.361.909 euro baino gehiago bideratu dira kulturaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren % 2,7.**

Urtero-urtero kulturaren arlorako egikaritutako aurrekontuaren analisiak erakusten du zenbateko antzekoak izan direla egikaritutako aurrekontuan; programatutako aurrekontuari dagokionez, berriz, ikus daiteke zenbateko horiek apur bat murriztu direla planak iraun duen hiru urteetan.

Gráfico 6.3: Presupuestos programados y ejecutados entre los años 2014 y 2016




Bestetik, eta analisi orokorrarekin jarraituta, erakusten da kulturaren arloak programatutako aurrekontuaren % 85 egikaritu duela, eta 2015 izan da programatutako eta egikaritutako aurrekontuen artean desbideratze kopuru handiena izan duen urtea: guztira, ia bi milioi euroko desbideratzea.

Gráfico 6.4: Presupuesto programado y ejecutado para el Área de Cultura



Arloko helburu bakoitzerako programatutako eta egikaritutako aurrekontuen arteko desbideratzeari erreparatzen badiogu, berriz, honako grafiko honek erakusten duen moduan, ikusiko dugu 6.1 helburuan desbideratze nabarmena dela; izan ere, programatutako aurrekontuaren % 66 egikaritu zen. Neurri txikiagoan 6.3 helburuarekin, 10 milioi euro baino gehiago programatu baitziren, eta haien % 81 egikaritu.

Beste helburuak ez bezala, bigarrenak (gazteen kultura-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzea, eta emakume gazteak nabarmentzea) programatutako aurrekontua baino apur bat gehiago egikaritu du.




<u>Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza</u>

*Gazteak helburu*

Kulturaren alorrean jasotako ekintzen % 50 gazteei bakarrik zuzenduta egon dira, eta egikaritutako aurrekontuaren % 34 osatu dute. Kulturaren arloko hiru helburuen artean, badira hainbat bereziki gazteen kolektibora bideratuak, nahiz eta horien artean bereziki nabarmentzen den 6.3 helburua (kulturaren ekoizpen eta kontsumoan hizkuntza- eta kultura-aniztasunari erreparatzea), ekintzen % 63 gazteei bideratuak direla; ondoren du 6.2 helburua (gazteen kultura-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzea, eta emakume gazteak nabarmentzea presentzia txikiagoa duten edo behar bezain ikusgai ez dauden eremuetan), ekintzen % 30ekin.




*Transbertsalitatea kulturaren arloan.*

Gazteentzako kulturaren arloko ekintzak egiterakoan izandako transbertsalitate-maila apala izan da. Horren arrazoia kulturarekin lotutako ekintzen euren ezaugarriak dira, oro har, oso espezializatuak baitira. Hala, honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, jarduera horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak, Euskara Zuzendaritzako Zuzendaritzak eta Kultura Ondarean Zuzendaritzak sustatu dituzte.

Horrez gain, oreka nabarmena ageri da ekintza kopuruaren eta egikaritutako aurrekontuaren artean. Hartara, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak eta Kultura Ondarean Zuzendaritzak biltzen dute kulturaren arloan egikaritutako aurrekontuaren % 70.

Gráfico 6.6: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Cultura




*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza*

Kulturaren arloan kontuan hartutako ekintzetan, Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileek parte hartu dute kasuen % 18an (Euskararen Aholku Batzordeak, Euskadiko Filmategiak, Etxepare Euskal Institutuak, hirugarren sektoreko erakundeek eta abarrek).




Honako taula honetan dago jasota aurrekontuaren banaketa, ekintza kopuruaren eta kanpoko eragileekin izandako koordinazio-mailaren arabera jasota. Ikusten dugun moduan, jardueren % 82an (hau da, egikaritutako aurrekontuaren % 78), koordinazio-maila apala duten ekintzak izan dira.

Gráfico 6.7: Presupuesto ejecutado y número de actuaciones según grado de coordinación con agentes externos




**6.1. helburua. - Gazteek kultura eskuratzeko dituzten aukerak handitzea, emakume eta gizon gazteek aukera berdinak dituztela bermatuz.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**6.1.1.-** Kultura kontsumitzeko ohiturak sortzea, gazteei askotariko diziplina artistiko eta kulturalak eskuratzen lagunduz, eta emakume eta gizon gazteek aukera berdinak izatea saiatuz.

**6.1.2.-** Kultura-eskaintza gazteentzako eskuragarriagoa bihurtzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Kulturaren arloko lehendabiziko helburu estrategikoa (gazteek kultura eskuratzeko dituzten aukerak handitzea, emakume eta gizon gazteek aukera berdinak dituztela bermatuz) bi esku-hartze lerrok osatzen dute. Arlorako egikaritutako aurrekontu osoaren % 9 hartzen du eta, programatutako aurrekontuari dagokionez, % 34ko desbideratzea du. Honako grafiko honetan ikus dezakegunez, 6.1.2 esku-hartze lerroak hartzen du helburu horretarako aurrekontuaren % 100.

Bestalde, 6.1.1 esku-hartze lerroari dagokionez (gazteen artean praktika kulturalei eta artistikoei buruzko analisia egitea eta zabaltzea) jarduerarekin dago osatuta, eta ez dauka aurrekonturik esleituta, Gazteria eta Kirol

Gráfico 6.8: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Zuzendaritzak hartzen baitu bere gain haren ardura, bere bitartekoekin hartu ere.

Aurrekontu-desbideratze nagusia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean bildutako liburutegien funtsak hornitzeko edota berritzeko laguntzetan gertatu da: hasiera batean 2.160.000 euroko aurrekontua zeukaten programatuta, eta 1.434.149 euro egikaritu dira. Hala ere, erregistratutako desbideratze horren arrazoia baliteke hau izatea: 2016an egikaritutako aurrekontu-gastua erregistratu ez izana.

Estalduraren balioespena

Bestalde, bi ekimenez osatutako 6.1 helbururako erregistratu dira onuradunen kopuruak ekintza horietako bakoitzerako (Euskadiko Irakurketa Publikoko sarean sartutako liburutegien funtsak hornitzeko eta/edo berritzeko diru-laguntzak ematea). Eusko Jaurlaritzak, ekimen horren bidez, Euskadiko gazteen artean irakurketa sustatu nahi izan du, eta guztira 182 erakundetara iritsi da, besteak beste udalak eta toki-erakundeak, udal-liburutegien esparruan eskumenak edota esleitutako funtzioak dituztenak. Hala, sareko liburutegien funtsak berritu eta

Gráfico 6.9: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica



eguneratu dira, eta, hala, erabiltzaile gazteen beharrizanak eta itxaropenak ase dira, baita bestelako publikoarenak ere.

Efikaziaren balioespena

Ez daukagu informazio espezifikorik, hartutako neurrien efikazia osorik balioesteko aukera ematen duenik.

**6.2. helburua. - Gazteen kultura-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzea, eta emakume gazteak nabarmentzea presentzia txikiagoa duten edo behar bezain ikusgai ez dauden eremuetan.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**6.2.1.-** Euskal artista gazteak, baita beste jatorrikoak ere, erakarriko dituzten kultura-sorkuntzako eremuak sustatzea.

**6.2.2.-** Sortzaile gazteei behar besteko prestakuntza eta baliabideak ematea haien sormena garatzeko eta haien lanak zabaltzeko.

**6.2.4.-** Sortzaile gazteen artean IKTen erabilera sustatzea, sorkuntza eta ekoizpenerako tresna gisa.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Helburu horrek biltzen du kulturaren arloko bigarren aurrekontu-dedikazio handiena: guztira 5.752.079 euro gazteen ekoizpen eta sorkuntza kulturala sustatzera bideratuta, emakumeen artean bereziki eraginda, behar besteko presentzia eta ikusgarritasuna ez duten esparruetan.

Helburu horrek hiru esku-hartze lerro dauzka, honako grafiko honetan ikusten dugun moduan, eta haren barruan nabarmentzekoak dira 6.2.1 esku-hartze lerroa (helburuaren barruan egikaritutako aurrekontuaren % 45ekin), euskal artista gazteak, baita beste jatorrikoak ere, erakarriko dituzten kultura-sorkuntzako eremuak sustatzea helburu duena, eta 6.2.2 esku-hartze lerroa (egikaritutako aurrekontuaren % 37 hartzen duena), sortzaile gazteei behar besteko prestakuntza eta baliabideak ematea bilatzen duena haien sormena garatzeko eta haien lanak zabaltzeko.

Gráfico 6.10: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Eskura dugun informazioa kontuan hartuta, ikusten dugu egikaritutako aurrekontuek ez dutela desbideratze esanguratsurik izan programatutako aurrekontuen aldean. Hartara, guztira 5.727.551 euro programatu dira, eta egikaritu, berriz, 5.752.079; gainera, hainbat esku-hartze lerrok aurreikusitakoa baino aurrekontu handiagoa egikaritu dute, hala nola 6.2.1 eta 6.2.2 lerroek. 6.2.4 lerroari dagokionez, aurreikusitakoa baino aurrekontu apalagoa egikaritu du, eta, era berean, hiruretan zuzkidura txikiena duelako nabarmentzen da, helburu horretarako aurrekontuaren % 20 hartzen baitu.




Estalduraren balioespena

Oro har, helburu honekin lotuta zabaldutako jardueren bidez eta eskura den informazioarekin loturik, gutxienez 742 pertsonak eta erakundek izan dituzte jardueron onurak, pertsona fisikoak, udalak, antzerki-eskolak eta tankerakoak kontuan hartuta. Jardueren estaldura osoa balioesterik ez badago ere –haien % 74ri buruzko informazioa baino ez baitaukagu–, honako alderdi hauek nabarmendu ditzakegu.

- Hainbat jarduera kultura-sorkuntza garatzeko laguntzak eta diru-laguntzak ematera bideratuta daude, eta horiek, erregistratutako datuen arabera, 121 udaletara iritsi dira (horrek esan nahi du Euskadiko udalen % 48ra), baita 17 antzerki-eskolatara eta 34 ekoizle gaztengana ere, besteak beste.
- Nabarmentzekoa da Kultura Ondarea saria. Haren helburu nagusia euskal kultur ondarea zabaltzen laguntzea da, eta horretarako derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. ikasturteetako, batxilergoko lehen ikasturteko eta erdi mailako heziketa-zikloetako lehen ikasturteko ikasleek egindako bideoak saritzen dira. Orotara, 54 ikasle saritu dira.
- Azkenik, Sorkuntza Fabrikak, Dantzan Bilaka, Kimuak eta tankerako programak egin dira, eta guztira 290 gaztek parte hartu dute; horien artean, arte grafikoak eta eszenikoak sustatu dira.

Efikaziaren balioespena

Ez dago behar beste informazio txertatutako ekintza horien efikaziari buruzko balioespenak egiteko.

**6.3. helburua. - Kulturaren ekoizpenean eta kontsumoan hizkuntza- eta kultura-aniztasunari erreparatzea.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**6.3.1.-** Euskararen erabilera sustatzea gazteriarentzako jarduera kulturalen eskaintzan.

**6.3.3.-** Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.

**6.3.4. -** Euskal gizartearen errealitate kulturaniztuna erakustea eta kulturarteko harremanak sustatzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Kulturaren arloko azken helburu estrategikoa (hizkuntza-aniztasunari erantzutea xede duena) hiru esku-hartze lerrok osatzen dute. Arlorako egikaritutako aurrekontu osoaren % 53 hartzen du eta, programatutako aurrekontuari dagokionez, % 19ko desbideratzea ageri du. Honako grafiko honetan ikus dezakegunez, 6.3.3 esku-hartze lerroak helburu horretarako aurrekontuaren % 66 hartzen du, eta atzetik du 6.3.4 lerroa, % 23rekin.

Gráfico 6.12: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Jarduera-lerro bakoitzerako programatutako eta egikaritutako aurrekontuen arteko desbideratzeei dagokienez, informazioa modu partzialean bakarrik dugula hartu behar da kontuan; hori dela eta, honako grafiko honetan ikusten dugu desbideratze handiena 6.3.4 esku-hartze lerroan gertatzen dela (euskal gizartearen errealitate kulturaniztuna erakustea eta kulturarteko harremanak sustatzea); lerro horrek % 32ko desbideratzea ageri du hasieran programatutako aurrekontuaren eta egikaritutakoaren artean. Gainerako lerroetan, desbideratzeak oso txikiak dira, eta guztien artean, programatutako eta egikaritutako aurrekontuaren artean % 19ko aldea ageri da.

Gráfico 6.13: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Jardueren % 62rako eskura dugun informazioa oinarri hartuta, oro har, kulturaren arloak 1.915 hartzaile izan ditu, pertsona fisikoak, erakunde publikoak eta komunikabideak barnean hartuta. Jarduera horien gehienen xedea euskararen presentzia handitzea da giro informaletan, eta, horrekin loturik, honako ekintza hauek azpimarratuko genituzke.

- Planak indarrean iraun duen hiru urteetan guztira 150 diru-laguntza baino gehiago eman zaizkie udalerriei, haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko eta liburutegi publikoen erabilera indartzeko, guztiak ere Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearekin bat eginda.
- Bestetik, IKTetan euskararen presentzia indartzeko helburuarekin jarraituz, 2014 eta 2016 artean IKT diru-laguntzen deialdia egin da, euskara sustatzea, zabaltzea eta/edo normalizatzea helburu hartuta informazioaren eta teknologiaren teknologietan, euskarazko webgune berriak sortuta.

- Ekimen horiei gehituta, nabarmentzekoa da, era berean, erakunde publikoetara bideratutako immigrazioaren eta bizikidetza multikulturalaren alorreko jarduerak gauzatzeko laguntza-programa.

Planaren indarraldian 34 izan dira, eta haien helburua toki-erakundeek egiten dituzten esku-hartze sozialak eta ekimenak babestea da.

Efikaziaren balioespena

Ez daukagu informazio espezifikorik, hartutako neurrien efikazia osorik balioesteko aukera ematen duenik.

## 7. arloa. Aisialdia




### Ekintzen deskribapen orokorra

Aisiaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia

Gazteek aisialdiaren alorrean egiten dituzten jarduerak oinarrizkoak dira haien nortasuna osatzeko. Azkeneko urteetan zehar, ideia batek indarra hartu du poliki-poliki: praktikatzen dugun aisialdiak, beste hainbat faktorerekin batera, nortasunen eta bizitza-estiloan eragina duela, neurri handi batean behintzat. Gaur egun, azken urteetan izan dugun bilakaeraren ondorioz, aisialdirako denbora gehiago dugu eta, horrenbestez, eskaintza zabalagoa topa dezakegu aisialdi hori igarotzeko moduarekin loturik.

Aisialdiaren bilakaera horretan, badira oinarrizko bi alderdi gazteei eragiten dietenak: alde batetik, IKTek esparru horretan izan dezaketen eragina, eta, bestetik, bi hizkuntza koofizialak bermatzeko modua. Gazteriaren Euskal Behatokiaren arabera, honako datu hauek ateratzen dira gazteen aisialdi-denborari erreparatuta:

- Gailu mugikorretan musika entzutea (% 81,9), filmak edo serieak ikustea (% 52,5), YouTube eta bestelako plataformetako bideoak ikustea (% 43,1) eta bideo-jokoetan aritzea (% 14,8) dira, antza denez, jarduerarekin ohikoenak, baita kalean ibiltzea (% 56,8) eta kirola egitea (% 23,6) ere.

- Euskal gazteen % 99k badu sare sozialen bat, batez ere WhatsApp, Facebook, Instagram eta YouTube.

- Euskadiko gazteek kirolen bat egiten dute astean 3 aldiz edo gehiagotan. Ehuneko horrek gorakada handia izan du 2012-2016 aldian, % 40,2tik aipatutako % 49ra arte.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak hezkuntzako aisialdiaren eskaintza ez-kontsumista handitzeko apustua egin du III. Gazte Planean, euskararen erabilera aisialdiko jardueretan euren jakintza-mailara egokituta, baita gazteen artean sorkuntzaren eta berrikuntzaren alorreko hezkuntza-potentzialitate kritikoak sustatzeko ere, IKTekin duten aisialdiarekin lotuta. Azkenik, emakume gazteentzako kirol-praktika inklusiboak sustatu dira emakume gazteentzat, planifikatutako hezkuntza-ekintzen bidez balio positiboak transmititzeko bide gisa.

Aisiaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak

2. ardatzaren barruan –bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa–, III. Gazte Planak honako lau erronka hauek biltzen ditu aisiaren alorreko enuntziatu estrategikoan.

- Gazteen artean kirola egitea sustatzea, maila guztietan eta oinarriko kirolari arreta jarrita, sozializatzeko tresna gisa eta aisialdi osasungarrirako modu gisa, garrantzi berezia emanda emakume gazteei eta maila sozioekonomikoan egoera txarrenean dauden populazio-taldeei.
- Gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaldu eta hobetzea, genero-desberdintasunei helduta.

- Gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa.
- Aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 5 helburu estrategiko, 16 esku-hartze lerro eta 35 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek aisiaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin**.

Ondoren, aisiaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| |
|---|
| **2. ARDATZA.- BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA** |
| **7. arloa. Aisia** |
| |
| **7.1.- Gazteen artean kirola egitea sustatzea, maila guztietan, arreta berezia jarriz oinarriko kirolari, sozializatzeko tresna gisa eta aisialdi osasungarrirako modu gisa.** |
| 7.1.1.- Txiki-txikitatik kirolaniztasuna sustatzea, diziplina anitzeko eskaintza garatuz.<br>7.1.2.- Gazteek aisialdia eta astialdia aprobetxatzeko kirola egitea sustatzea, ohitura kaltegarriagoen ordezko aukera gisa, batik bat emakume gazteengan jarriz arreta.<br>7.1.3.- Kirolaren bitartez gizartean balioak ezartzeko bide ematea, kirol-erakundeen, kluben, kiroleko profesionalen eta hedabideetako profesionalen arteko hezkuntza-prozesuak antolatuz, nahita eta jakinaren gainean. |
| **7.2.- Gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaldu eta hobetzea.** |
| 7.2.1.- Toki-erakundeei laguntzak ematea aisialdi alternatiboko jarduerak antolatzeko, baita gazteek erabiltzeko ekipamenduak hobetzeko ere.<br>7.2.2.- Animazio soziokulturalaren arloko bitartekariak prestatzea.<br>7.2.3.- Ikus-entzunezkoekin, informatikarekin eta teknologia berriekin lotutako aisialdi-programa publikoak egitea.<br>7.2.4.- Lehendik ere bazeuden ekipamenduen erabilera optimizatzea eta kultura- eta kirol-ekipamenduaren alorreko premia berriak identifikatzea, genero-ikuspegiak kontuan harturik. |
| **7.3.- Gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa.** |
| 7.3.1.- Euskal udalerrietako aisialdiaren egoera aztertzea eta aisialdiko ikuspegi berriak zehaztea.<br>7.3.2.- Asoziazionismoa sustatzea.<br>7.3.3.- Gazteen, gazte kolektiboen eta administrazioaren arteko elkarrizketa- eta kudeaketa-guneak ezagutzea, indartzea eta ezartzea.<br>7.3.5.- Parte hartzeko modu berriak sustatzea eta ezagutzea.<br>7.3.6.- Gazteek tokiko mailan parte har dezatela sustatzea.<br>7.3.7.- Gazteen boluntariotza-programak garatzea hainbat alorretan: larrialdiak, immigrazioa, gizartea, hezkuntza, ingurumena, eta gizonek boluntariotza-programa horietan parte har dezatela sustatzea. |
| **7.4.- Aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.** |
| 7.4.1.- Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea. |

Honako grafiko honetan erakusten den moduan, eta modu oso esanguratsuan, aisiaren arloaren barruan 7.3 helburuak dauka jardueren proportzio handiena (% 60), eta horiek guztiak gazteen ekimena handitzea eta sustatzea izan dute helburu, hala banakakoa nola taldekakoa. Bigarren tokian, 7.2 helburuak (gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaldu eta hobetzea) hartu ditu aisiaren arloan antolatutako jardueren % 23.

Gráfico 7.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




Aurrekontuari dagokionez, 7.3 helburua gainerako helburuen gainetik nabarmendu da berriro ere, arlo horretarako egikaritutako aurrekontuaren % 75,9 biltzen baitu. Bestetik, 7.1 eta 7.2 helburuetarako aurrekontuek osatzen dute arlorako aurrekontuaren gainerakoa, izan ere, 7.4 helburua (aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea) jarduera bakarrak osatzen du, eta Kirol eta Gazteria Zuzendaritzak hartzen du hartarako giza baliabideen kostua.

Gráfico 7.2: Presupuestos ejecutados por objetivos estratégicos




Aurrekontu-ikuspegi orokorra

**2014 eta 2016 artean, guztira 7.914.062 euro baino gehiago bideratu dira aisiaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren % 1,4.**

III. Gazte Planaren urte bakoitzerako egikaritutako aurrekontuaren analisi xehatuak oreka-ikuspegia ematen du aldi bakoitzean egikaritutako zenbatekoetan. Hala eta guztiz ere, eskura dugun informazio partzialaren ondorioz eta oreka horrekin kontrastean, programatutako aurrekontuak modu esanguratsuagoan aldatu dira.

Gráfico 7.3: Presupuestos programados y ejecutados entre los años 2014 y 2016




Hiru urteetarako ikuspegi orokorra eginda, ikusiko dugu aisiaren arloak programatutako aurrekontuaren % 52 egikaritu duela. Ebaluazioan ikusten den moduan, eta ekintza batzuetarako dugun informazio-faltaren eraginez, datu hori gutxi-gorabeherakoa izango litzateke.




Bestetik, aurrerago adierazi dugun moduan, egikaritutako aurrekontuei buruzko informazio partzialak desbideratzeak ageri ditu 7.3 helburuan (gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa).

Horrez gain, eta hirugarren helburuarekin kontrastean, 7.1 helburuak (kirola sustatzea gazteen artean) eta 7.2 helburuak (gazteentzako aisialdirako eskaintza hobetzea) programatutakoa baino aurrekontu handiagoak egikaritu dituzte, garrantzi apalagoko desbideratzeekin bada ere. Lehendabiziko helburuaren kasuan, programatutako aurrekontua % 5 gainditu du, eta 7.2 helburuak, berriz, % 17.




## Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza

### *Gazteak helburu*

Aisiaren alorrean jasotako ekintzen % 51 gazteei bakarrik zuzenduta egon dira, eta egikaritutako aurrekontuaren % 73 osatu dute. 7.4 helburuan izan ezik, jarduera guztiek jarduteko foku orokorra baitute, gainerako helburuetan gazteak ardatz dituzten jarduerak ageri dira; nolanahi ere, 7.2 helburua nabarmenduko genuke (gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaltzea eta hobetzea). Haren atzetik, 7.3 helburua dugu, jardueren % 57 gazteei bideratua duena (gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa).




### *Transbertsalitatea aisiaren arloan*

Gazteentzako aisiaren arloko ekintzak egiterakoan izandako transbertsalitate-maila apala izan da. Honako grafiko honetan ikus daitekeenez, egikaritutako aurrekontuaren banaketa eta aisiaren arloan esku hartzen duten zuzendaritza bakoitzaren jarduera kopurua daude bilduta. Ikusten dugun moduan, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak eta Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritzak batu dituzte arlo honetako ekintzen % 83, eta horrek, aldi berean, egikaritutako aurrekontuaren % 94 hartzen du.

Gráfico 7.6: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Ocio




*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza*

Aisiaren arloko lankidetzak hainbat ekintza planteatu ditu, zeinetan arduradunak kanpoko eragileekin lankidetzan izan baitira jarduera horiek mamitzeko garaian. Hartara, aisiaren arloko jardueren % 23k kanpoko eragileekin jardun dute lankidetzan, dela kirol-sozietate anonimoekin, kirol-federazioekin, toki-agentziekin, GKEekin eta abarrekin. Jarduera horiek, besteak beste, gazteei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak hartzen dituzte, edota gazteen artean GKEekin lankidetzan jarduteko deia egitea lankidetzako ekintzetan.




Egoera horren aurrean, honako grafiko honetan jasotzen den moduan, guztira egikaritutako aurrekontuaren % 75 hirugarrenekin lankidetza-maila apalekotzat katalogatutako ekintzetara bideratu da.

Gráfico 7.7: Presupuesto ejecutado y número de actuaciones según grado de coordinación con agentes externos




**7.1. helburua. - Gazteen artean kirola egitea sustatzea, maila guztietan, arreta berezia jarriz oinarriko kirolari, sozializatzeko tresna gisa eta aisialdi osasungarrirako modu gisa.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**7.1.1.-** Txiki-txikitatik kirolaniztasuna sustatzea, diziplina anitzeko eskaintza garatuz.

**7.1.2.-** Gazteek aisialdia eta astialdia aprobetxatzeko kirola egitea sustatzea, ohitura kaltegarriagoen ordezko aukera gisa, batik bat emakume gazteengan jarriz arreta.

**7.1.3.-** Kirolaren bitartez gizartean balioak ezartzeko bide ematea, kirol-erakundeen, kluben, kiroleko profesionalen eta hedabideetako profesionalen arteko hezkuntza-prozesuak antolatuz, nahita eta jakinaren gainean.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Aisialdiaren arloa osatzen duten lau helburu estrategikoetatik lehendabizikoa hiru esku-hartze lerrok osatzen dute, eta arlo horretarako egikaritutako aurrekontuaren % 7 dira. Honako grafiko honetan ikus dezakegun bezala, 7.1.1 esku-hartze lerroak (txiki-txikitatik kirolaniztasuna sustatzea, diziplina anitzeko eskaintza garatuz) hartzen du egikaritutako aurrekontuaren zati handiena (% 90), eta atzetik 7.1.3 lerroa du (gizartean balioak ezartzen laguntzea kirolaren bitartez).

Gráfico 7.8: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Bestetik, 7.1 helburua osatzen duten esku-hartze lerroetako bakoitzaren aurrekontu programatuaren eta egikarituaren arteko ikuspegi konparatiboari dagokionez, ikus dezakegu desbideratze bakarra 7.1.3 lerroan gertatzen dela, non egikaritutako aurrekontua programatua baino % 49 handiagoa baita.

Gráfico 7.9: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Estalduraren balioespena egiteko informazioa garatutako jardueren % 77 ingururako dago eskura, eta guztira 8.962 erakunde eta pertsona onuradun kontabilizatu dira (kirol-elkarteak eta -klubak, kirol-entitateak, ikasleak eta herritarrak, oro har).

Gazteen kolektiboan kirol-praktika sustatzera begirako helburu gisa, Eskola Kiroleko Jokoak antolatzeko ekimena nabarmendu behar da, baita Unibertsitateko Kiroleko Jokoak ere, eskolako adinean eta unibertsitate-ikasleen artean kirola sustatzeko helburuarekin. Ekimen horren bidez, guztira 8.754 ikasle onuradun izan dira.

Efikaziaren balioespena

Jarduera horien efikazia modu xehatuan balioesteko behar beste informazio espezifiko ez daukagu. Halere, esan dezakegu helburu horren barruan III. Gazte Planean egindako jarduerek harrera ona izan dutela euskal gazteen artean, partaidetza-maila handia izan baitute.

Gazteriaren Euskal Behatokiak emandako informazioaren arabera eta aurrekoari gaineratuta, kirol-jardunean emakumeen eta gizonen arteko etenaren analisian futbola kontuan hartu gabe (gizonen % 29,4k dio futbolean jokatzen duela, eta emakumeen % 3,1ek bakarrik), neska-mutilen arteko kirol-jarduna ez da horren desberdina.

**7.2. helburua. - Gazteen artean kirola egitea sustatzea, maila guztietan, arreta berezia jarriz oinarriko kirolari, sozializatzeko tresna gisa eta aisialdi osasungarrirako modu gisa.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**7.2.1.-** Toki-erakundeei laguntzak ematea aisialdi alternatiboko jarduerak antolatzeko, baita gazteek erabiltzeko ekipamenduak hobetzeko ere.

**7.2.2.-** Animazio soziokulturalaren arloko bitartekariak prestatzea.

**7.2.3.-** Ikus-entzunezkoekin, informatikarekin eta teknologia berriekin lotutako aisialdi-programa publikoak egitea.

**7.2.4.-** Lehendik ere bazeuden ekipamenduen erabilera optimizatzea eta kultura- eta kirol-ekipamenduaren alorreko premia berriak identifikatzea, genero-ikuspegiak kontuan harturik.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

Aisiaren arloa osatzen duen bigarren helburua (gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaldu eta hobetzea) guztira lau esku-hartze lerrok eta 8 ekintzak osatzen dute. Honako grafiko honetan helburu horretako esku-hartze lerroen artean egikaritutako aurrekontuaren banaketa biltzen da; hala, 7.2.1 lerroa nabarmendu behar dugu (toki-erakundeei laguntzak ematea aisialdi alternatiboko jarduerak antolatzeko, baita gazteek erabiltzeko ekipamenduak hobetzeko ere).

Gráfico 7.10: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Aisiaren arloko bigarren helburua osatzen duten esku-hartze lerro bakoitzerako programatutako eta egikaritutako aurrekontuen ikuspegi konparatibo zehatzagoari heltzen badiogu, honako grafiko honetan ikusiko dugu oreka ageri dela aurrekontuen artean oro har, 7.2.4 esku-hartze lerroan izan ezik, non programatutakoa baino gehiago egikaritu baita. Lerro horrek gainerako guztiek baino aurrekontu apalagoa ageri du, eta, horregatik, programazioaren eta exekuzioaren arteko aldakuntza horrek ez du eragin mamitsurik helburuan oro har.

Esku-hartze lerroei dagokienez, 7.2.1 eta 7.2.3 esku-hartze lerroek programatutakoa baino aurrekontu handiagoa egikaritu dute, % 10 eta % 6 gehiago hurrenez hurren, eta 7.2.2 lerroak, berriz, programatutako aurrekontuaren % 69 egikaritu du.

Gráfico 7.11: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




Estalduraren balioespena

Ez dago behar beste informazio jarduera horien estaldura balioesteko, ekintzen % 18rako bakarrik baititugu erakunde eta pertsona onuradunei buruzko datuak.

Efikaziaren balioespena

Helburu horri erantzuteko diseinatutako jardueren multzoak honako xede hau du: gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaltzea eta hobetzea. Hartara, batez ere toki-erakundeei laguntzak emanda aisialdi alternatiboko jarduerak antolatzeko, baita gazteek erabiltzeko ekipamenduak hobetzeko ere, hainbat ekintza garatu dira esandako helburu hori betetzera bideratuta.

Neurri horien efikaziari buruzko analisi espezifikorik egin ezin badugu ere, inolako zalantzarik gabe, lanean jarraitu behar da gazteen artean kirol-praktika uztea murrizteko; izan ere, Gazteriaren Euskal Behatokiaren esanetan, praktika hori apaldu egiten da lan-munduan hastean.

### 7.3. helburua. - Gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa.

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**7.3.1.-** Euskal udalerrietako aisialdiaren egoera aztertzea eta aisialdiko ikuspegi berriak zehaztea.

**7.3.2.-** Asoziazionismoa sustatzea.

**7.3.3.-** Gazteen, gazte kolektiboen eta administrazioaren arteko elkarrizketa- eta kudeaketa-guneak ezagutu, indartu eta ezartzea.

**7.3.5.-** Parte hartzeko modu berriak sustatu eta ezagutzea.

**7.3.6.-** Gazteek tokiko mailan parte har dezatela sustatzea.

**7.3.7.-** Gazteen boluntariotza-programak garatzea hainbat alorretan: larrialdiak, immigrazioa, gizartea, hezkuntza, ingurumena, eta gizonek boluntariotza-programa horietan parte har dezatela sustatzea.

<u>Aurrekontu-dedikazioaren balioespena</u>

Hurrengo helburuak, aurreko ataletan aipatu dugun moduan, aisiaren arlorako egikaritutako aurrekontu osoaren % 76 hartzen du, eta haren xedea honako hau da: gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa. Guztira sei esku-hartze lerrok osatzen dute, eta, aldi berean, 21 ekintza biltzen dituzte. Horien artean, nabarmentzekoa da 7.3.2 esku-hartze lerroa (asoziazionismoa sustatzea). Lerro horren atzetik, honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, 7.3.7 lerroa topatuko dugu (gazteen boluntariotza-programak garatzea hainbat alorretan).




Ondoren ageri den grafikoan, ikus dezakegu programatutako eta egikaritutako aurrekontuen arteko desbideratze nagusia 7.3.2 esku-hartze lerroan gertatzen dela, eskura daukagun informazio partzialaren arabera.

Gráfico 7.13: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica




<u>Estalduraren balioespena</u>

Eskura dugun informazioarekin, guztira 335.295 onuradun kontabilizatu dira, besteak beste hirugarren sektoreko elkarteak eta entitateak, komunikabideak eta gazteak.

- Nabarmendu beharreko ekintzen artean, hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak aipatu behar ditugu; horietarako, 1,7 milioi euroko aurrekontua eskaini da, eta, haien bidez, hirugarren sektoreko 271 elkarte eta entitatetara iritsi gara, pertsonen, familien eta taldeen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa babesteko eta sustatzeko. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak gazteen inplikazioa ere nahi du hirugarren sektorearekin, eta elkartasun-praktika horiek gero eta gazte kopuru handiagoarengana gerturatzea nahi du.

- Era berean, Euskal Gazte Kooperatzaileak programaren barruan, zeinaren helburua honako hau baita: Euskadiko gazteak garapenerako lankidetzako ekintzetan sentsibilizatzea hegoaldeko herrialdeetan, eta euskal gazteen artean herrien eta kulturen aldeko elkartasun kultura sustatzea. Horretarako, aukeratutako parte-hartzaileak guztira 281 izan dira 2014 eta 2016 artean, eta zuzenean esku hartzen dute garapenerako lankidetza-proiektuetan, Amerikako, Asiako eta Afrikako herrialdeetan. Hala, tokian bertan garatzen dituzte ekintza horiek.

- Azkenik, nabarmentzekoa da, era berean, gazteaukera.euskadi.net ataria ere; webgune horren bidez, gazteek informazioa Internet bidez eskuratzeko modua hobetu eta zabaldu nahi da bide telematikoetatik (gazteentzako zerbitzuak eta jarduerak ugaritzea Internet bidez, gazteen arloko azken berrikuntzak zabaltzea eta abar). Planak indarrean iraun duen hiru urteetan, guztira 30 urtez azpiko 328.197 gaztek eta gazteen esparruko profesionalek izan dute informazioa eskuratzeko modua.

<u>Efikaziaren balioespena</u>

Gazteen aisialdiarekin lotutako agenterik garrantzitsuenen artean, ezinbestekoa da azpimarratzea kidetze-mugimenduak arlo horretan jokatzen duen egiteko garrantzitsua. Elkarteek, gazteei aisialdiko eta denbora libreko eskaintza zabala emateaz gain, garrantzi berezia hartzen dute gazteek euren ekimenak burutzeko kanal gisa konfiguratzen baitira, eragile aktibo eta protagonista izan daitezen euren ingurunea eraikitzeko eta eraldatzeko lanean.

Horrez gain, asoziazionismoarekin oso modu lotuan, boluntariotzaren fenomenoa ere hortxe daukagu: euskal gazteen % 6k egiten dituzte halakoak GKE edo antzeko erakunderen batean.

Jarduera horien efikazia neurtzeko behar beste informazio ez baldin badaukagu ere, jarduera horien multzoak asoziazionismoa sustatzen lagundu du, baita gazteen boluntariotza sustatzeko programak garatzen ere hainbat esparrutan, edota gazteen partaidetza bultzatzen toki-ekimenetan, partaidetzako aisialdia sustatzen eta abarretan.

**7.4. helburua. - Aisiako jardueretan euskararen erabilera sustatzea.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

**7.4.1.-** Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

7.4 helbururako (aisiako jardueretan euskararen erabilera sustatzea) egikaritutako aurrekontu-dedikazioari dagokionez, helburu horrek ez du izan aurrekonturik programatuta; izan ere, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak hartu du bere gain, hura arduratzen baita helburu horren barruko jarduera bakarraz.

Estalduraren balioespena

Helburu hori osatzen duen jarduera nagusia honela mamitzen da: programak edo jarduerak egitean euskararen erabilera kontuan izatea eta balioestea gazteriaren alorrean diru-laguntzak ematerakoan. Hartara, guztira 206 gazte-elkartetara iritsi da, eta haietan garatutako jardueretan euskara sustatzea lortu da.

Efikaziaren balioespena

Ez dago efikaziari buruzko balioespena egiteko behar beste informazio ekimen honetarako.

# 8. arloa. Kontsumoa




## Ekintzen deskribapen orokorra

Kontsumoaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia

Eusko Jaurlaritzak kontsumoaren arloan gazteen kolektiboari begira egindako lana, III. Gazte Planari dagokionez, honako apustu lehentasunezko honek markatuta egon da: kontsumo arrazionalaren[12], arduratsuaren eta jasangarriaren aldeko ohiturak sustatzea, gazteek kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak defendatzeko administrazioen borondatea abiapuntu hartuta.

Osasunaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak

2. ardatzaren barruan –bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa–, III. Gazte Planak honako bi erronka hauek biltzen ditu kontsumoaren alorreko enuntziatu estrategikoan.

- Gazteak prestatzea eta heztea kontsumoarekin lotura duten alor guztietan. Hori egitean, haien kontsumitzaile-eskubideen berri emango zaie gazteei; publizitatearen eragina ezagutaraziko zaie; publizitatea kritikoki ikusten irakatsiko zaie; eta hainbat alorretako produktuak modu seguruan eta arduratsuan kontsumitzeko eta erabiltzeko jarraibideak emango zaizkie.
- Arduraz eta ingurumenaren aldetik modu jasangarrian kontsumitzeko ohitura sustatzea.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak helburu estrategiko bat abiarazi du (ondoren beste bi helbururekin osatuta: guztira 3 helburu estrategiko), eta 3 esku-hartze lerro eta 13 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek kontsumoaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin**.

[12] Hala, 2017ko gazteen diagnostikoa kontuan izanda, kontsumo arrazionaltzat hartzen da pentsatutako ekintza gisako kontsumoa eta produktuaren edo zerbitzuaren aukeraketarekin amaitzen ez dena, baizik eta erosteko prozesu osoarekin lotutakoa. Halaber, kontsumo jasangarritzat hartzen da beharrizanak ase nahi dituena, gehiegikeriak murriztuta eta ingurumen-kalteak saihestuta.

Ondoren, kontsumoaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| |
|---|
| **EJE 2 - CALIDAD DE VIDA Y COHESIÓN SOCIAL** |
| **Área 8- Consumo** |
| **8.1.- Promover hábitos y actitudes de consumo racional responsable y sostenible, desde una perspectiva de género.** |
| 8.1.1.- Desarrollar acciones de sensibilización entre las personas jóvenes que permitan avanzar en hábitos y actitudes de consumo responsable y ambientalmente sostenible.<br>8.1.2.- Trabajar la influencia de la publicidad en el consumo para la adquisición de una visión crítica de la misma.<br>8.1.3.- Ofrecer educación y formación para el consumo y utilización responsable y segura en diversos ámbitos: alimentación, ocio y nuevas tecnologías. |

Nabarmendu behar da III. Gazte Planak hasierako definizioan 8.1 helburua bakarrik jasotzen duela: kontsumo arrazional arduratsu eta jasangarriko ohiturak eta jarrerak sustatzea, genero-ikuspegitik. Aldiz, 8.2 eta 8.3 helburuak plana bera gauzatzen ari zela sortuak dira, nahiz eta esku-hartze lerro estrategiko bakarrari egiten dioten erreferentzia; hau da, *8.1.1 «Gazteen artean sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, arduratsuak eta ingurumenari dagokionez jasangarriak diren kontsumo-ohitura eta -jarreretan aurrera egiteko»* izeneko lerroari, zeina hasiera batean 8.1 helburuan baitzegoen definituta eta jasota.

Helburu estrategikoen araberako jardueren banaketak **8.1 helburuaren nagusitasun garbia erakusten du (kontsumo arrazional arduratsu eta jasangarriko ohiturak eta jarrerak sustatzea, genero-ikuspegitik) beste guztien gainetik (% 80)**.

Gráfico 8.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




Metatutako aurrekontu-dedikazioaren analisiak erakusten duenez, **bitartekoak banatzeko pisua modu orekatuan banatu da jarduerekiko**, eta % 97 egikaritu da 8.1 helburuari erantzuteko.

Honako grafiko honek erakusten du kontsumoaren arloak egikaritutako aurrekontuaren banaketa, hiru helburu estrategikoetako bakoitzaren arabera.




8.2 helburuak (aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea) ez dauka aurrekonturik esleituta, Euskadiko jokoari buruzko dekretua onartzearekin lotutako jarduera bakarra biltzen baitu; hori hala izanik, ez dauka partidarik esleituta, Jokoen eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren gastu orokorretan bilduta baitago, jardueraren arduradun den aldetik.

Aurrekontu-ikuspegi orokorra

**2014 eta 2016 artean, milioi bat eta berrehun mila euro baino gehiago bideratu dira kontsumoaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren % 0,2.**




Goiko grafikoan ikusten den moduan, Planak indarrean iraun duen bitartean egikaritutako aurrekontuak egonkor iraun du 2014 eta 2015 urteetan, eta besteen gainetik nabarmentzen da 2016ko aurrekontu-zuzkidura, programatua eta egikaritua (denbora-tarte horretarako bideratutako aurrekontuaren % 63 urte horretan bildu baita). Hazkunde horren arrazoi nagusia, batez ere, Tokiko Agenda 21 proiektuarekin lotuta dago, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren ardurapekoa; hala, 600.000 eurorekin lehendabizikoz 2016an egin zuen bat III. Gazte Planarekin.

**Hiru urteko epealdi osorako, kontsumoaren arloarekin lotuta egikaritutako aurrekontuak programatutako aurrekontuaren % 124 izan dira.**

Helburu estrategiko bakoitzerako programatutako eta egikaritutako aurrekontuari dagokionez, alde nabarmena ageri da hiruren artean: 8.1 helbururako bideratutako aurrekontuaren kasuan, % 20an gainditu da; bigarrenari dagokionez, ez du izan aurrekontu-partida propiorik, eta hirugarren helburuaren kasuan, berriz, programatutakoa baino zazpi aldiz aurrekontu handiagoa egikaritu du.




## Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza

*Gazteak helburu*

Kontsumoaren arloko jardunbideen garapena zati berdinetan banatzen da ia gazteen kolektiboari begiratzen diotenen artean (guztizkoaren % 54) eta ezaugarri orokorragoak dituzten eta, hortaz, kolektibo horretara berariaz begiratzen ez dutenen artean (% 46). Hala ere, gazteei bideratutako jarduerekin lotutako aurrekontuaren % 54 arlo horretarako 2014-2016 aldian bideratutako aurrekontuaren % 95 da; horrekin ondorioztatu dezakegu jarduera horiek direla esanguratsuenak eta estrategikoenak kolektiborako.




*Transbertsalitatea kontsumoaren arloan.*

Gazteen kolektibora bideratutako kontsumoaren arloko jarduerak egikaritzean izandako transbertsalitate-maila apala da; hau da, alor honetan ekimenak izan dituzten zuzendaritzen artean (Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, Jokoen eta Ikuskizunen Zuzendaritza, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua, Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritza, aurreko legegintzaldiko izendapenen arabera) euren bitartekoekin gauzatu dituzte ia ekintza gehienak, ez dute hirugarrenen lankidetzarik eskatu Jaurlaritzaren



barruan haietarako.

Hala, Agenda 21 proiektuaren kasua bakarrik aipatu behar dugu, irakasleak trebatzearekin lotutakoa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak garatua, Hezkuntza Sailaren partaidetza ezinbestekoarekin. Elkarren artean lotutako bi ekimen dira, hortaz, nolabaiteko transbertsalitate-elementua dutenak guztira aurreikusitako 13etatik.

Grafikoki, honela geratzen da irudikatuta zuzendaritza horien partaidetza, egindako jardueren eta egikaritutako aurrekontuaren arteko harremanari dagokionez:

Gráfico 8.5: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Consumo




*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza*

Kontsumoaren arloan bildutako jarduerak garatzeko Eusko Jaurlaritzaren kanpoko hirugarrenen partaidetzari erreparatzen badiogu, berriz, nabarmendu behar dugu harreman hori ekintza bakarrean gertatu dela, hain zuzen ere, Jokoen eta Ikuskizunen Zuzendaritzak sustatutako adingabeen jokorako debekuan, ikastetxeetatik gertuko esparru fisikoan bilduta. Ekimen hori 2014 eta 2016 artean gauzatu da udaltzaingoen lankidetzarekin, lortu nahi duen helburuari erantzuna emateko xedez; hau da, adingabeak eta joko- eta ostalaritza-lokaletako jabeak kontzientziatzea adingabeei jokoa legez debekatzearen inguruan.



## Emaitzen ebaluazioa, helburu estrategikoaren arabera

**8.1 helburua.- Kontsumo arrazional arduratsu eta jasangarriko ohiturak eta jarrerak sustatzea, genero-ikuspegi batetik.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

8.1.1.- Gazteen artean sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, arduratsuak eta ingurumenari dagokionez jasangarriak diren kontsumo-ohitura eta -jarreretan aurrera egiteko.

8.1.2.- Publizitateak kontsumoan duen eragina lantzea, hari buruzko ikuspegi kritikoaz jabetzeko.

8.1.3.- Kontsumo eta erabilera arduratsua eta segurua egiteko heztea eta prestatzea, hainbat esparrutan: elikadura, aisialdia eta teknologia berriak.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

8.1 helburua (kontsumo arrazional arduratsu eta jasangarriko ohiturak eta jarrerak sustatzea, genero-ikuspegitik) III. Gazte Planean etxebizitzaren arloan bildutako 13 jardueretatik 12ren bitartez garatu da. Jarduera horiek hiru bidetatik bilatzen dute ohitura eta jarrera horien sustapena: sentsibilizazioa eta difusioa, trebakuntza eta kontrola. Aurrekontu-informazioak helburu horretarako hiru lerro zabaltzea aurreikusten du (ikusten dugunez, lehendabiziko lerro estrategikoak hartzen du aurrekontu-ahalegina eta -dedikazioa, eskura dugun informazioaren arabera).




Milioi bat euro baino gehiagoko aurrekontua egikarituta, 8.1.3 lerro estrategikoa nabarmentzen da (kontsumo eta erabilera arduratsua eta segurua egiteko heztea eta prestatzea, hainbat esparrutan: elikadura, aisialdia eta teknologia berriak), eta, haren barruan, bi proiektu jakin.

- Batetik, Agenda 21 proiektua, unibertsitatez kanpoko ikastetxeei diru-laguntzak emateko lerroa, jasangarritasunaren bidean hezkuntza sustatzeko xedez, eta 600.000 euro egikaritu ditu 2016an. Hala, esandako lerroaren barruko zati esanguratsua izan da.
- Bestetik, urteroko Gazte Txartela kanpaina, urtean batez beste 100.000 euro egikaritu dituena 2015 eta 2016 artean.

Estalduraren balioespena

Egindako bederatzi ekintzen inguruko informazioa baldin badugu ere, jarduera horietako gutxitan da informazio hori nahikoa gazteen arteko egiazko estalduraren balioespena egin ahal izateko. Dena dela, honako baieztapen hauek egin ditzakegu.

- Agenda 21 proiektua (Eskolako Agenda 21 proiektua) unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-zentroetara bideratuta dago, eta Hezkuntza Sailarekin batera mamitzen da. Alde horretatik, 2016an 471 ikastetxek baliatu dute esandako programa hori.
- Gazte Txartela da Europarako homologatutako gazte-txartel bakarra, European Youth Card Association (EYCA) elkarteak emana baita. Hori dela eta, Gazte Txartela daukaten gazteek, eskaintzen dituen abantailez gozatzeaz gain, beste autonomia-erkidego batzuetako txartelen abantailez ere baliatu ahal izango dute, baita EYCArekin bat egindako Europako 38 herrialdeek eskainitakoez ere.

  Alde horretatik, ondasun eta zerbitzu soziokulturalak eta komertzialak gazteen esku ipintzeko abantailak zabaltzeko eta hobetzeko xedez, ahaleginak egin dira Gazte Txartela gehiago erabil dadin euskal gazteen artean; hala, 2014an 31.252 erabiltzaile izatetik 2016an 41.688 izatera igaro da; hau da, % 34ko hazkundea izan du txartel horren abantailak baliatzen dituen kolektiboak. Hazkunde horrekin batera izan dira, era berean, zerbitzuan eskainitako hobekuntzak, hala nola mugikorretarako aplikazio bat eskura ipintzea edota lankidetza kopurua handitzea (8 guztira 2016an), baita zabaltzeko kanalak hobetzea ere (unibertsitateko aldizkaria, sare sozialak eta abar).

- Prestakuntza izan da alderdirik garrantzitsuenetako bat, euskal gazteek euren kontsumo-erabakiak modu arrazionalean eta jasangarrian hartu ahal izan ditzaten. Horretarako, garrantzi berezia izan du Kontsumobidek abiarazitako trebakuntzako ekintza publikoak, hainbat trebakuntza-tailer eskaini baititu alor desberdinetan (etiketatzea, erosketak eta zerbitzuak, kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak, segurtasuna, finantza-zerbitzuak eta elikadura, jasangarritasuna, teknologia berriak eta publizitatea). Kontsumobide herritar guztiei oro har zuzendu bazaie ere[13], gazteen kolektiboak lehentasuna izan du eta estrategikoa da haren jardunean; hala, ekintza espezifikoak ipini ditu martxan ikasleen kolektiboari zuzenduta (lehen mailako hezkuntzatik bigarren mailako lehen ziklora arte), ikastetxeek eurek eskatuta.

  Hala, hiru urtean zehar 39.200[14] ikaslek parte hartu dute Kontsumobidek urtean batez beste antolatutako 1.600 ekintza ingurutan: Ikasleen % 58k etiketatzeari, erosketa eta zerbitzuei, kontsumitzaileen betebeharrei eta eskubideei, segurtasun eta finantza-zerbitzuei eta elikadurari buruzko prestakuntza-jardueretan parte hartu du; % 22k jasangarritasun-tailerretan (hondakinak, baliabide naturalak, kontsumo arduratsua), % 11k teknologia berrien tailerretan (merkataritza elektronikoa, Internet mugikorrean, gazteak eta nabigazio segurua), eta % 9k, azkenik, publizitatearen alorreko tailerretan eta jardunaldietan.

- Azkenik, sentsibilizazio-lanak ikuspegi globalagoarekin egiteko lanei dagokienez, nabarmentzekoak dira araudiaren alorrean egindako lanak (enpresen eta joko-lokalen publizitatea arautzen duen dekretua izapidetzea), kontrolaren alorrean egindakoak (150 kontrol baino gehiago adingabeei, joko-lokaletan) eta kanpainen garapen espezifikoa (joko arduratsuari eta adingabeei jokoa legez galarazteari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak komunikabideetan).

  Testuinguru horretan, joko arduratsuari buruz gazteei zuzendutako bideo-joko baten garapena aipatu behar da, Jovoker, baita unitate didaktiko bat ere, hezkuntza-ikuspegia duena eta 13 eta 22 urte bitarteko gazteak sentsibilizatu nahi dituena, nahiz eta jokalari kopurua oraindik apala izan urte horietan.

[13] Ez daukagu informaziorik Kontsumobidek martxan ipinitako trebakuntza-tailerren aurrekontuei buruz.

[14] Ez dago daturik 2016rako.

Efikaziaren balioespena

Ez daukagu informazio espezifikorik, hartutako neurrien efikazia balioesteko aukera ematen duenik. Nolanahi ere, esan dezakegu, satisfazio-maila neurtu den ekimenetan, Kontsumobideren tailerretako eta ikastaroetako parte-hartzaileen satisfazio-maila 8,3 puntu izan dela 10etik; datu hori bera erakusten dute, era berean, Gazte Txarteleko erabiltzaileek ere.

**Planaren ostean sortutako bi helburuei dagokienez.**

*8.2 helburua.- Aisiako jardueretan euskararen erabilera sustatzea (jarduera bakarra eduki du lotuta, jokoaren dekretua).*

*8.3 helburua.- Gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa (jasangarritasun-tailerrak eta Agenda 21 edota Ingurugela programak izan ditu lotutako jarduera gisa).*

Ekimen espezifikorik definitu ez denez, eta horren tokian 8.1 helburuan bildutako ekintzak kontuan hartu direnez, helburu berri horiei ekarpena egiten dieten jarduera gisa, ez dago zabaltze analitikoa egin beharrik; izan ere, ekintza horiek bilduta daude 8.1 helbururako egindako aurrekontu-analisian eta gainerakoetan.

# 9. arloa. Mugikortasun jasangarria




## Ekintzen deskribapen orokorra

Mugikortasun jasangarriaren alorreko jarduna gazteekin loturik: III. Gazte Planean jasotako ikuspegia

EAE osorako estrategia orokor osoan biltzen den moduan, mugikortasunaren kontzeptuak espazio-mugikortasuneko irizpideei egingo die erreferentzia, ikasketak, lana edota aisia dela medio ia modu egunerokoan gertatzen direnean, analisi honetan betiere gazteei erreparatuta.

EAEko garraioaren errealitatea, oro har, errepide bidezko mugikortasuna eta ibilgailu-parkea oro har handitu izanarekin deskribatu daiteke, eta, gazteei dagokienez, azpimarratu dezakegu hazkunde handia izan duela garraiobide jasangarriak egunero erabiltzeko joeran (garraio publikoa eta bizikleta); hala, 2012an % 9,6 izatetik 2016an % 13,4 izatera igaro da.

III. Gazte Planari dagokionez, mugikortasun jasangarriaren arloaren bidez garraio publikoko ordezko aukerak eskaini nahi dira, gazteek ikasteko, laneko eta aisiako tokietara joateko modua izateko, baita oinezko mugikortasuna sustatzeko eta gazteen artean bizikleta indartzeko ere.

Mugikortasun jasangarriaren alorreko marko estrategikoa: planean jasotako erronkak, ardatzak eta lerroak

2. ardatzaren barruan –bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa–, III. Gazte Planak honako bi erronka estrategiko hauen inguruan egituratzen du mugikortasun jasangarriaren alorreko enuntziatu estrategikoa.

- Gazteek motordun garraiobide pribatuaren ordezko beste bide batzuk erabil ditzatela nahi badugu, aukerako beste garraiobide horien azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetu beharko ditugu, gizonen eta emakumeen arteko aldeak aintzat hartuta.
- Bestelako mugikortasun-ereduen erabilera bultzatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta, garraio pribatu motordunaren ordez, sentsibilizatuz eta kontzientzia harraraziz.

Erronka estrategiko horietatik abiatuta, **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak guztira 2 helburu estrategiko, 3 esku-hartze lerro eta 7 ekintza prestatu ditu, euskal gazteek mugikortasun jasangarriaren alorrean dituzten premiei erantzuna eskaintzeko xedearekin**.

Ondoren, mugikortasun jasangarriaren alorrerako marko estrategikoa jasoko dugu.

| 2. ARDATZA.- BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA |
|---|

| **9. arloa.- Mugikortasun jasangarria** |
|---|
| **9.1.- Zerikusia duten azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetzea, garraio pribatu motordunaren ordezko garraiobideekin lotura badute.** |
| **9.1.1.-** Gazteen mugikortasun-premiekin bat datorren garraio-sare publikoa sustatzea, asteburuan gaueko garraio publikoa erabiltzeari, aisialdiko eremuetan garraio publikoa erabiltzeari eta bizikleta erabiltzeari dagokionez, bereziki azpimarratuz halakoak gutxien erabiltzen dituzten lurralde historikoak. |
| **9.1.2.-** Oinezkoen mugikortasuna eta bizikletaren erabilera ahalbidetzeko eta errazteko azpiegiturak sortzea eta/edo egokitzea. |
| **9.2.- Bestelako mugikortasun-ereduen erabilera bultzatzea, garraio pribatu motordunaren ordez, sentsibilizatuz eta kontzientzia harraraziz.** |
| **9.2.1.** Garraio pribatu motordunaren ordezko garraiobideen erabileraren inguruan kontzientziatzeko/sentsibilizatzeko jarduerak egitea, asteburuan gaueko garraio publikoa erabiltzeari, aisialdiko eremuetan garraio publikoa erabiltzeari eta bizikleta erabiltzeari dagokionez, bereziki azpimarratuz halakoak gutxien erabiltzen dituzten taldeak. |

Jarduerak helburu estrategikoaren arabera banatuta, ikusiko dugu **9.2 helburuaren alde egiten dela apur bat (bestelako mugikortasun-ereduen erabilera bultzatzea, garraio pribatu motordunaren ordez, sentsibilizatuz eta kontzientzia harraraziz, % 57)**, 9.1 helburuaren gainetik (zerikusia duten azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetzea, garraio pribatu motordunaren ordezko garraiobideekin lotura badute), azken horretan jardueren % 43 biltzen baita.

Gráfico 9.1: Actuaciones por objetivos estratégicos




Dena dela, metatutako aurrekontu-dedikazioaren analisi batek erakusten digu **bitartekoen dedikazioaren pisuan % 82 bideratu dela** 9.1 helburura; hala, alde handia nabari da hartutako jardueren eta bideratutako aurrekontuaren artean. Bestetik, 9.2 helburuak, kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren bidez mugikortasun modu jasangarriak lortu nahi dituenak, aurrekontuaren % 18 hartu du.

Honako grafiko honen bidez, mugikortasun jasangarriaren arloak egikaritutako aurrekontuaren banaketa erakusten da, helburu estrategikoetako bakoitzaren arabera.




Aurrekontu-ikuspegi orokorra

**2014 eta 2016 artean, milioi bat eta bostehun mila euro baino gehiago bideratu dira mugikortasun jasangarriaren arloan planarekin loturik; hau da, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planean betetako aurrekontu osoaren % 0,3.**




Aurreko grafikoan ikusten denez, planak indarrean iraun duen urteetan egikaritutako aurrekontua murrizten joan da; hala, 2016an egikaritutako aurrekontua 2014an egikaritutakoaren % 22 izan da. Nolanahi ere, nabarmendu behar da 2014an erregistratutako desbideratzea jarduera bakarrean kontzentratu dela, MUGI-BAT-BARIK garraio-txartelen programak. Horren aurrekontua (orokorra, gazteen kolektiboa bereizi gabe) programatutako 200.000 eurotik egikaritutako 918.000 eurora igaro da. Ez daukagu hori argitzeko daturik.

**Hiru urteko denboraldi orokorrerako, mugikortasun jasangarriaren arlorako egikaritutako aurrekontuak programatutako aurrekontuarekiko % 214ko hazkundea izan du**; hau da, hasieran aurrekontuan programatutakoa baino zenbateko handiagoa gastatu da (aurreko paragrafoan azaldutako oinarrizko arrazoia dela eta).




Planaren urte bakoitzean helburuz helburu programatutako eta egikaritutako aurrekontuari dagokionez, argi eta garbi ikusten dugu egikaritutako aurrekontuan izandako desbideratzea 9.1 helburuan gertatu dela, zeinaren % 63k azpiegiturak, ekipamenduak eta ordezko garraiobideekin lotutako alderdiak hobetzeko helburua baitute.




Ekintzen karakterizazioa: ikuspegi hirukoitza

*Gazteak helburu*

Mugikortasun jasangarriaren arloak oro har modu globalean jarduten du; hala ere, gazteen kolektiboak badu, neurri txikiagoan bada ere, harentzat bereziki diseinatutako jardunbiderik. Mugikortasun mota honen inguruan gazteen portaera ulertzea eta lantzea da kontua, kolektibo horren beharrizanei erantzuteko garraioen eta azpiegituren alorreko neurriak garatzeko helburuarekin, besteak beste.

**III. Gazte Planak mugikortasun jasangarriaren alorrean biltzen dituen jardueren % 29 euskal gazteriari zuzenduta daude berariaz; hala, 1.606.274 euro bideratu dira alor honetan gazteengana.**



*Transbertsalitatea mugikortasun jasangarriaren arloan*




Gazteen kolektiborako mugikortasun jasangarriaren arloan egindako jardueren transbertsalitate-maila bereziki apala dela esan behar dugu, gaiaren espezifikotasuna dela medio eta ikusita Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak ia erabat bere gain hartzen duela. Planean bildutako ekintzei buruz daukagun informazioa oinarri hartuta, ekintzen % 14an Eusko Jaurlaritzaren beste zuzendaritza batzuekin lankidetzan jardun da.

Ondoren aurkeztuko dugun banaketan, ikusiko dugu zer-nolako harremana den egikaritutako aurrekontuaren eta mugikortasun jasangarriko arloa osatzen duten zuzendaritzek gauzatutako ekintzen artean. Ikus dezakegun moduan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak egikaritu du aurrekontu zati handiena (% 83,1), gainerako guztien gainetik alde handiarekin.

Gráfico 9.6: Distribución del presupuesto y acciones por cada Dirección participante en el Área de Movilidad Sostenible




*Kanpoko eragileekin izandako lankidetza*

Kanpoko eragileekin izandako lankidetzari dagokionez, mugikortasun jasangarriko arlorako III. Gazte Planak biltzen dituen jardueren % 43tan beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun da; horien barruan, bereziki nabarmentzekoak dira udalak eta gai honetan eskumenak dituzten erakundeak (Euskotren, Metro Bilbao, RENFE, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Gipuzkoako Garraio Agintaritza eta abar). Honako grafiko honetan ikus dezakegun moduan, egikaritutako aurrekontu handiena duten ekintzak (% 82) hirugarren eragileekin lankidetzan jardun dutenak dira.

Gráfico 9.7: Presupuesto ejecutado y número de actuaciones según grado de coordinación con agentes externos



## Emaitzen ebaluazioa, helburu estrategikoaren arabera

**9.1 helburua.- Zerikusia duten azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetzea, garraio pribatu motordunaren ordezko garraiobideekin lotura badute.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

9.1.1.- Gazteen mugikortasun-premiekin bat datorren garraio-sare publikoa sustatzea, asteburuan gaueko garraio publikoa erabiltzeari, aisialdiko eremuetan garraio publikoa erabiltzeari eta bizikleta erabiltzeari dagokionez, bereziki azpimarratuz halakoak gutxien erabiltzen dituzten lurralde historikoak.

9.1.2. - Oinezkoen mugikortasuna eta bizikletaren erabilera ahalbidetu eta errazteko azpiegiturak sortu eta/edo egokitzea.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

9.1 helburua (azpiegiturak, ekipamenduak eta garraiobide alternatiboekin lotutako bestelako alderdiak hobetzea) mugikortasun jasangarriaren arloa osatzen duten 3 esku-hartze lerroetatik 2rekin gauzatu da. Jarduera horiek, batetik, garraio publikoaren sarea hobetzea jorratzen dute, gazteen mugikortasun-beharretara egokitzeko, eta, bestetik, azpiegiturak egokitzea, oinezkoen eta bizikletazaleen mugikortasuna posible egiteko.

Ondoren ikus dezakegun moduan, egikaritutako aurrekontuaren % 89 nabarmendutako lehendabiziko puntura bideratu da: garraio publikoaren sarea sustatzera, gazteei egokituta.

Gráfico 9.8: Presupuesto ejecutado por línea estratégica




Aurrekontu-informazioak zabaltze-maila handia erakusten du 9.1.1 esku-hartze lerroan; izan ere, nahiz eta bi lerroetarako antzeko aurrekontuak programatu zituzten, lehendabiziko horrek oso modu nabarmenean handitu zuen aurrekontuaren egikaritzea.

Gráfico 9.9: Presupuestos programados y ejecutados para cada línea estratégica



<u>Estalduraren balioespena</u>

Eskura dugun informazioarekin, ia 500.000 onuradun kontabilizatu dira mugikortasunaren arloan; dena den, ezin da identifikatu zer proportzio ote dagokion gazteen kolektiboari, esandako arloko ekimenen onuradun kopuruak banatzeko garaian.

- 9.1.1 esku-hartze lerroaren barruan (gazteen mugikortasun-premiekin bat datorren garraio-sare publikoa sustatzea), garraio publikoko sareari buruzko informazioa sustatzera bideratutako ekimen bat dago Moveuskadi[15] atarian. Webgune horrek herritar guztien konplizitatea eta ohitura-aldaketak bilatzen ditu Guztira 33.437 erabiltzaile erregistratu dira plana egikaritu den hiru urteetan. Zenbateko horretan populazioa oro har hartzen da, eta, nahiz eta ez dagoen hor bildutako gazteei buruzko datu zehatza banakatzerik, pentsa dezakegu gazteen ehunekoa handia dela, kolektibo horrek garraio publikoa erabiltzeko eta aplikazio mota hori baliatzeko joera gero eta handiagoa duela ikusita.

  Bestetik, aurrez aipatu dugun moduan, lerro horren barruan foku orokorra duen ekintza bat topatu dugu: MUGA-BAT-BARIK garraio-txartelen programa. Oro har, hiru helburu nagusiri erantzuteko lan egin du:
  - garraio publikoaren alde lan egitea, hiru lurraldeetan Mugi-Bat-Barik txartelak erabiltzeko modua eginda;
  - txartel desberdinen arteko interoperagarritasuna sustatzea;
  - Euskadiko Garraio Agintaritzan koordinatzea.

- Bestalde, 9.1.2 esku-hartze lerroari dagokionez (oinezkoen mugikortasuna eta bizikletaren erabilera ahalbidetzeko eta errazteko azpiegiturak sortzea eta/edo egokitzea) ekimen bakarra biltzen du: bidegorri-sareei, bizikleta-bideei eta bizikletak alokatzeko guneei buruzko informazioa optimizatzea eta sustatzea Moveuskadi.com atariaren bidez eta bidegorrien gida-planaren segimenduaren bidez. Nahiz eta Moveuskadi atarian bizikletekin zuzenean lotutako bisitei buruzko datuak ez dauden jasota, aurreko jardueran aipatzen genuenez, orriak partaidetza-maila handiak erregistratu ditu.

<u>Efikaziaren balioespena</u>

Moveuskadi atariarekin bereziki lotuta, esan dezakegu intereseko ekimen hori berrikusten ari direla, gazteen artean erabiltzea eta zabaltzea sustatzeko.

Oro har, nabarmentzekoa da azken urteetan garraiobide jasangarrien eguneroko erabilera hazi izana, bai bizikleta, bai garraio publikoa (2012an % 9,6tik 2016an % 13,4ra igaro zen).

**9.2 helburua.- Bestelako mugikortasun-ereduen erabilera bultzatzea, garraio pribatu motordunaren ordez, sentsibilizatuz eta kontzientzia harraraziz.**

Ildo estrategikoen xehetasuna.

[15] http://www.moveuskadi.euskadi.eus/aa31-home/es/aa27aModuloWar/info

9.2.1.- Garraio pribatu motordunaren ordezko garraiobideen erabileraren inguruan kontzientziatzeko/sentsibilizatzeko jarduerak egitea, asteburuan gaueko garraio publikoa erabiltzeari, aisialdiko eremuetan garraio publikoa erabiltzeari eta bizikleta erabiltzeari dagokionez, bereziki azpimarratuz halakoak gutxien erabiltzen dituzten taldeak.

Aurrekontu-dedikazioaren balioespena

9.2 helburua (bestelako mugikortasun-ereduen erabilera bultzatzea, garraio pribatu motordunaren ordez, sentsibilizatuz eta kontzientzia harraraziz) mugikortasun jasangarriaren arloa osatzen duten hiru esku-hartze lerroetako baten bidez garatu da, hain zuzen, kontzientziazio-lanak egitea bilatzen duenaren bitartez. Lerro horren barruan, bereziki azpimarratzen da garraio publikoa gutxien erabiltzen duen kolektiboa, asteburuan gaueko garraio publikoa erabiltzea, garraio publikoa erabiltzea aisialdiko eremuetara joateko edota bizikleta erabiltzea.

Ondoren ikusten dugun moduan, programatutako eta egikaritutako aurrekontuek zenbateko ia berberak izan dituzte, eta desbideratzea hutsala izan da.




Estalduraren balioespena

«Bestelako mugikortasun-ereduen erabilera bultzatzea, garraio pribatu motordunaren ordez, sentsibilizatuz eta kontzientzia harraraziz» izeneko helburu espezifikoa sustatzera bideratuta, 9.2.1 esku-hartze lerroak kontzientziazio-lan horiek egitea du xede, arreta berezia ipinita garraio publikoa gutxien erabiltzen duten kolektiboetan. Hartara, 2014 eta 2016 bitartean, 159.773 onuradun izan dira; horien artean, herritarrak oro har, ikasle gazteak, erakunde publikoak eta bestelako erakunde profesionalak.

- Nabarmentzekoa da, lortutako onuradun kopurua aintzat hartuta, mugikortasun seguru eta jasangarriari buruzko baliabide didaktikoak prestatzea eta banatzea eskola-sisteman eta astialdian aplikatzeko. Trafiko Zuzendaritzak hartu du hori bere gain, eta haren helburua bide-arriskuko jardueren inguruan nerabe eta gazteen kolektiboan kontzientzia piztea eta prebentzioa indartzea da. Ekimen zehatz horren bidez, DBHko eta erdi-mailako irakaskuntzako 156.000 ikaslerekin jorratu da gai hori.

- Halaber, Carpooling zerbitzu bat ere abiarazi da; hau da, Moveuskadi atarian bildutako eta ibilgailu pribatua partekatzea helburu duen aplikazioa. Guztira 6.800 lagun erregistratu dira bertan, eta 1.800 bidaia. Ekimen hori ekonomia partekatura bideratutako egungo aplikazioekin sintonian dago, eta haren helburua ibilgailu pribatu edo autobus bat partekatu nahi duten pertsonen artean komunikazio-bideak egitea da, baita ibilgailu pribatua partekatzeko gizarte-ohiturak sustatzea ere, aldi berean neurri horiekin zenbat $CO_2$ saihesten dugun jakinda.

Efikaziaren balioespena

9.2.1 esku-hartze lerroari dagozkion ekintzen efikaziari dagokionez, eskura dugun informazioaren arabera, ezin dugu balioespenik egin banakatu ahal izateko zenbat gaztek baliatu duten populazio guztiaren artetik. Dena dela, Moveuskadi atarian erregistratuko jarduera-mailaren arabera, 6.800 bidaia partekatu egin dira 2014 eta 2016 artean; horrek esan nahi du batez beste 4 pertsona izan direla bidaiako.

# 04

# Gomendioak

# 4. Gomendioak

Kapitulu hau hiru esparru kontuan hartuta egituratu da, eta haiekin lotutako gomendioak prestatu dira.
1.- Planaren egiturarekin berarekin lotutako gomendioak.
2.- Sistematikarekin eta segimendua egiteko informazioa biltzeko metodoarekin lotutako gomendioak.
3.- Esku hartzeko arloei buruzko gomendioak.

## Planaren egiturarekin berarekin lotutako gomendioak

Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren ezaugarrien artean, helburu eta esku-hartze lerro estrategiko ugari zabaltzen dituela nabarmendu behar da, eta horiek oinarri hartuta egituratzen dira aurreikusten dituen ekintza ugariak. Zabalera horren bidez, 2014 eta 2016 bitartean Jaurlaritzak gazteen kolektiboarekin lotuta burututako guztia bil daiteke. Dena dela, aurreikusitako jardueren hetereogeneotasunak eta garrantzi-maila desberdinek zera eragiten dute, praktikan lausotu egiten dela izaera operatiboko jardueren multzoaren arteko ekintza estrategikoa, horiek baitira planeko ekintza guztien artetik gehiengoa.

Bestetik, Jaurlaritzak gazteen alorrean bideratutako jardun osoa egitura estrategiko baten barruan biltzeko eta bateratzeko ahaleginaren ondorioz, ekintza batzuk modu behartu samarrean biltzen dira helburu edo esku-hartze lerroetan; zehazki, kasu askotan, jarduteko estrategikoak ez direnekin lotuta.

Alde horretatik, **aldi estrategiko berri bati begira hobetzeko proposamenak gazteen alorrean sail bakoitzak garatu beharreko jarduna sinplifikatzea eta lehenestea eskatzen du**; hala, etorkizuneko planaren enuntziatuak gazteen kolektiborako lehentasunezko erronkak eta jarduerak esandako erronka horiei erantzutera bideratuta egongo dira.

Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak gazteen kolektiborako egikaritutako jardun osoa urtez urte jasota edukitzea informazio oso baliagarria da, eta ezin daiteke galdu; hori dela eta, **gazteentzako plan estrategikoaz aparte, jardueren katalogo bat prestatzea gomendatzen dugu, balio eta bizitza propioa izango dituen erreminta gisa**.

Jardueren definizio propio gisa eta edozer erremintatan jasotzen eta aztertzen direla ere, gomendio espezifiko bat egin beharra dago: **jarduerek euren definizioari eutsi behar diote, baldin eta urteetan zehar jarraitzen badute**. Ebaluatzeko planean, ezinbestekoa izan da normalizazio bat egitea datu-basean, planaren horizontean garatutako ekintza guztiak aztertu ahal izateko. Arrazoizkoa da urtero planteatzen diren helburuak aldatzea, baina jardueren definizioak ez lirateke aldatu behar, batik bat beren horretan jarraitzen badute.

## Sistematikarekin eta segimendua egiteko informazioa biltzeko metodoarekin lotutako gomendioak

Informazioa jasotzea erabakigarria da gazte-planaren emaitzen segimendua eta ebaluazioa egokiro egin ahal izateko, ezarritako helburuekin alderatu eta horren arabera erabakiak hartu ahal izateko, eta, finean, lortzen ari garen emaitzei buruzko kontrol egokia egiteko.

Alde horretatik, orain arte ezarritako sistematikak hainbat hobetzeko alderdi ageri ditu, honako lerro hauetan azalduko dugun moduan.

- **Ezinbestekoa da jarduera bakoitza garatuta lortu nahi ditugun helburuen hasierako definizio egoki bat edukitzea**. III. Gazte Planak hainbat jarduera biltzen ditu, eta haietan ez daude argiro definituta jarduera horiek ebaluatzeko adierazleak, ez dituzte aldez aurretik beteta eduki beharreko helburuak zehazten edota ez daude behar beste lotuta ekintza bakoitzaren helburu zehatzarekin. Hori dela eta, ezinbestekoa litzateke ekintzak pare bat irizpide garbirekin definitzea haiek garatuta lortu beharreko helburuei dagokienez, eta, ondoren, haiek neurtzeko adierazlerik onenak identifikatzea.
- Adierazleei eurei dagokienez, berriz, gutxienez bi ezaugarri bete behar dituzte: emaitzak balioestea eta modu homogeneo eta etengabean jasotzea. Ebaluazio zorrotz bat egiteko, ezinbesteko oinarria da irizpide berak erabilita kalkulatutako adierazleak izatea, iturri garrantzitsuetatik hartutako informazioarekin eta datuak jasotzen eta kalkulatzen etenik izan gabe. Hori dela eta, **definitutako adierazleen kalitatea hobetzea gomendatzen dugu**, eta definizio horiek arduradunek partekatu eta beren gai har ditzatela, ondoren kalkuluak eta datu-hornidura Gazteria Zuzendaritzari helarazteko.
- Zehazki, aurrekontuen informazioan biltzen diren adierazleekin loturik, **programatutakoa eta egikaritutakoa jasotzeko irizpide argiak ezarri behar dira** urte bateko baino gehiagoko jarduerak direnean; izan ere, datuak zuzen ez hartzeak ondorio okerrak eragin ditzake.
- **Plana diseinatu ostean adierazleak aldatzeko, ezinbestekoa izango da aldez aurretik jakinaraztea eta horri buruzko adostasuna izatea**. Ez dugu ahaztu behar plan estrategiko bat bizirik dagoen erreminta dela, eta funtzionamendu malgua izan behar duela, justifikatutako aldaketetara egokitu ahal izateko; edonola ere, egia da, halaber, aldaketa horiek segimendu-metodologia bati jarraituta egin behar direla, kasu horietan nola jokatu behar den definituta. Urteetan izandako jarduera baterako adierazleak aldatzeak, ordezkatzeak edota kentzeak kalte baino ez dio egingo ebaluazio orokorrari.
- **Gazte-planean bildutako jardueretan ardura duten sailen arteko koordinazioa eta lankidetza bereziki funtsezkoak dira**. Gazte Planak transbertsalitate-osagai handia du; hori dela eta, batzorde edo tankerako figuraren bat ezartzea gomendatzen da, lankidetza hori hobetzeko, beharrezko informazioa emateko, hobekuntzak eta arazoak identifikatzeko, neurketa-mekanismo berriak proposatzeko edota jardueretako sinergiak aprobetxatzeko, besteak beste.
- Azkenik, **bada hobetzeko eremu nabarmen bat Gazte Planaren egungo datu-baserako datuak biltzeko, komunikatzeko eta elikatzeko sistematikarekin lotuta**. Gaur egun daukagun erremintak (Microsoft Access-eko datu-basea) ez ditu asetzen beharrezko funtzionalitate-bermeak, zaharkituta dago eta berritzeko premiarekin. Analisi espezifiko bat egitearen kalterik gabe, erreminta horrek eboluzionatu beharra dauka, eta jarduera bakoitzaren informazioa zuzenean erregistratzeko aukera eskaini behar zaie jardueron arduradunei. Egungo sistema ez da efizientea eta ez du laguntzen informazio osoa eta beharrezkoa biltzen, segimendu eta ebaluazio optimoak egin ahal izateko.

## Esku hartzeko arloei buruzko gomendioak

### Hezkuntzaren arloa

Pertsonen bizialdiko etapak barne hartzen dituen etengabeko prozesua da hezkuntza. Haren helburua gizakiaren gaitasunen garapen gorena lortzea da dimentsio guztietan, banako subjektua eta pertsona aktiboa dela eta garapen sozialarekin eta ingurumenaren garapen jasangarriaren garapenarekin konprometituta dagoela aintzat hartuta. Haren funtzioa ezagutzak eta trebetasunak transmititzea baino gehiago da. Jarreren eraldaketa biltzen du, batez ere, gazteen artean; balioak transmititzeko eta konpartitzeko kanala da, eta indar integratzaile izugarria. Ikasleei etorkizuneko karrera profesionaletarako prestakuntza emateaz gain, gizartean erabat garatu ahal izateko tresnak ematen dizkie. Horregatik, gizarte gero eta aurreratuagoa eduki nahi bada, beharrezkoa da, era berean, hezkuntza-sistema aurreratua edukitzea.

Inolako zalantzarik gabe, ikasketak eta emaitza akademikoak ezin ukatuzko alderdi oinarrizkoa eta erabakigarria dira gazte batek lan-munduan izango dituen aukeren aurrean. Euskadiko hezkuntza-sistemaren gaurkotasunari dagokionez, 2015ean Pisa Txosteneko emaitzarik kaskarrenak jaso genituen (483/600), 2003an txostena egiten hasi zirenetik. Azterlan horrek 15 urteko ikasleen errendimenduaren analisia egiten du, hiru urtetik behin hainbat herrialdeetan egiten diren azterketa estandarizatu batzuetatik abiatuta. Helburua zera da, hiru gaitasun-arlo modu objektiboan neurtzea: irakurmena, matematikak eta natura-zientziak.

Bestalde, 18 eta 24 urte bitarteko gazteen eskola-uztearen tasari erreparatuta, urtez urte beheraka jarraitzen du, eta bigarren hezkuntzako graduatze-tasak egonkor jarraitzen du. Azken hamar urteetan graduatze-tasak % 80 inguruan jarraitu du; 2014an izan zuen maximoa, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen % 85,8 graduatu baitziren orduan.

Bestetik, goi-mailako hezkuntzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea Espainia osotik ondoen prestatutako gazteak edukitzeagatik nabarmentzen da. Hala, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako heziketa-zikloak, 30 eta 34 urte bitartekoen kasuan, % 37,8k egiten zituen 2006an, eta 2014an % 47,5ek. Hala, ehuneko hori Europar Batasunekoaren goitik ipini da (% 37,9) baita Espainiako batez bestekotik ere (% 42,3).

Emakumeen eta gizonen artean ikasketak aukeratzeko aldeei dagokienez, berriz, nabarmendu behar dugu esanguratsua dela ikasketa-mailei erreparatzen baldin badiegu. Gizonezkoek joera handiago dute ikasketa profesionalak egiteko emakumeek baino; goi-mailako ikasketetan, ordea, kontrakoa gertatzen da, izan ere, 20 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 47k baitituzte ikasketa horiek, eta gizonen % 30,8k.

Era berean, nabarmentzekoa da EAEn zientzietan, matematiketan edo teknologian titulazio tertziarioa duten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: mila pertsonatik 27,2 lagunek dute halakoren bat. Portzentaje hori oso goitik dago Estatuko batezbestekotik (11,2) eta EBko 28 herrialdeetatik ere (13,4). Zientzia horietako graduatze-tasa handienak goi-mailako lanbide-heziketako irakaskuntzarekin lotuta daude. Datu horiek ikusita, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak ondorioztatzen du ezinbestekoa dela ikerketa gehiago indartzea. Gainera, alde horretatik eta irakasgai horien arten diren genero-alde handiak kontuan izanda (gizonezkoen tasa % 38 baita eta emakumeena, berriz, % 16), Europar Batasunak genero-eten hori murrizteko lan egiteko helburua ezarri du.

Euskararen ezagutzari dagokionez, bost euskal gaztetatik lauk menderatzen dute euskara, eta atzerriko gainerako hizkuntzei dagokienez, berriz, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 48,3k dio «oso ondo» edo «nahiko ondo» konpontzen dela. Amaitzeko, azken urteotan atzerritik etorritako populazioa handitu egin da gure gizartean, eta horrek ere isla izan du gure hezkuntza-sisteman; hala, erronka berriak planteatu dira horrekin loturik, horien artean nagusia, kulturartekotasuna.

Egoera hori oinarri hartuta, ondoren jasotzen ditugun gomendioak egokitzat jotzen ditugu.

- **Gizarte-desberdintasunen** efektua murriztea hezkuntza-sisteman.
- **Euskararen** presentzia sustatzea eta indartzea gazteen artean hezkuntzaren esparruan.
- **Balioetan oinarritutako prestakuntza** mantentzea eta garatzea, gaztetatik hasita.
- Bokazioan gaztetatik sustatzea, batez ere **teknologiarekin eta ikerketarekin lotutakoak**.

## Enpleguaren arloa

Gazteak lan-merkatura sartzea erabakigarria da etorkizuna duen gizarte bat eraikitzeko, integrazioa errazteko eta egonkortasuna eskaintzeko bizitza-proiektu profesionalei zein pertsonalei heldu ahal izateko: ordaindutako enplegu bat nahitaezko baldintza da bitarteko ekonomikoak izateko eta, hala, gazteek emantzipazioa planteatzeko, euren bizitza-proiektu independenteari eta helduari ekin ahal izan diezaioten.

Alabaina, gazteen langabezia-tasa, nahiz eta apur bat murriztu den 2014-2016 aldian, oso maila handietan dago (% 23,7). Hori dela eta, gazteen enplegua sustatzera bideratutako neurriak indartzen lan handia egiten jarraitu beharko da, datozen urteetako ekintza publikoan.

Aldi berean, gazteen arteko behin-behinekotasunak soldatapeko euskal gazteen erdiari baino gehiagori eragiten dio, eta populazio osoaren behin-behinekotasunaren tasaren bikoitza baino handiagoa da (2014an % 56,8 zen gazteen artean, eta % 24 populazio osoaren artean, 2017an argitaratutako gazte-diagnostikoko datuen arabera). Hori dela eta, lan-prekarietatea murriztera bideratutako neurriak hartu beharko lirateke. Testuinguru horretan, euskal gazteen batez besteko soldatari dagokionez, hilean 1.000 euro ingurukoa da; zehazki, 996 euro. Zenbateko horrek ez du aldaketa handirik izan azkeneko urteetan; izan ere, 2011n 30 urtetik beherako gazteen batez besteko soldata 998 euro zen, 2013an 966 euro izan zen, eta 2015ean, berriz, 996 euro. Horri gaineratuta, nabarmendu da azken urteetan gizonezkoen batez besteko soldata handitu egin dela, eta emakumezkoena, berriz, murriztu; horren arrazoia, partzialki, lanaldi murriztuak emakumeen artean gehiago ugaritu izana da. Hori dela eta, pizgarriak ematen jarraitu beharra dago emakumeek eta gizonek lan-merkatuan aukera-berdintasunez parte hartu dezaten.

Hezkuntzaren mundua eta lan-mundua gerturatu izanak erakusten du bide efizientea dela gazteek lehendabiziko lan-esperientzia garaiz izan dezaten: hala, unibertsitatearen esparruan ere aukera desberdinak sustatzea eta trebakuntza duala indartzea garatu beharreko alderdia izango da datozen urteetan.

Azkenik, 2015ean adierazi zen okupatutako gazteen % 6,1 autonomoak edo enpresariak zirela, eta norbere konturako lana gehiago dagoela zabalduta gizonen artean emakumeen artean baino. Gazteen ekintzailetza sustatzeak lehentasunezko esparru izaten jarraitzen du administrazio publikoentzat oro har eta Eusko Jaurlaritzarentzat bereziki; hori dela eta, gazteen ekintzailetza-jardueraren arloan sentsibilizatzeko eta garatzea bultzatzeko programek presente egoten jarraitu beharko dute, baldin eta EAEko gazteen kolektiboak gero eta gehiago ekitea lortu nahi baldin badugu.

## Etxebizitzaren arloa

Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana Etxebizitzaren 2013-2016 aldirako Gida Planarekin batera egina da, eta bietan ere alokairu-araubidea sustatzeak biltzen ditu ekintza gehien; izan ere, alokairua ageri da aukerarik bideragarrien etxebizitza eskatzen duten pertsonen artean. Esku-hartze lerro estrategikoetako bat gazteen alokairua eta finantza-laguntza sustatuta etxebizitza eskuratzera bideratzen du.

Testuinguru horretan, bizitegi-emantzipazioa da gaztarotik helduarora igarotzeko urrats erabakigarrietako bat. Hori dela eta, etxebizitza eskuratzea oinarrizkoa da gazteen emantzipaziora bideratutako politika publikoetan. Analisi estatistikoek erakutsi dutenez, Euskadiko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 29,9 urtekoa da, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina baino ia sei urte gehiago. Hala, 18 eta 34 urte bitarteko kolektiboaren emantzipazio-tasa % 40,9 da (25 urte baino lehen Euskadiko gazteen % 5,5 emantzipatzen da; 25 eta 29 urte bitartean, % 39,5; eta 30 eta 34 urte bitartean, berriz, % 75,3). Egoera horren aurrean, gaineratu behar da emantzipatzeko traba nagusia etxebizitzaren prezio garestiak direla. Nahiz eta etxebizitza askearen salerosketa-neurriak murriztu diren azkeneko urteetan, alokairu askeko errenten batez besteko zenbatekoa gutxi aldatu da: 2007an 890 euro zen hilean, eta 2015ean, berriz, 872 euro.

Gazteen artean emantzipatzeko den modurik zabalenari erreparatzen baldin badiogu, alokairuaren aldeko preferentzia ez da tankera horretan emantzipatutako gazteen bidez bakarrik adierazten, baizik eta oraindik ere gurasoekin bizi direnen artean ere bai, etorkizuneko emantzipazioan pentsatzean. Bestetik, Etxebiden etxebizitza

babestuaren eskatzaile gisa izena emanda dauden gazteen kopuruak behera egin du azken urteotan: 66.700 ziren 2009an, eta 46.255, berriz, 2013an.

Aurreko guztia kontuan hartuta, etorkizuneko proposamenak alokairua sustatu behar du lehentasunezko aukera gisa, alokairuko etxebizitza eskuratzeko bidea erraztuta, etxeen jabe diren norbanakoak eta entitateak sentsibilizatuta araubide horretan etxe kopuru handiagoa mobilizatzeko eta, finean, emaitza onak ematen ari diren programekin jarraituta, hala nola Bizigune eta ASAP.

Bestalde, ezinbestekoa da lerro gehiago irekitzea ere, agian berritzaileagoak, gazteen kolektiboak etxebizitza eskuratzeko erreminta berriak bilatzeari dagokionez.

## Osasunaren arloa

Osasuna ongizatearen osagai ezinbestekoa da eta, bizitzako lehen etapetan, lotura estua gordetzen du helduaroko bizitzaren osasunarekin. Funtsezkoa da, hortaz, gazteen artean ahalik eta osasun onena sustatzeko lanean jarraitzea, proposatutako esku-hartze eta ekintza guztietarako ekitatea bilatuta.

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2020 aldirako Osasun Planak osasungintza-politikaren ildo estrategiko nagusiak definitzen ditu, inplikatutako sektoreak herritarren osasun-beharrizan garrantzitsuenetara bideratu ahal izateko. Hala, bost esparrutan egituratuta, planak gazteen kolektiborako bereziki diseinatutako atala du. Haren bidez, haurtzaroan eta gaztaroan osasun-baldintzak eta -aukerak hobetzea bilatzen da, eta osasunarekin lotutako eskumenei heltzea, erabaki osasungarriak hartzeko.

Eustatek 2007an egindako osasun-inkestatik hartutako datuen arabera, gazteek euren osasunari buruz oro har duten pertzepzioa «ona» da. Hala, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 79k dio osasun ona edo oso ona duela, eta % 17,1ek, berriz, bikaina. Alabaina, urteetan aurrera egin ahala osasunari buruzko pertzepzioak okerrera egiten du bi sexuetan, eta hainbat osasun-arazo detektatu dira, modu espezifikoan ez bada ere, modu esanguratsuan gazteei eragiten dietenak, hala nola adikzio-portaerak, haurren obesitatea, sexu-transmisiozko gaixotasunak edota elikadura-nahasmenduak. Gaixotasun horiei gehituta, arazo psikologikoak nabarmendu behar dira; izan ere, EAEko gazteen % 16k dio izan duela halakorik azken 12 hilabeteetan (esaterako, antsietatea, estresa, depresioa...).

Bizitza-estiloarekin lotuta, bizitza aktibo samarra duten gazteak dira gehienak; hala, % 81ek diote bizimodu aktiboa dutela, eta % 18k baino ez bizimodu sedentarioa dutela. Ikerketa askok erakutsi duenez, 12 urtetik aurrera gazteen bizimoduan nolabaiteko inbertsioa gertatzen da; hala, oro har aktibo izatetik nagusiki pasibo izatera igarotzen dira hainbat arrazoi direla eta, hala nola denbora-falta, ondo pasatzeko sentsazioa murriztea eta abar. Badirudi datuek baieztatu egiten dutela kirola praktikatzea bertan behera uztearen errealitate hori. Hala, 15 eta 19 urte bitarteko % 86k praktikatuko luke kirola, 20 eta 24 artekoetan % 80k, eta 25 eta 29 urte bitartean, berriz, % 79k.

Egoera hori oinarri hartuta, ondoren jasotzen ditugun gomendioak egokitzat jotzen ditugu.

- EAEko gazteen artean bizitza-ohitura eta -jokabide osasungarriak sustatzea, osasunaren arloko sustapenaren eta hezkuntzaren bidez.
- Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko programei eustea eta haien sustapena egitea, eta, oro har, gazteen bizitza afektiboa eta emozionala lantzeko neurriak hartzea.
- Gazteen arten elikadura osasungarria sustatzeko programak egitea hezkuntzaren alorrean, gehiegizko pisua eta haurren obesitatea saihesteko helburuz.
- EAEko gazteen artean jarduera fisikoa sustatzea/indartzea.
- EAEko adikzioei buruzko VII. planean aurreikusitako jarduera-ildoak eta programak garatzea.

## Gizarte-ekintzaren arloa

Aurreko ataletan ikusi eta aztertu dugun moduan, gizarte-ekintzak desberdintasunaren kontrako egoerak borrokatzeari egiten dio erreferentzia, baita hainbat eratako bitartekoak eskuratzeko desberdintasunak borrokatzeari ere. Hartara, gazteen egoera ekonomikoari erreparatuta, EAEko hamar gaztetatik ia hiru ekonomikoki independenteak dira euren familiekiko, eta modu esklusiboan edo partzialean euren edo bikotekideen diru-sarreretatik bizi dira; gainerako % 70en kasuan, berriz, familia da diru-sarrera ekonomikoen iturri nagusia edo ezinbesteko osagarria.

Gazteen egoera ekonomikoari buruz hitz egitean sortzen den beste auzi garrantzitsu bat euren diru-eskuragarritasunaren berri izatea da; hala, 16 eta 29 urte bitarteko pertsonentzat hilean 300 euro da. Populazio horren herenek, bestalde, 600 euro baino gehiago dituzte.

Egoera horren aurrean ikusten dugunez, pobrezia-egoerak 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 5,6ri eragiten dio; 25 eta 34 urte bitartekoen % 4,2ri, eta 25 urte baino gutxiagoko pertsona bat buru duen etxeen erdiak pobrezia-arriskuan leudeke. Hala, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 2k diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen du; neurri hori nahikoa baliabide ez duten pertsona eta familien oinarrizko premiak asetzeko bideratua da.

Bestetik, gizarte-ekintzaren arloak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren analisia ere jorratzen du, eta, horretarako, honako adierazle hauek ipintzen ditu aurrez aurre: etxeko lanen eta zainketen banaketa, enplegua eskuratzeko diren desberdintasunak eta, azkenik, genero-indarkeriako zifrak.

Etxeko lanak banatzeari dagokionez, datuek erakusten dute etxeko lanen banaketa handiagoa ageri dela, berdintasunera iritsi gabe, seme-alabarik euren kargu ez den bitartean; familia handitzen den unean, emakumeek hartzen duten karga hori, aurrekoari gaineratuta. Bestetik, emakumeek eta gizonek betetzen dituzten lanpostuen kategorien arteko aldeak alde, lanean sexu-diskriminazioaren pertzepzioak zera erakutsi du, hamar gaztetatik seik pentsatzen dutela emakumea edo gizonezkoa izateak ez duela eragiten lanpostu bat eskuratzeko garaian.

Azkenik, genero-indarkeriak eragin handia du euskal emakume gazteen artean, emakumeen kontrako indarkeria-tasa Euskadin 7,3 baita 15 eta 29 urte bitarteko 1000 emakumetik, 2015eko datuen arabera. Hala, emakume gazteei dagozkien tasak handiagoak dira 29 urtetik gorakoei dagozkienak baino; horrek ez du esan nahi gazteek genero-indarkeria gehiago sufritzen dutenik, baizik eta emakume gazteek gehiago salatzen dutela egoera hori.

Hori ikusita, honako gomendio hauek eskaintzen dira.

- Bazterketa-arriskuan dauden gazteentzako arreta-programei eustea eta sustapena egitea.
- Aurrera egitea emakume eta gizon gazteen arteko harremanetan benetako berdintasuna lortzeko, bai eremu pertsonalean, bai lanekoan.
- Gazteria genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea, eta desagerrarazteko neurriak garatzea.

## Kontsumoaren arloa

Mendebaldeko gizarteek azkeneko hamarkadetan izandako bilakaerak, kontsumoari dagokionez, masa-kontsumoko gizarte batean ipintzen gaitu; hau da, garapen industrial kapitalistaren etapa aurreratuko kontsumoa dugu, ondasunen eta zerbitzuen kontsumo masiboa ezaugarri duena, ekoizpen masiboaren ondorioz.

Egoera horren aurrean, administrazio publikoek kontsumo arduratsuan heztera bideratutako balioak transmititzen lagundu behar dute; hau da, gazteen kolektiboak kontziente izan behar du kontsumitzea behar bat asetzea baino harago doala, eta, ondorioz kontsumo-ohiturak egiazko beharretara egokitu behar ditu, betiere ingurumenaren babesa eta gizarte-berdintasuna sustatuko dituzten aukeren alde eginda.

Hala, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek irizpide arrazionalak baliatzen dituzte, eta, hortaz, % 68,8k aurretik pentsatuta izaten dute zer erosi nahi duen; % 53,5ek erabakita izaten du zenbat gastatu nahi duen; % 55,8k, produktua erosi aurretik, zenbait establezimendutako prezioak alderatzen ditu; % 47,7k produktuaren bermea egiaztatzen du; % 67,4k erosketaren faktura edo txartela egiaztatzen du; eta % 81,4k erreklamazioa aurkezten du, arazorik izanez gero.

Bestetik, produktu bat kontsumitu aurretik, gazte gutxik (hain zuzen, % 12,8k) planteatzen dituzte produktu hori ekoizteko baliatutako baldintza sozialak eta ekologikoak kontsumitu aurretik, baita kontsumo horren ondorioak ere, eta ez onura pertsonalaren arabera bakarrik.

Hori ikusita, honako gomendio hauek eskaintzen dira.

- EAEko gazteen artean kontsumo arrazionalaren esparruan hezteko programei eustea.
- Gazteen artean kontzientzia soziala garatzera bideratutako politikak eta jarduerak indartzea, gizartearen eta ingurumenaren aldetik kontsumo jasangarria sustatzeko.

## Kulturaren arloa

Eusko Jaurlaritzak kezka berezia agertu du kulturaren arloaren barruan, IKTek praktika artistikoetan eta haien adierazpideetan izandako inpaktuagatik, baita gazteen kontsumoan izandako eraginagatik eta kulturaren esparruak Euskadin bi hizkuntza ofizial izatearekin lotuta dituen ondorioengatik ere.

Teknologia berriek eurekin dakarte jarduera artistikoetan gehiago parte hartzea, batez ere ikus-entzunezkoetan; izan ere, musika entzuteko interes eta maiztasun handia da gazteen kolektiboa beste adin-tarteetatik bereizten duen ezaugarrietako bat.

Euskal gazteak museoak, arte-galeriak, erakusketak eta bestelako kultura-ekipamenduak bisitatzera joateari dagokionez, gazteen % 20 baino gutxiago joan ohi da maiz museoetara, eta % 10era ez dira iristen galerietara edo erakusketetara joaten direnak. Horrez gain, baldintza linguistikoak ere desberdintasunak ekartzen ditu euskarazko hainbat kultura-praktikari dagokionez. Alde horretatik, datuek erakusten dute gazte elebidunek ehuneko handiagoak ageri dituztela hainbat alderditan gazte elebakarrek baino: kontzertuetara joatea, antzerkira joatea edota bertsolarien emanaldietara joatea.

Gazteen adierazpide artistikoari eta sortzaileari begiratzen badiogu, berriz, nabarmendu behar dugu begien bistan geratu dela zer-nolako garrantzia duen administrazioak kultura-sorkuntzan eragiteak, gazte sortzaileen kolektiboei lagunduta, azpiegiturak garatuz, laguntza ekonomikoak emanez, programak edota zerbitzu berriak antolatuz eta hainbat ekimenetara zuzendutako jarduerak eginez. Horrez gain, promozio eta difusioko faseetan laguntzeko beharra ere nabarmendu da; fase horiek hainbat kultura-jarduera eta -sorkuntza sustatzera bideratuta egoten dira.

Azkenik, globaltasuna, sarbide mugagabea eta doakoa, erosotasuna, erraztasuna, bizkortasuna eta berehalakotasuna dira teknologia berriekin lotutako abantaila edo balio nagusiak. Sare sozialek hartu duten zabalkundea eta rol nagusia, are handiagoa populazio gazteagoaren adin-tarteetan, interes biziko fenomenoa da,

eta nazioarteko harremanen garapen bat-batekoa lortu du; izan ere, lau gaztetatik batek sare horiek baliatzen ditu beste herrialde batzuetako gazteekin harremanetan jarduteko.

Egoera hori oinarri hartuta, ondoren jasotzen ditugun gomendioak egokitzat jotzen ditugu.

- Gazteek kultura eskuratzeko bidea erraztea, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna kontuan hartuta.
- Kulturaren alorreko materialak sortzea, ekoiztea eta kontsumitzea, euskara sustatzeari arreta berezia ipinita.

## Mugikortasun jasangarriaren arloa

Gazte Planaren ebaluazioan landu den moduan, mugikortasun jasangarriaren kontzeptuak honako honi egingo dio erreferentzia: espazio-mugikortasuneko irizpideei, ia modu egunerokoan gertatzen direnean, ikasketak, lana edota aisia dela eta, analisi honetan gazteei erreparatuta.

EAEko gazteei dagokienez, 2016an 15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen % 39,8k garraio publikoa baliatu zuen egunero edo ia egunero; ehuneko hori 2012an erregistratutakoa baino handiagoa da, % 37,2 baitzen ehunekoa, eta 2008an, berriz, % 33,4koa.

Era berean, igoera erregistratu da gazteen artean ohiko joan-etorrietan bizikleta erabiltzeari dagokionez: 2008an % 5,3k baliatzen zuen, 2012an % 9,6k, eta 2016an, berriz, % 13,4k.

Euskadiko gazteen mugikortasun jasangarriaren egoera horren aurrean, honako gomendio hauek egingo genituzke.

- Oinezkoen mugikortasuna eta bizikletaren erabilera sustatzen jarraitzea gazteen artean

## Aisiaren arloa

Gazteen aisialdi-modua aztertzeko, ezinbestekoa da datu bat kontuan hartzea: lautik hiruk egunean hiru ordu edo gehiago dituela libre. Gazteek aste barruan izandako aisia-jarduera nagusien artean, honako hauek daude: telebista ikustea, lagunekin edo bikotekidearekin ibiltzea eta musika entzutea. Proportzio txikiagoan daude kirola egitea eta ordenagailuarekin ibiltzea.

Kirola praktikatzeari dagokionez, Euskadiko gazteen erdiek baino gehiagok gutxienez kirol bat praktikatzen dute (% 54,5), eta sexuaren aldagaiak alde nabarmena ematen du: kirola praktikatzen duten mutilak % 66 dira, eta neskak, berriz, % 42,6. Bestalde, nabarmentzekoa da eskola-kirolak duen garrantzia gazteen aldetik kirol-jardunean sartzeko ate gisa.

Era berean, nabarmentzekoa da gazteek teknologia berriak erabiltzea euren denbora librean, lau gaztetatik hiru sarera konektatzen baitira astean gutxienez 7 orduz. Horrek esan nahi du egunean gutxienez ordubete ematen dutela sarean. Horrez gain, azpimarratzekoa da sare sozialen zabaltzea eta hazkundea: gazteen % 99k erabiltzen dute sare sozialen bat, nagusiki WhatsApp, Facebook, Instagram eta YouTube.

Bestalde, gazteen aisiarekin lotutako eragile garrantzitsuenez hitz egitean, ezinbestekoa da alor horretan asoziazionismoak duen garrantzia; izan ere, elkarteek eurek eskaintzen dute aisialdirako eskaintza zabala, gizarte-balioen hezkuntzan eta lan komunitarioetan duten esperientzia eta lan handia ahaztu gabe. Hala, EAEko hamar gaztetatik lauk dio elkarteren bateko kide dela.

Asoziazionismoarekin oso modu lotuan, boluntariotzaren fenomenoa ere hortxe daukagu: euskal gazteen % 6k egiten dituzte halakoak GKE edo antzeko erakunderen batean. Gainera, ia hamar gaztetatik lauk dio, nahiz eta egun halako jarduerarik egin ez, gustatuko litzaiokeela praktikatzea.

Azkenik, euskararen ezagutzari buruzko datuak ez datoz bat erabilerarekin; izan ere, hamar gaztetik seik baino gehiagok, etxean euskaraz eginda ere, gaztelania baliatzen dute euren gainerako harremanetan.

Egoera horren aurrean, honako gomendio hauek egiten ditugu.

- Gazteen artean kirola egitea sustatzea, maila guztietan, sozializatzeko tresna gisa eta aisialdi osasungarrirako modu gisa.
- Gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaltzea.
- Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

# Eranskinak

# I. eranskina. Egindako landa-lanaren xehetasuna

Azterlan honetan erabilitako metodologiak informazioaren analisia izan du oinarrian (datu kuantitatiboak eta informazio kualitatiboa), baita hainbat adierazle ere, honako informazio-iturri hauetatik eskuratuak:

- **Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Zuzendaritzak elikatutako eta mantendutako datu-basea.**

  Gazteriaren Zuzendaritzak 2014 eta 2016 bitartean Eusko Jaurlaritzak gazteei begira programatu eta bete dituen jarduera guztien bilduma osatzen duen datu-basea eman du. Bildutako informazioa zuzendaritza bakoitzak ematen du, Gazteriaren Zuzendaritzak prestatutako fitxak beteta. Fitxa horiek urtean bitan helarazten dira; lehendabizikoak zuzendaritzek urte jakin batean programatutako jarduerei buruzko informazioa biltzeko, eta bigarrenak, berriz, haien egikaritze-mailaren berri izateko. Ondoren, Gazteriaren Sailak informazio hori datu-basean txertatzen du, hainbat dokumentu sortzeko xedez.


PROGRAMACIÓN DE ACCIONES POSITIVAS DEL PLAN JOVEN DE LA CAV

| | |
|---|---|
| Área | 1 EDUCACIÓN |
| Institución | Gobierno Vasco<br>Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad |
| Objetivo Estratégico | 1.1.6. Apoyar la investigación y los estudios de especialización. |
| Línea de Intervención | 1.6.2. IMPULSAR PROGRAMAS QUE INCENTIVEN LA INVESTIGACIÓN. |
| Acción | Concesión de becas para la realización de estudios en los Institutos Politécnico Marítimo-Pesquero de Pasaia, Ondarroa y Bermeo. |
| Objetivos | Fomar a profesionales en activo del sector pesquero hacia las titulaciones más demandadas (tanto puente, como máquinas) en las tripulaciones. |
| Destinatarios/as | Jóvenes profesionales del sector pesquero en activo. |
| Responsable | Dirección de Pesca y Acuicultura |
| Observaciones | Entidad colaboradora de gestión: Fundación HAZI. Colaboran los Institutos Politécnicos Marítimo-Pesqueros de Pasaia, Ondarroa y Bermeo. |
| Presupuesto | 133.815,00 € |
| Partida Presupuestaria | 14.0.1.03.43.0200.2.453.01.71120.001/G |
| Indic. Evaluación | - Número de becas concedidas |


E- 2014

GRADO DE CUMPLIMIENTO DE ACCIONES DEL III PLAN JOVEN

| | |
|---|---|
| Área | 1 EDUCACIÓN |
| Institución | Gobierno Vasco Presidencia del Gobierno |
| Objetivos Estratégicos: | 1.1.6. Apoyar la investigación y los estudios de especialización. |
| Línea de Intervención: | 1.6.1. PROMOVER LA DOTACIÓN DE BECAS PARA ESTUDIOS DE ESPECIALIZACIÓN EN EL PAÍS Y EN EL EXTRANJERO. |
| Acción Realizada | Becas de especialización de profesionales en el área de Acción Exterior; 8 becas. 4 en Vitoria-Gasteiz, 2 en Bruselas, 1en México y 1 en Chile... |
| Instrumento | Decreto 171/2011, de 26 de julio por el que se regulan las becas de especialización de profesionales en el área de Acción Exterior. Resolución de 24-9-2013, por la que se convocan Becas de Especialización de profesionales en el área de Acción Exterior. |
| Objetivos Cumplidos | -Impulsar la especialización y formación de profesionales en el área de acción exterior, en los ámbitos de las Relaciones Exteriores y de la Unión Europea con el objeto de formar un cuerpo de especialistas en Acción Exterior en la CAPV. |
| Beneficiarios/as | Universitarios/as con titulación superior o de grado, de 30 años. 8<br>Número Beneficiadas: 6<br>Número de Beneficiados: 2 |
| Responsable | Dirección de Relaciones Exteriores |
| Gasto Ejecutado | 80.000,00 €<br>Programa plurianual: 160.000 € de presupuesto total. |
| Partida Presupuestaria | 13.0.1.01.21.0100.4.453.01.13110.003/P |
| Datos de Evaluación | 8 - Número de becas concedidas (hombres/mujeres)<br>- 81 personas solicitantes.<br>- Los destinos han sido las delegaciones predefinidas. |

Informazio horren barruan, honako hauek nabarmenduko genituzke[16]:

- Saila
- Zuzendaritza arduraduna

[16] Gomendioen atalean aipatu dugun bezala, hobetzeko tarte nabarmena dago informazioa betetzeko moduan, baita informazioaren trazagarritasuna hobetzearen arloan ere.

- Ardatza
- Arloa
- Helburua
- Esku-hartze lerroa
- Programatutako aurrekontua
- Egikaritutako aurrekontua
- Betetako helburuak
- Erakunde eta pertsona onuradunak
- Lankidetzak
- Ebaluazio-adierazleak

- **Eusko Jaurlaritzako inplikatutako zuzendaritzetako teknikariei egindako elkarrizketak**

  Eusko Jaurlaritzako inplikatutako zuzendaritza bakoitzeko arduradun teknikoei egindako elkarrizketak, egindako jardueren gainean zer balioespen orokor duten jakiteko, ekintzok garatzeko eta koordinatzeko baliatutako mekanismoen inguruan zer iritzi duten ezagutzeko eta etorkizuneko planei begira hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzeko.

  Elkarrizketa horiek aurrez aurreko bileren bidez egin dira, baita telefono-deien bidez ere. Elkarrizketak antolatzeko, bilera fisikoak egin dira III. Gazte Planean lehentasuna izan duten zuzendaritzekin eta sailekin, bai egikaritutako aurrekontua kontuan hartuta, bai garatutako jarduera kopurua kontuan hartuta.

  Elkarrizketa bakoitzeko agenda prestatzeko, honako alderdi hauek berrikustea hartu da aintzat.

  - **Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren emaitzen balioespena**

    Bileraren helburu nagusia III. Gazte Planean egikaritutako jarduera bakoitzaren xehetasuna eta balioespena egitea izan da (arlo bakoitzeko helburu estrategikoei erantzuteko jardueren egokitasuna, emaitzen balioespen orokorra, planaren malgutasun-maila eta hirugarrenekin zein beste zuzendaritzekin izandako lankidetza-maila).

  - **Jardueren xehetasuna. Programatutako eta egikaritutako jardueren artean izandako desbideratzea.**

    III. Gazte Planaren emaitzak ebaluatzeko alderdi funtsezko gisa, garrantzitsua izan da planifikazioan eta/edo aurrekontuan izandako atzerapenen edo desbideratzeen berri izatea, zailtasunak edo trabak izan dituzten esparruei buruzko ulermen egiazkoa errazte aldera, baita etorkizuneko hausnarketa egiten lagunduko duten adierazleak lortzeko ere.

  - **Prozesuaren xehetasuna. III. Gazte Planean programatutako jarduerak egikaritzeko topatutako zailtasunak.**

    Kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat programatutako ekintzak egikaritzeko prozesuak izandako zailtasunak izan dira; esaterako, kudeaketa-kontuak, koordinazioa, segimendua, emaitzen ebaluazioa eta abar.

  - **Etorkizuneko erronka nagusiak.**

    Azkenik, planean parte hartu duten zuzendaritzen etorkizuneko erronkak zein diren jakin nahi izan da, ebaluazioa amaitzeko garaian egungo edo balizko ardatz edo arlo bakoitzean gomendioak egin ahal izateko.

Ondoren, zuzendaritzekin izandako bileren zerrenda jaso dugu.

| Departamento | Direcciones Participantes | Reunión | Llamada | Fecha reunión/llamada |
|---|---|---|---|---|
| **Dpto de Adminitración Pública y Justicia** | | | | |
| | Servicio Justicia Juvenil | x | | martes 27 de junio, 8:00H |
| **Dpto Seguridad** | | | | |
| | Dirección de Tráfico | x | | jueves 22 de junio, 13:00H |
| | Dirección de Juegos y Espectáculos | x | | martes 27 de junio, 9:00H |
| | Dirección de Coordinación de Seguridad | x | | martes 27 de junio, 9:00H |
| | Dirección de Ertzaintza | x | | jueves 22 de junio, 13:00H |
| **Presidencia del Gobierno** | | | | |
| | Dirección de Gobierno Abierto | x | | jueves 6 de julio, 12:00H |
| | Secretaria General de presidencia | x | | jueves 6 de julio, 12:00H |
| | Desarrollo | x | | jueves 6 de julio, 12:00H |
| | Dirección relaciones Exteriores | | x | miercoles 5 de julio, 10:00H |
| | Secretaría General para la Paz y la Convivencia | | x | viernes 30 de junio, 8:00H |
| | Dirección para la Comunidad Vasca en el Exterior | | x | lunes 10 de julio, 10:30H |
| | Emakunde | x | | miercoles 28 de junio, 11:00H |
| **Dpto de Educación, Política Ligüística y Cultura** | | | | |
| | Dirección de Juventud y Deportes | x | | lunes 3 de julio, 10:00H |
| | Dirección de Investigación Lingüística y Coordinación | | x | miercoles 5 de julio, 9:00H |
| | Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas | | x | miercoles 12 de julio, 8:00H |
| | Dirección de Educación Innovativa | x | | miercoles 28 de junio, 13:00H |
| | Dirección de Centros Escolares | x | | miercoles 28 de junio, 13:00H |
| | Dirección de Universidades, | | x | lunes 10 de julio, 9:30H |
| | Dirección de Política Científica | | x | lunes 10 de julio, 9:30H |
| | Dirección de Formación Profesional | x | | jueves 6 de julio, 10:30H |
| | Dirección de Patrimonio Cultural | x | | lunes 26 de junio, 13:00H |
| | Dirección de Promoción de la Cultura | x | | martes 11 de julio, 9:00H |
| **Dpto de Empleo y Políticas Sociales** | | | | |
| | LANBIDE | x | | martes 27 de junio, 11:00H |
| | Dirección de Planificación e Innovación en el Empleo | x | | martes 27 de junio, 11:00H |
| | Dirección de Economía Social | x | | martes 4 de julio, 9:00H |
| | Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda | x | | martes 11 de julio, 12:00H |
| | Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario | x | | miercoles 28 de junio, 9:00H |
| | Dirección de Servicios Sociales | x | | miercoles 28 de junio, 9:00H |
| **Dpto de Desarrollo Económico y Competitividad** | | | | |
| | Dirección de Comercio | x | | martes 11 de julio, 11:00H |
| | Dirección de Turismo | x | | martes 11 de julio, 11:00H |
| | Dirección Internacionalización | x | | jueves 6 de julio, 9:00H |
| | Dirección Tecnología y Estrategia | x | | martes 4 de julio 10:30H |
| | Dirección Agricultura y Ganadería | x | | martes 4 de julio, 13:00H |
| | Dirección de Pesca y Acuicultura | x | | martes 4 de julio, 13:00H |
| | Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias | x | | martes 4 de julio, 13:00H |
| **Dpto de Salud** | | | | |
| | Kontsumobide | x | | martes 27 de junio, 14:30H |
| | Dir de Salud Pública y Adicciones | x | | jueves 6 de julio, 13:30H |
| | Osakidetza | x | | jueves 6 de julio, 13:30H |
| **Dpto de Medio Ambiente y Política Territorial** | | | | |
| | Dirección Planificacion del Transporte | x | | jueves 22 de junio, 10:00H |
| | Dirección Medio Ambiente | x | | jueves 22 de junio, 11:00H |

- **III. Gazte Planaren esparruan egindako dokumentu teknikoak, hala nola aurretik aipatu ditugunak (segimendu-txostenak), edota Gazteriaren Euskal Behatokiak prestatutako bestelako dokumentu analitikoagoak, Gazteaukera atarian zabalduak.**

- **EUSTATek edota Eusko Jaurlaritzaren bestelako behatokiren batek egindako bestelako datu estatistikoak eta analisiak, edota sailek eurek prestatutako txostenak.**